



ARXURIA EZ HUNKITZEKO ALDARRIA

Baztango Udalak Arxuriko kaskorat joateko pista eraikitzeko baimena eman izanak harrabotsa sortu du Zugarramurdin eta Saran, eta herritarrek, haserre, «gure lurra xehatua ez izateko beharrezkoa den guztia» egiteko prest agertu dira. Urriaren 21ean, manifestazioa eginen zutela iragarri zuten. Baina geroztik, aldaketak izan dira. Baztango Udalak, aste honetan, bozkatzekoa zuen berriz gaia eta EH Bilduk eta Baztango Independenteek kontra eginen dutela iragarri dute. Herritarrek adierazi dutenez, «urriaren 17ko bilkuran proiektuaren kontra bozkatzeko bada, manifestazioa alde batera utziko dugu». / 41-58

Lurraren eta baserritarren egunak

Igande honetan, urriaren 22an, Lurraren Eguna ospatuko dute Beran, eta azaroaren 1ean Baserritarren Eguna Arantzán / 14-20

SINADURAK



Arantxa Ansa
aranoarrarekin
txalapartari buruzko
kontuak hizpide / 7



Joanes Etxebeste
Sarako pailazoa eta
aktorearekin
solasean / 10

Herritar talde batek
Leitzako Mendibil
Mendi Taldea indartu
nahi du / 32

Landa Eremuko
Emakumeen Eguna
oroituz, Patricia
Tornerorekin / 42



ZOKKETA / 72



Nafarroako
Bertsolari Txapelketa
2023

Final-laurdena
LEITZA
Urriak 21, larunbata
17:30ean, Herri Aretoan



Eneko Lazkoz Martinez, Josu Sanjurjo Altzuri, Bittori Elizalde Soto,
Endika Legarna Nuin, Saats Karasatorre Martinez eta Fernando Ziganda Urdanpilleta
Gai-jartzailea: Ander Aranburu Arriola

Artolatzailea  Leguntzailea 

www.bertsotzale.eus
Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai



EGUTEGIAK 2024

Hainbat
formatutako
egutegiak
egiten ditugu

**ESKATU
AURREKONTUA
konpromisorik gabe!**

 **KULTURKARI**
Diseinu grafikoa | Publizitatea

INFORMAZIO GEHIAGO:
Koskontako bidea, 7-1 · LESAKA · Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus · www.kulturkari.com



NIRE TXANDA

JON ABRIL OLAETXEA

Atzenduak

Europako bazter honetatik, zilborraren erdigunetik, ezikusiarrena egiten diogu hankaz goiti dagoen mundu honetako makina bat gatazkari. Interes ekonomiko eta geopolitikoek markatzen dute zer eta noiz komunikatu. Ukrainako gerraren oihartzun bakar batzuk ailegatzen zaizkigu. Yemen, Mianmar, Afganistan, Siria, Tigra... badirenik ere ez dakigu, kasik. Palestina eta Sahararekiko elkartasun- eta lankidetzak sare sendoxeagoak garatu ditugulako, maizago izaten dugu haien berri, baina etorri bezala atzentzen zaizkigu hango kontuak ere. Lerro hauek idazterako lastu da, belztu da, bertze behin, Gazako egoera. Irakurleak leitzerako, auskalo zenbat gerra-krimen gehiago eginak izanen dituen Israelek. Palestinarrak animalien gisara tratatuko dituztela onartu du, publikoki, eskuin muturreko gobernuak. Eta mendebaldeak saldu nahiko digu bere defentsan ari dela Israel, nahita atzenda hamarkadak daramatzala lurra ebaste, palestinarrak zapaltzen, hiltzen, bizitzeko aukerarik gabe uzten, herria deuseztatzen. Gerra krimenak egiten. Ia ez ditugun atzentzen.

**«EZIKUSIARENA
EGITEN DIEGU
MUNDU HONETAKO
GATAZKEI»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Casteller

3-4 urtetik hasi eta 80 urte bitarteko ehun lagun baino gehiagoren elkarlana, inor ez da soberan, bakoitzak berea eginez denen mesederako; zerbait okertzen hasten denean gelditu, desegin eta berriz ere hutsetik abiatzeko umiltasuna eta ahala; ikusgarria eta hunkigarria; zerbaitegatik izendatua ditu UNESCOk *els castells* gizateriaren ondare. *Fins aviat!*

NABARMENTZEKOAK



ESTITXU
FERNANDEZ
IDAZLEA



ARANTXA
ARREGI
ALKATEA

Estitxu Fernandez Maritxalar psikologo eta idazle lesakarrak *Sortze berri bat. Indarkeria obstetrikorik gabea* liburua kaleratu du Txalapartaren eskutik.

Doneztebeko alkate Arantxa Arregi Alberro da Cederna Garalur elkarteko lehendakari berria. Ekainean hartu zuen alkate kargua Arregik, eta urrian elkartekoa.

GIBELERA BEGIRA



2013-10-17 · TTIPI-TTAPA · 600 zk.

Alkoholismoari buruz solasean

Berako Alkoholiko Anonimoen taldeko sortzaile zen Isidora-ekin elkartu zen duela 10 urte TTIPI-TTAPA. 27 urte zeramatzan orduan edan gabe, eta asteazkenero elkartzen zen bertze 13 lagunekin batera Berako taldean. «Ez dugu ez maisu, ez irakaslerik. Dugun arazo batetaz hitz egiteko txokoa da», kontatu zuen elkarteari buruz. Alkoholak gizartean duen pisuaz mintzatu zen: «Alkohola kultura bat da gurean. Zein ospakizun da alkoholik gabe? Oso gutxi edo bat ere ez. Guk alkoholari ezetz handi bat esaten ikasi behar dugu alde aurretiko joera ikaragarria dugulako. Lehendabiziko tragoa edo basoa da guri kalte egiten diguna, lehendabizikoaren ondotik, ez dakigulako gelditzen».



erran.
eus



Argitaratzailea
Ttiipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberriagarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 45€
eta Malerrekako 36€
Leitza 36€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 100€
Amerika eta Australia 152€



KOLABORAZIOAK

LOREA FLORES COMPAINS

Burujabe izateko gai al gara?

Duela gutti hitzaldi batean parte hartu dut, eta honako galdera egin zidaten nire solasaldia gidatzeko: «Baliabide guttiagorekin, gure behar gehiago bertatik asetzea posible ote da?». Ez dut uste erantzunik ematea lortu nuenik, baina hausnartzeko bide batzuk planteatzen saiatu nintzen. Hiru puntu azpimarratu nahi izan nituen.

Lehenbiziko puntua baliabideen eskuragarritasunari lotutakoa zen. Izan ere, benetan baliabideak eskasagoak izanen dira etorkizunean? Dagoeneko ez al gara baliabideak hagitz gaizki erabiltzen ari? Hitzaldiaren aitzineko astean, Nafarroa hegoaldean abeltzaintza eta nekazaritzari lotutako ur kutsadura neurtzen aritu nintzen bertze lagun batzuekin. Topatutako egoera ikaragarria izan zen, batez ere Erriberan. Uste baino ur gehiago topatu genuen berez idorra den toki batean. Erreka, erreka, ibai eta iturburuetan neurtu genituen nitratoak eta aurkitutako kutsadura maila ikaragarria izan zen. Duela 30 urte pertsonak edateko erabiltzen zuten ura gaur egun edangaitza da. Lur azpiko urak kutsatuta izanik orain herri horietako anitz, Itoitzetik datorren Nafarroako ubideko urarekin hornitzen dituzte. Honek zer erakutsi zigun, uraren baliabidea egon badagoela, lur azpian, altxor bat bezala gordeta. Baina, Nafarroako abeltzaintza eta nekazaritza ereduak batzuen onura

«DAGOENOKO EZ AL GARA BALIABIDEAK HAGITZ GAIZKI ERABILTZEN ARI?»

ekonomikoak hobetsi dituenek, naturaren kontserbazioaren aitzinetik, lur azpiko altxor hori zapuztu egin dugu erabilgaitz bihurtuz.

Ekarri nuen bigarren puntua, beharren inguruan zen. Izan ere, etorkizunean zein dira

estali beharko ditugun beharrak? Gaur egun ditugun «beharretako» anitz, segur aski sistema kapitalista kontsumista honek sortutakoak dira. Zentzu horretan, badira ikerketa batzuk Europa mailan trantsizio energetiko azkar eta justu bat nola egin aztertzen eta politika zehatzak proposatzen dabiltzanak. Ikerketa horietan hiru oinarri hartzen dituzte, energia berriztagarriak, efizientzia (baliabideak modu efiziente erabiltzeko) eta sufizientzia (nahikotasuna). Sufizientzia honek dioena da, bizidun guztien biziak sostengatzeko benetan beharrezkoak diren behar horiei eman behar zaiela lehentasuna, bertze guztiak alde batera utziz. Beraz, planifikazio egokiekin agian, baliabide guttiagorekin behar guttiago ase beharko ditugu.

Azkenik, elikadura burujabetzaren definizio bat oinarri hartuta bi kontu. Etorkizunean burujabetza jasagarri eta justuak eraiki nahi baditugu, elikagaiak, ura, energia... eskubide gisa hartu behar ditugu eta ez gaur egun bezala merkatuan salerosteko gai bezala. Bizi bizigarriak sostengatzeko oinarritzko baliabideen eskuragarritasuna eskubide izan behar du. Eta azkenik, erabakitzeo eskubidea aldarrikatu. Gure antolakuntza, gure elikadura sistema, energia sistema nola izanen den erabakitzeo eskubidea berreskuratu behar dugu, baita horietan modu aktiboan parte hartzeko eskubidea, kontsumitzaile hutsetik agente aktibo izatera pasatzeko.



MIXEL GEREKA ZELAIA

J... Jota josten

Jota da alfabetoko bederatzigarren letra (C beste hizkuntza bateko mailegientzat soilik erabili ohi baitugu euskaraz) eta hor jarraituko dut aspaldi Arekin hasitako bidea.

J da letra eta jota da baita kanta eta dantza herrikoia ere hainbat tokitan, jota eta fandango. Jota da nekea eta dantzaren ondoren jota egon gaitezke. Jota da estimazioa eta asko jota erabiltzen dugu kopururen batera hurbiltzeko. Jota da gaitza eta burutik jota dagoenik ere egon badago.

Jo dago jotaren erro edo oinarrian, eta jo da esanahi ezberdinak dituzten beste adierazpen askoren iturri: elkar jo edo makilaz jo, txaloak jo, atea jo, garia jo, oilarrak jo, eguzkiak jo, trumoa jo, danborra jo, enbido edo hordago jo, zorigaitztoak jo, maiteminak jo, goseak jo, adarra jo, baita agonia jo ere, kanpaia jo edo larrua jo, eta urrutira jo gabe, joareak jo.

Jo barruan dugun o hizkiari kosk egin eta ju dugu aldaeran, eta josi eta josiz, denborak eta bizitzak ekarri nauen egoera berrira salto egin eta *jubilare* hitzera nator. Latinezko etimologiari begiratuz gero, zera dio: «*jubilare*: erretiroa lortzea (1495), berez, jada lan egin behar ez duenaren gogobetetzeaz gozatzea. Lat. (1605): pozezko oihuak botatzea». Izugarri gustatu zait definizioa eta ziur nago zuek ere, batzuek bota eta beste batzuek entzuten dituzuela era horretako oihuak inguruan.

«OFIZIALKI 'KLASE PASIBOA' NAIZELA DIOEN TXARTELA JASO DUT»

JubilatuOK (orain arte jubilatuak ziren niretzat, besteak...) denbora sobran dugunez jubilazioaren ingurumarian ibili naiz sarean eta aspaldiko kontua dela jakin dut. Erromatarrek adinekoak babesteko arauak

sortu omen zituzten erretiro duina lortzeko eta lege horietako bat Lex Cionaria izan zen (zikoinaren legea). Zikoinen jokabidean oinarrituriko izena, izan ere, horiek heldu bihurtzen direnean eta beren kabuz baliatzen direnean, guraso nagusiak zaintzen dituzte, haiek babestu eta janaria emanez. Beste begi batzuekin begiratuko ditut aurrerantzean kanpandorre eta argindarren poste gainetako kabi dotoretan kakaraka aritzen diren lumadun bikoteak.

Ondoren, urteak eta hautsak metatu dira eta gaur egun dugun sistemara iritsi gara Otto von Bismarckek 1881ean Alemanian sortutako Gizarte Segurantzako lehen sistema modernoa ezarri zuenetik. Espainian, nolako egurra halako ezpala, Bismarcken banaketa sistema kontributiboari jarraituz (langile bakoitzak kotizatutakoarekin lotua) 1919an sortu zen Gizarte Segurantza, Langileen Erretiroa izenarekin. Erresuma Batuan eta beste lurralde anglosaxoietan, berriz, Beveridge izenaz ezagutzen den sistema ez kontributiboa ezarri zen, non birbanaketa osagaia agertzen den, alegia, langile gehienei asistentzia-pentsio finkoa eta berdina ematea.

Halaxe ba, jubilazioa iritsi zait eta inguruan jasotzen dudun mezurik ohikoena da, «orain zu lasai, ez kezkatu eta disfrutatu». Ofizialki ere 'klase pasiboa' naizela dioen txartela jaso dut.

Inguruko obrak ikusteaz gain, klase aktiboaren aldarrikapen ozenena! Jotarekin hasi eta josiz josi, *jotake* zutabea bukatu arte!

11 GALDERA LABUR

AIMAR IPARRAGIRRE ZINKUNEGI ETXALARKO GAZTEA

«Kamera hartuta nire kabuz ikasi dut gehiena»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Kamera eskuetatik askatu ezin duen 22 urteko gaztea.

Zein dira zure zaletasunak?

Zaletasuna zaletasun, nahia-go bidelagunekin.

Nondik heldu zaizu bideogintzarako zaletasuna?

Nahiko gaztetxotatik, familia-ko bazkarietan osabari kamera lapurtzen nion eta 12 urterekin lehenbiziko kamera oparitu zidaten.

Nolako formakuntza izan duzu?

Gasteizen goi mailako ziklo bat egin nuen, baina topikoa ematen badu ere, mundu honetako aunitzek bezala kamera hartu eta nire kabuz ikasi nuen gehiena, esperientzia bidez eta baita Internetari esker ere.

Ikus-entzunezko proiektuetan parte hartu duzu?

Bai, proiektu batzuetan parte hartzeko aukera izan dut: EHTerentzako *Kolpeka* saioan, Lesaka eta Bera artean grabatutako *Muga* film laburrean... egia erran lan gogorra eta nekagarria izaten ahal da, baina giro ona eta bertako harremanak hagitz inportanteak izan zaizkit eramangarriagoa egiteko.

Xaloan ere ibilia zara. Nolako esperientzia izan zen?

Iazko udan izan nuen aukera Xaloan aritzeko, eta egia erran interesgarria izan zen eta gustura ibili nintzen. Egia da nik zine mundura zuzentzeko gogoia dudala, baina hemen inguruan lan egiteko aukera eta eskualdeko jendea ezagu-



tu eta beraiekin lan egitea aunitz gustatu zitzaidan.

Zine eskolan zaude orain...

Eskola hauek zine mundura hurbiltzeko aukera ematen dute, dena modu profesionalago batean ezagutzeko. Argazki zuzendaria izateko ikasten ari naiz, baina lanpostu aunitz daude horren barnean.

Erraza da honetan lan egitea?

Mundu honetan txoko bat egitea ez zait hagitz erraza iduritzen, baina poliki-poliki ari naiz!

Zein da zure ametssetako lanbidea?

Oraindik aunitz duk ikasteko eta ikusteko, baina filmazioetan egon nahi dut, kamerarekin edo argiztapenarekin lotura duen zerbaitetan.

Zure asmoak epe motzera?

Kontzertuetan argazkiak ateratzeko irrikitan nago eta horretan pixkanaka hasi naiz, duela gutti arte inoiz egin ez dudan gauza bat baita.

Eta epe luzera?

Lasaia bezain aktiboa den bizimodua izatea.



Denboraldi berria

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Beintzako aterpearen alde

PILAR TELLETXEA SAGASETA

Zaila egiten zait egun hauetan nire herrian gertatzen denaren inguruan nire iritzia ematea, baina uste dut beharrezkoa dela herrikoen artean honi buruz hitz egitea.

Egun batean Beintzara iritsi zen mutil baten istorioa berritzea nahiko nuke. Gure paisaiak, herriak eta bertako jendeak maiteminduta gelditu zelarrik, negozio bat sortzea erabaki zuen.

Negozio honek 25 urte baino gehiagoko ibilbidea dauka. Ez da lan erraza horrelako negozio bat kudeatzea, non gure hizkuntza, herriko jendeak inguratutako izugarriko paisaiak eta bertako tradizioen altxorak nabarmen-tzen diren... Eta mapan jarri gaituen ostatu bakarra da, non, gainera, enplegua eta ekonomia sortzen duen. Herriko biztanleentzat oinarriko pieza izan da eta horrela izaten jarraitzea nahi dugu.

Herri askok ostatua bezain baliotsua den zerbait eduki nahiko lukete. Gogoan izan Nafarroako mendialdeko «herri hustu eta zaharren» parte garela.

Zein herritakoa garen galdetzen diguten bakoitzean, harro erantzuten dugu Beintza-Labainen parte garela. Bada-kizu zer? Ba herriko txokoren batean haur ala gazte bat irribarretsu aurkituko duzula, nola ez, herriari bizia ematen.

Ezagutzen duzun edozein gazterekin solasean hasten bazara, nongoa naizen aipatzen diodanean, Beintzako aterpetxean izandako esperientzia gogoratzen hasten da, begiak irribarre txiki batekin argitzen zaizkio.

Eta momentu horretan harritzen zara. Nafarroako gazte askotan errepikatzen

baita. Izan ere, aterpetxe honen esperientziak gozatzea opari bat da gaur egun bisitatzen jarraitzen gaituzten haur eta gazteentzat.

Errandako guztia kontuan hartuz, gertatzen ari den guztia asimilatzea zaila egiten zait. Egia erran, harritu egiten nau horrelako herri batean halako keak jartzea. Zaratez, eragozpenez, etab... Tira. Ez dut ulertzen norbaitek egoera hau nola babesten ahal duen eta gauden egoerara iristea.

Zarata horiek jolasei, korrika doazen haurrei, musikari eta alaitasunari erantzuten diete. Eguneroko giroa izatea nahiko nuke, ordu guztietan eta urteko hilabete guztietan entzunda aunitz poztuko nintzateke! Nafarroako mendialdeko herri batean, bizirik jarraitzen dugula gogorazten diguten susmoak eta irribarreak dira, eta hori, gazteen eta haurren kanpaldiei esker!! ORBELA Aterpeari esker!!

Zerbaiteko balio badu, mesedez, udal honek egoera honi amaiera eman diezaiola eskatzen dut. Mikel eta Idoari babesa eman diezaiela eskatzen dut, bizitzen gelditzeko apustua egin zutelako eta herrian negozio bat hasi eta segida eman diotelako. Eguneroko altxor honetaz, gure herriak eta bertako jendeak gozatzeko dugun zortea agerian utzi.

Eta eskatzen dut zalantza eta salaketa horiei amaiera ematea eta Beintza-Labaienek halako pertsonak izatea guztiontzat zein onuragarria den zehazteko. Ekimen onak sustatzea eta daukaguna zaintzea eskatzen dut. Mila esker Mikel eta Idoia herrikoientzat erreferenteak izateagatik, zareten bezala izateagatik eta gure herria gehiago maitarazteagatik.

HEMEROTEKA



«Guraso bakarrak ez gara existitzen administrazioan. Bi urtez administrazioarekin izan ditudan harreman pixarretan, denean izan da traba edo ezustekoa (...) 'Ze ausarta zaren' erran izan didatenean, nik nire baitako pentsatzen dut, 'ausarta zu, pertsona horrekin izan dituzula umeak', baina nik hori ez dut erraten ahal».

MAITANE MARITORENA AZKARATE
ANIZ I HAMAIIKA TELEBISTA | 2023.10.10



«Indarkeria obstetrikoa emakumearen kontrako indarkeriarik ikusezinena da. *Sortze berri bat indarkeria obstetrikorik gabea* liburua, alde batetik, indarkeria obstetrikoa ikusaraztera eta bertzetik, bizi gaituen sistema eta artatzen gaituen osasun sistema seinalatzerara dator, ez profesionalak, baizik eta sistema bera».

ESTITXU FERNANDEZ MARITXALAR
LESAKA I ETB1 | 2023/10/02

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

@ Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@tipi.eus
📞 948 63 54 58

«Txalaparta jotzen lagun bakarra ikusten baduzu, zerbait falta da»

ARANTXA ANSA ZUGARRAMURDI ARANOKO TXALAPARTARIA

Ofizios musika irakaslea da Ansa ahizpetan zaharrena, baina urte luzez, lana txalapartarekin uztartu du. Izen handiko musikarien ondoan eta munduko hainbat txokotan eman ditu txalaparta kolpeak

G. PIKABEA ARANO

Aurkezpen gutxi behar dute ansatarrek euskal kulturari buruz ari bagara. Dohain berezia dute eta, hori oholtza askotan erakutsi dute Arantxa, Ainhoa eta Maider Ansa Zugarramurdi ahizpek, euskal kantak beraien ahots eta musika doinu goxoekin lau hai-zetara zabaldu dituzten aldiro. Etxean barneratu zuten zale-tasuna, eta oroimenean ongi iltzatuak dituzte amonaren eta amaren kantak. Hortik abiatuta ibilbide luzea egin dute, askotan elkarrekin, baina baita bakoitzak bere aldetik ere. Arantxa ahizpa zaharrena, esaterako, ofizios musika irakaslea da, baina musika afiziotzat hartuta ere arrasto luzea uzten ari da. Besteak beste, txalapartari lotuta Juan Mari Beltran musikari eta musikologo ezagunaren taldean ibili zen, baita Oreka TX txalaparta taldearekin eta Aukeran Dantza Konpainiarekin ere. Orain, berriz, urte luzez txalaparta ikastarok alde batera utzi ondoren, Aranon eta Goizuetan txalaparta ikastaroa antolatatu du, dohainik. Hemezortzi lagunek eman dute izena.

Ttiki-ttikitatik musikagintzari lotuta. Kontatuko zeniguke?

Bai, ttiki-ttikitatik. Osaba batek piano ttiki bat oparitu zidan, eta orduantxe sartu zitzaidan musika ikasketak egiteko gogo. Bederatzi urterekin pianoa ikasten hasi nintzen. Hasieran Imanol Kamio irakaslearekin



Arantxa Ansa ttiki-ttikitatik ibili da musikari lotuta. Gaur egun, musika irakaslea da.

Goizuetan ibili ginen eta oinarrizko maila han egin nuen. Ondoren, Donostiako Kontserbatoriora sartzeko hauta-proba egin eta erdi mailara arte piano ikasketak egin nituen.

Eta txalapartaren makilak noiz eta nolatan hartu zenituen?

15-16 urterekin hasi nintzen, pianoa ikasten ari nintzen bitartean. Omenaldiren batean ikusi nuen eta polita iruditu zitzaidan. Lau lehengusu txala-

parta ikastera animatu ginen, eta Juanma Vicente irakaslearekin Ergobiko lokal batean hasi ginen. Urte batez ikasi genuenarekin Juan Mari Beltranen txalaparta taldera eraman gintuzten, eta segituan bere taldean jotzen hasi nintzen. **Eta segitu zenuen...**

17 urterekin hasi nintzen Juan Mari Beltranen taldean eta bospasei urtez edo gehixeagoz ibili nintzen. Ondoren, Oreka TX taldekoak etorri zitzaizki-

gun, eta nire lehengusu Eli Ansarekin batera sartu nintzen. Haiekin beste sei bat urte egin genituen. Aukeran Dantza Konpainiarekin ere aritu nintzen, kasu horretan, txalapartarekin, teklatuarekin, abesten... 30 urtera arte taldez talde ibili nintzen.

Orduko zer oroitzapen dituzu?

Talde guztietan esperientzia ona izan nuen. Lanbidez musika irakaslea naiz, eta aipatu ditugun taldeak gozamenerako tarreak ziren niretzat. Hala eta guztiz ez bazaude, ez du zentzurik hor egoteak. Gainera, talde batek bestera eraman ninduen, askotan bietan egun berean kontzertua izaten nuen eta ordekoarekin moldatu behar... Baina oso esperientzia polita izan zen.

Talde bakoitzak zer eman zizun?

Juan Mari Beltranek musika tradizionalaren ikuspuntu etnografikoaz gain, berpizteko eta berritzeko erakustaldi bat eman zidan. Ia hilda zeuden musika tresna asko berpiztu zituen eta gaur egun ere ohol-tza gainean jarraitzen du, tradiziozko erakustaldi bat eginez. Oreka TX, berriz, txalapartaren iraultza izan zen. Bi taldeak ezin nituen ez uztartu, eta gaztea zarenen berrikuntza gus-tuko duzunez, Oreka TXrekin jarraitu nuen. Juan Marirekin estatu mailan ibili nintzen, eta Oreka TXrekin mundu mailan. Eta Aukeran Dantza Konpainiak ere berdin, bidaiatzeko aukera eman zidan. Batekin eta bestearekin, Italian, Eskozian, estatu mailan asko, Filipinetan... ibili nintzen.

Bada horien artean bereziki go-goan gelditu zaizuna?

Beharbada urrutien dagoen herrialdera egindakoa: Filipinetara. Euskal kultura zabal-tzeko asmoz egindako bidaiak esperientzia ezberdina izan zen, guztien artean exotikoena. **Txalaparta ikasten hasi eta klaseak ematera pasatu zinen. Nola eman zenuen salto hori?**

Uste dut 18 urterekin izan zela, gidabaimena atera eta kotxea erosi nuen. Andoainen, —>

→ Amezketan, Zubietan... Garai hartan banuen eskaintza. Goizuetan ere ikastaroaren bat egin nuen eta Leitza urte asko eman nituen, zazpi bat urte. Ikasle oso onak nituen, oso finak, orain lagunak ditudanak. Hasiera hartan, txalaparta klaseak arratsaldean ematen hasi nintzen. Baina kontserbatorioan ikasketak bukatu nituenean, Lekunberriko Aralar Musika Eskolan arratsaldean lanean hasi nintzen, Goizuetan, Leitza... klaseak emanez. Txalaparta ikastaroak eguerdira pasatu behar izan nituen eta 29 urtera arte txalaparta ikastaroak ematen ibili nintzen. 26 urterekin Haur Hezkuntzako gradua ikasi nuen eta eskoletara saltoa egitea pentsatu nuen. Geroztik eskoletan musika irakaslea naiz. **Eta garai hartan nola egiten zenuen lana, ikasketak eta zaletasuna uztartzeko?**

Goizetan etxeko kontuak egiten nituen, eguerditan txalaparta klaseak eman han eta hemen, ikasketak unibertsitateara joan gabe lanen bidez egin nituen, arratsaldetan musika eskolan lanean aritzen nintzen eta tokatzen zenean kontzertuak.

Ainhoa eta Mainer ahizpekin ere asko ibilitakoa zara. Nola hasi zineten?

Ainhoa eta biok asko abesten genuen elkarrekin, eta tikiak [Maiderekin] entzun egingo zigun eta hamar urterekin kantu txapelketan apuntatu zela esan zigun, eta 'Zuk, Ainhoa, gitarra joko duzu eta zuk, Arantxa, pianoa'. Holaxe hasi ginen. Mainer sariak jaso eta jaso hasi zen, herriko festetan ere beti kontzertuak egiten genituen, eta herriz herri deitzen hasi zitzaizkigun. Pandemia aurretik Artantxuriketan ikuskizuna ere egin genuen. Juan Mari Beltranek ahozko tradizioaren inguruan guri ateratzen zitzaigun zerbait sortzeko eskatu zigun, eta gure amonaren kantak berreskuratuz ikuskizun bat egitea pentsatu genuen. Ama [Maria



Arantxa Ansa txalaparta jotzen.

Jesus Zugarramurdi] ere animatu zen, eta pandemia aurretik horrekin ibili ginen. Pandemiaren ondoren saio bat edo beste egin ditugu, baina hirurak lan askorekin gabiltza eta ez da erraza.

Etxean euskal kantak eta bertsoak beti presente izan dituzue...

Bai, erabat. Amarengandik, aitarengandik, attonengandik eta amonengandik... Denengandik hartu dugu. Bi aldeetatik familia kantaria dugu.

«TXALAPARTAK ASKO BIDAIATZEKO AUKERA EMAN DIT»

Ttikitatik etxean hain natural bizi izan duzuen euskal musikagintza, gaur egun zein egoeratan ikusten duzu?

Oso giro erdaldunean lan egiten dut, eta ikasleei euskal kultura transmititzen saiatzen naiz, bai Mikel Laboaren kantak, baita gaur egungo musika taldeenak ere. Nahiz eta gaztelaniaren girotik edo beste kulturetatik datozen eta ez duten euskal musika askorik kontsumitzen, gustura hartzen

«HELBURUA TXALAPARTAREN PRESENTZIA EZ GALTZEA DA»

dituzte euskal kulturako proposamenak. Bosgarren mailan ikasle guztiei txalaparta erakusten diet. Pixka bat zirikatatu egin behar dira. Goizuetan eta Aranon ere gazteak txalaparta ikastaroan apuntatzeko zirikatatu nahi nituen, baina gazte gutxi apuntatu dira. Gauza asko dituzte egiteko. Gure garaian pilota edo musika beste aukerarik ez genuen izaten. Gaur egun, ordea, aukera asko dituzte, eta musika eskolak indarra galtzen ari direla esango nuke. Horixe aipatu izan dut batzuetan musika eskolako lagunekin. Hasten direnak onak dira, lehen bezala, baina hainbeste aukeraren artean jarraitzea ez da erraza. Hala ere, gogo duenak berdin-berdin egiten du, eta horren erakusle da zenbat kantari eta talde ateratzen diren. Beraz, egoera ez dut gaizki ikusten.

Eta txalaparta zein egoeratan ikusten duzu?

Ez dut bolada txarrean ikusten. Orokorrean txalaparta jotzeko nahia galdu dela esango nuke. Orduan ikasi zutenek tarteka jotzen dute, eta beste askok ez, baina hori musika tresna guztiekin gertatzen da.

Euskal kulturaren toki inportantea du?

Inportanteena denik ez nuke esango, baina perkusio tresna tradizional bezala funtsezkoa dela uste dut.

Nola definituko zenuke txalaparta ezagutzen ez dutenentzat?

Ez naiz filosofatzen hasiko, baina bi edo hiru lagunaren artean egin behar denez, ez da batera monotonoa. Tresna alaia da, dibertigarria, eta jotzea erraza da. Bi edo hiru lagunaren arteko zerbait izateak asko *engantxatzen* du ikaslea.

Zaila da?

Ongi jotzea zaila da, gauza guztiak bezala, baina pixka bat jotzea ez. Batzuk gehiago landuko dute, besteek gutxiago, batzuk ikasteko erraztasun handiagoa izango dute, besteek gutxiago, baina jotzea ez da konplikatu.

Goizuetan eta Aranon txalapartak zer toki du?

Gaur egun, Aranon toki gutxi du. Gure garaian San Juan bezperako suan eta horrelako ekitaldietan jotzen genuen, baina oso gutxi, askotan txalaparta jotzeko bikotea falta izaten genuen... Ahizpek ere ikasi zuten, eta bietako batek laguntzen bazidan tarte batean jotzen genuen, baina... Eta Goizuetan Olentzeroren etorreran, Gabonetan, txondorren bueltan, Feria Egunean... nahi izaten dute txalaparta.

Txalaparta jotzerakoan hutsunea sumatzen hasia zinen. Horregatik erabaki duzu ikastaroa antolatzeara?

Bai, hori da. Gaur egun ez naiz txalaparta ikastaroak ematen aritzen. Nire eskolako haurrei, eta gurasoek eskatzen badidate, erakusten diet. Goizuetakoa eta Aranokoa salbuespena izan da. Jendeak txalaparta jotzeko eskatzen zuela ikusten nuen, eta ikasle ohiei deituz normalean moldatu izan gara, baina ez da beti erraza, bakoitzak bere familia eta bere martxa du eta... Hortaz, txalaparta jotzen dakien zenbat eta jende gehiago izan, orduan eta hobea. Gainera, txalaparta ikasteko eskaria ere betitik sumatu dut. Txalapartaren presentzia ez galtzea da helburua. Hortik aurrera gehiago ikasi nahi badute, pentsatuko dugu aurrera jarraitu edo ez. Printzipioz, urritik abendura bitarteko ikastaroa izango da.

Nolako erantzuna izan du?

Ona. Aranon zazpi lagun apuntatu dira eta Goizuetan hamaika, guztira hemezortzi. Garai batean, lehengusu askori erakutsi nien txalaparta, eta orduan ume tikiak ziren lehengusuak oraingo ikastaroan apuntatu dira eta ilusio handia egiten dit. Goizuetan bi talde egin ditugu eta bat 17:00etatik 18:00etara biltzen da eta bestea 18:00etatik 19:00etara. Aranon, berriz, 19:30etik 20:30era. Asteartetan izaten ditugu saioak, Aranon



Ezkerretik hasita, Ainhoa Ansa, Maria Jesus Zugarramurdi, Arantxa Ansa eta Maider Ansa.



Ama-alabak Artantxuriketan emanaldian.

Maisuenean eta Goizuetan eskolan.

Zerk motibatu du jendea txalaparta ikastera?

Gustatu egiten zaielako, ez dute beste motibazio profesionalik.

Nolakoak dira ikastaroak?

Praktikoak, txalaparta jo eta jo. Elementu berri bat sartu eta horrekin jolasten dugu, beti inprobisazioaren gainean. Eta bikoteak beti nahastuta. Denak denekin aritzen dira, eta tokatzen zaizun funtzioa-

ren arabera arau batzuk errespetatu jo behar da.

Zein dira oinarriko arau horiek?

Tradizionalean bat ttakuna da eta bestea herrena. Ttakunak saioak hasi egiten ditu, herrenak jarraitu; ttakunak boro-bildu egiten ditu eta herrenak hautsi. Laburbilduta horiek dira oinarriko arauak. Hortik aurrera nahi dituzun erritmo guztiak sar ditzakezu. Hala ere, beste musika tresnak laguntzeko dauden beste tresnak bezala, erritmo gehienak lan-

duta daude. Printzipioa beti gutxienez bi lagun izatea da. Txalaparta jotzen lagun bakarra ikusten baduzu, ai! Hor zerbait falta da. Hori da gure ustez txalapartaren izaera, bi pertsonen konpartitzen duten erritmoa, bien artean, bata besteari entzunda, sortutakoa. **Goizuetako eta Aranoko ikastaroen ondoren, herrirako txalaparta sortzeko asmoa duzula aipatu izan duzu...**

Bai, herritarrek behar dutenean hartu eta erabiltzeko txalaparta bat izan dezaten. Etxean holako ekitaldietarako bat izaten dut, baina nire etxera joan behar dute bila. Hortaz, herrian beharra sortzen denean eskura izatea polita izango litzateke. Aranon baserri batean zuten txalaparta erabiltzeko utzi digute. Ikasle batzuei gustatzen zaie eta beraiena sortzen dute, baina hiru hilabetez ez dakigu horretarako denbora emango duen. Lehen ikastaro luzeagoak ematen genituen. Hala ere, uste dut, Aranon San Martin Egunean ikasleak jotzeko gai izango direla, gaztainak jaten ari garen bitartean, eta Goizuetan Feri Egunerako edo Eguberrietarako ere prest izango direla. Pare bat hilabetez saiotxo bat emateko gai izango dira.

«ARANON ZAZPI
ETA GOIZUETAN
HAMAIKA LAGUN
APUNTATU DIRA»

«BETI GUTXIENEZ
BI LAGUN IZATEA DA
TXALAPARTAREN
PRINTZIPIOA»

«Joanesek eginen ez lukeena egiten du Pontx pailazoak»

JOANES ETXEBESTE SARA KO PAILAZOA ETA AKTOREA

18 urte dituen arren, esperientzia handia du Joanes Etxebeste saratarrak oholta gainean. Orain arteko bideari segituz, aktore eta pailazo gisa hasitako ibilbidea garatu nahi du

A. LARRETxea SARA

Pontx pailazo gisa batzuek, *Goazen* telesailiko Ibai bezala bertze batzuek, bi pertsonaia horiek egin dute ezagun Joanes Etxebeste saratarra. 18 urte ditu, baina gaztea izanagatik esperientzia handia du ohol-tzan. Haurra zela igo zen lehenengoz Sarako plazako ohol-tzara, eta gerotik ibilbide oparoa osatu du jende aitzinean. Pailazogintza maite du, baina, bi urtez *Goazen* telesaillean aritu ondotik, antzezle izateko harra ere sartu zaió barranean. Azken hilabeteetan herriz herri ikuskizunak egiten ibili ondotik, azaroaren 18an Sarako Lur Berri gelan estreinatuko duen ikusgarri berria prestatzeko lanean ari da orain buru-belarri.

Antzezlea, pailazo... Zuk nola deskribatzen duzu zure burua?

Aktorea, pailazo eta gazte sortzailea.

Herriz herri ibiltzen zara Pontx pailazo gisa ikuskizunak egiten.

Nola sortu zen Pontx?

Ni betidanik izan naiz pailazo zalea eta ikuskizun zalea. Eta txikitan erran nuen: «Ni handitan pailazo izanen naiz». 2016an sortu nuen Pontx pailazo nora nindoan gehiegi jakin gabe. Justu ondotik hasi ziren proiektuak sortzen, herrietatik deitzen, eskoletatik, elkarteetatik... Ikusiz erantzuna ona zela horretan jarraitu dut, ene zaletasuna delako. Urteak pasa ahala proiektua eta Pontx pailazo handitzen

joan da eta gaur egun jendeak deitzen nau eta ni gogotsu joaten naiz.

Nola oroitzen duzu zure lehen emanaldia?

Nahiko urduri nintzen. Pontx ez zuen inork ezagutzen. Saran aurkeztu nuen, eta Saran Joanes ezagutzen zuten, baina, Pontxez. Urduritasun handiarekin, ezjakintasun handiarekin nintzen: «Zer pentsatuko du jendeak? Edo zer nolako erantzuna izanen du? Jendea etorriko da? Bai? Ez?». Horrelako zalantzak nituen. Erantzun ona izan zen eta nahiko pozik gelditu nintzen egindako lanarekin.

Eta nolako da Pontx?

Pailazo mugitua, kurioa, alaia noski eta gaztea da. Hagitz-hagitz bihurria da, mugitua eta kurioa. Dena kuxkuxeatzen du, dena galdetzen du eta egia erran lotsa gutti dauka jendeari gauzak aurpegira botatzeko. Ironia handia eta zirikatze gogoia izaten ditu. Gurasoek kontatzen dute haurrengatik joaten direla emanaldietara, eta azkenean, Pontxek beraiek ere bereganatzen dituela.

Eta sortu zenuenetik nolako bidea egin duzu pailazo gisa?

Bide polita egin dut. 2016an ikuskizun bat edo bi eskaini nituen eta ordutik aurrera arte proiektuak hartu du bertze garrantzia bat. Ibili naiz hainbat ekitalditan, Herri Urratsen adibidez. Herri Urratsen egoitea Pontx pailazoarentzat bazen helburua eta ez nuen uste

hain azkar lortuko nuenik. Nahiz eta hurbilean bizi, ikusten nuen helburu urruneko bat bezala. Egon naiz bertan bi urtez antzeztan, eta hortaz aparte ikusi dut jendeari gustatzen zaiola hainbat lekutatik deitu izan nautelako, bai Ipar Euskal Herritik eta baita Hego Euskal Herritik ere. Ibili naiz Zugarramurdi, Urdazubin, Tafallan, Lasarte-Orian... Eta gero hemen Iparraldean Baionan, Senperen, Azkainen... Hainbat lekutan. Nik uste dut badela garatzeko noski, baina, nahiko harro eta nahiko pozik nago orain arte egin dudana ibilbideaz.

Nolako da pailazo izatearen esperientzia?

Pailazo izatearen esperientzian askatzen naiz ainitz. Nahiz eta emanaldian gidoia izan, jarraitu beharreko hari bat izan, egia da pailazo izateak askatasun handia ematen dizula. Pontx Joanes da, da Joanes hamar

«HARRO NAGO ORAIN ARTE EGIN DUDAN IBILBIDEAZ»

«PAILAZO IZATEAK ASKATASUN HANDIA EMATEN DIT»

aldiz. Joanes egitera ausartzen ez den gauzak Pontxek egiten ditu bitan pentsatu gabe. Orain-txe bertan Pontxek barrutik ateratzen zaiona egiten du. Horrek askatasuna ematen dio pertsonari, eta nahiko pozik ibiltzen naiz horrekin: askatasuna ematen dizu, malgutasuna... eta, batez ere, aniztasun handia gauzak proposatzera-koan eta publikoarekin harremana izaterakoan.

Hori da pailazo izateak gehien gustatzen zaizuna?

Alde batetik hori, eta noski publikoan sortzen diren erreakzioak ere bai: ikustea zenbat mugitzen dituen publikoko haurrak, zenbat sartzen diren historiak... Haurren eta Pontxen artean dagoen harremana maite dut.

Eta zailena egiten zaizuna?

Bakarrik ibiltzen naiz, eta batzuetan zaila egiten zait ikuskizun berriak prestatzerakoan ideiak berria aurkitzea. Beti ateratzen dira gauzak, baina, beti dut kezka berdina: «Eta oraingoan zer? Zer nolako proposamena egin dezaket? Zer izan daiteke berria?» Zaila da ni harro, pozik eta eroso egongo naizen edukia sortzea. Egia da aldi berean gehien maite dudana ere badela sor-kuntza.

Publiko zaila dira haurrak?

Umeak zorrotzak dira. Ume batek ez badu maite ipurdia altxa eta alde eginen du. Gustatzen bazaio sartuko da, erantzunen dizu eta gustatzen bazaio erranen dizu gustatu zaiola, eta ez bazaio gustatu erranen dizu ez zaiola gustatu. Egia da horren aldetik badudala batzuetan kezka. Baina aniztetan, erantzun onak hartzen dira eta jendea pozik gelditzen da.

Zein dira zure erreferenteak pailazo gisa?

Euskal Herriko erreferenteak izan ditut batez ere. Txiki-txikitan Txirri, Mirri eta Txiribiton ikusten nituen telebistan, baina erreferente nagusiak nola ez Katxiporreta taldeko Pirritx, Porrotx eta Marimotots izan

dira. Beti izan dira txikitatik nire erreferentzia nagusienak. Beraiegan inspiratu naiz, eta beraien lana izan da nire motibatzailea eta abiapuntua. Haiek ere euskaraz sortzen dute Euskal Herriarentzat eta gizarteko edozein gai hartzen dute eta horretatik abiatzen dira musikatuz haurrei eskaintza hori egiteko. Hori izan da nire abiapuntua. Ni txikitatik beraien oso zalea izan naiz eta erraten nuen nik ere handitan horrelakoa izan nahi nuela.

Beraien emanaldiren batean ere parte hartu duzu, ezta?

Bai. Ingurua etortzen zirenean, Saratik hurbil ditugun herrietan amaiera aldean haiekin eszenatoki gainera igo izan naiz beraiekin parte hartzera. Hala ere, oraindiketa politagoa izan zen apirilean, Baionara etorri zirenean gertatutakoa. Beraiek 35 urte bete dituzte, eta Herri Urratsek 40. Dei bat jaso nuen antolatzaileen partetik esanez polita izanen zela Pontx pailazoak sorpresa bat ematea. Animatu nintzen eta nahiko polita eta hunkigarria izan zen nire txikitako idolei opari bat egitea. Beraiek ere ongi hartu zuten eta oroitzapen polita daukat.

Zein da pailazo gisa egin nahiko zenukeen bidea?

Pailazo gisa aintz gelditzen zaitkasteko eta anitz dut oraindik egiteko. Nire helburua sudur gorria jantzi eta Euskal Herriko hainbat txokotan Pontxen esentzia eta abenturak zabaltzea da. Proiektuari eman nahiko nioke tarte handia, ikusgarritasuna eta horrekin jarraitu nahiko nuke eta umeei erran pailazo gazte bat iritsi dela, eta pailazogintza egiten duela euskaraz eta herriarentzat. Denbora aldetik pazientzia behar da, pixkanaka ari naiz eta nahiko kontent nago egia erran.

Zein izanen da eginen duzun hurrengo ikuskizuna?

Azaroaren 18an estreinatuko da Pontx pailazoaren ikuskizun berria Sarako Lur Berri gelan. Ikuskizunean Pontx eskolara



11 urte zituela sortu zuen Pontx pailazoa Joanes Etxebeste saratarrak. UTZITAKOA

iritsiko da, eta ikusleek Pontxekin batera eskolan murgiltzeko aukera izanen dute, gainera haurrek badute jakintza handia eskolari buruz eta Pontxek hartuko du irakasle kargua eta bera ibiliko da hainbat gai irakasten lagunei eta jolasten.

Nola doa prestaketa?

Oraindik ez dut guztiz guztiz bukatu, baina ongi doa, nahikoa aberatsa izaten ari da. Aurten lehenengo aldiz berrikuntza anitz izanen dira, batez ere musikaren aldetik. Abesti guztiak izanen dira Pontx pailazoarenak, propioak. Alde horretatik nahiko berritzailea da niretzat, eta badut motibazio puntu bat ikusteko ea jendeak maitatuko duen. Sorkun-

tza prozesua nahiko aberatsa izan da eta jende anitz inplikatu da: jantzitegikoak, diseinuaz arduratu direnak, musika konposatzen eta produkzioan ari direnak... Alde horretatik nahiko pozik nago proiektua aberasten inguruko jendearekin eta jakintza duen jendearekin.

Pailazo izateaz gain, 'Goazen' saioko lbai bezala ezagutuko zaituzte anitzek. Nolatan hasi zinen antzezle gisa?

Ni antzeztan txiki txikitik hasi nintzen nire logelan. Baina, inoiz ez dut hartu ez klaserik, ez formakuntzarik, ez egonadirik ez deus. Pixkanaka hasi nintzen, izan nire gelan, herriko plazan... baina ateratzen zitzaidanetik abiatuta. Espe-

rientzia profesionala izan dut azken bi urteetan *Goazen* telesailan parte hartu dudalako eta hori izan da serioagoa, eta profesionalagoa. Jende profesionalarekin aritu naiz eta ikaspen handia izan da.

Eta nola iritsi zinen 'Goazen'-era?

Nik betidanik ikusten nuen *Goazen* telesaila, eta betidanik izan naiz nahiko zale sutsua. Gurasoei erran nien ni hor izanen nintzela noizbait, eta gurasoek baietz erraten zidaten baina irri artean. 16 urte bete nituen eta kastinga irekia zuten eta izena eman nuen gehiegi zer gertatuko zen jakin gabe.

Nolakoa izan zen castingaren prozesua?

Hilabete batera jaso nuen erantzuna bigarren fasera pasa →

→ nintzela. Etxetik bi bideo bidali nituen eta hortik presentzialera deitu ninduten. Presentziala aski ongi pasa zen eta hortik aste batera deitu ninduten azken fasera pasa nintzela eta Lorea Intxaustirekin antzeztu behar nuela erranez. Nik Lorea ikusia nuen telebistan eta banekien hori zela azken aukera, eta ezin nuela huts egin. Eskerrak batzuetan atzera begiratzen jakin behar dela eta egindako ikusi, zer egia erran nire azken fasea nahiko kaotikoa izan zen, katastrofikoa. Zerbaitek deituko zien arreta eta hiru astetara deitu baininduten Ibai pertsonaia nirea zela erranez. Hor mundu handi bat ireki zitzaidan eta pentsatu nuen aukera zela gozatzeko, ikasteko eta pixka bat sufritzeko.

Nolako esperientzia izan da?

Abentura bat izan da, esperientzia hagitz-hagitz polita eta anitza. Nahiz eta aski gogorra ere izan den. Udan grabaketa egiten da eta udatik kanpo hasten den kontzertu bira. Horrek suposatzen du aretoz areto ibiltzean antzezten, kontzertuak ematen... Baina ez da bakarrik kontzertua ematea, da etxetik kontzertua lekura iristea, entsegua egitea, — anitzetan bi bolo izaten dira —, argazkiak egitea lagunekin eta familiekin... Lan zama da eta egia erran nahiko gogorra izan da. Baina aberatsa ere bai, Joanes bezala ni hazi naiz profesionalki, hori egia da. Baina pertsonalki ere pila bat eman dit: harremanetik hasita, bertan egin ditudan ezagutza guztiak. Hori izan da politena. **Nolakoa izan da telebistan azaltzearena?**

Telebistan agertzearena irudikatzen duzu fantasia bezala, etxean ikusten duzu telebista baina ez duzu irudikatzen jendeak bertan ikusten zaituela. Gero karrikara atera eta jendeak ikustea argazkiak nahi dituztela, edo zuri begira daudela... Nik hartu dut gehiago lagun artean gozatu dugun zerbait eta eskutik hartuta batera egin



'Goazen' telesailan bi urtez Ibairen papera jokatu du Etxebestek. UTZITAKOIA

dugun bide gisa. Ni aurten ez naiz *Goazenen* egongo, baina, hor atxikitzen ditut nire lagun guztiak eta oroitzapen guztiak. **Ibairen rola jokatu duzu, aspergerra duen gaztearena. Zaila izan zaizu?**

Egia erran nahiko gogorra egin zait beldurragatik. Asperger sindromea ez nekien zer zen, eta ezjakintasun handiarekin zerbait konkretua eta markatua antzezte zela, eta nahiko zaila egin zitzaidan. Bat-batean maizatzean erran zidaten Ibairen papera nirea zela eta ekaina amaieran hasi behar ginela grabatzen.

Nola prestatu zenuen Ibairen pertsonaia?

Elkarrizketak, dokumentalak ikusi nituen, elkarte batzuen webgunean sartu nintzen informatzeko... Asperger sindromea erraten dugu, baina sindromea duten guztiak ez dira berdinak. Ez zegoen estereotipo zehatz bat eta ez nuen horretan sartu nahi. Trufan sartu gabe, nahiago nuen erres-

petutik antzeztu. Gainera, Ibairen pertsonaia bikote komiko baten barruan kokatua zen. Bikote komikoa izanda ez nuke nahi jendeak barre egitea pertsonaiaz eta bere sindromeaz. Helburua zen irri egitea egoerez, eta erdibideko zerbait atzematea. Lanketa nahiko zaila izan zen, baina izan du emaitza eta nahiko harro nago egindako lanarekin.

Kantuan eta dantzan ibiltzen zaretze 'Goazen'-en. Nola moldatu zara?

Ni ez naiz kantaria batere. Alde horretatik pixka bat gogorra egin zait, gehien ikasi edo landu behar izan dudana izan delako. Dantzan moldatzen naiz, antzezten ere berdintsu eta aurkeztea gustatzen zait. Egia da Pontxen esperientziak aurkezteko garaian lagundu didala, banuelako hurbiltasun bat jendearekin eta eszenatokian lekua hartzeko momentuan abantaila izan da hori. **Zein dira zure erreferenteak aktore gisa?**

Aunitz maite dut Mr. Beanen papera egiten duen Rowan Atkinson eta Euskal Herrian Aitziber Garmendia, Iker Galtartza... Alazne Etxeberria ere bai, *Goazenen* ibilia dena. Orain *Goazeneko* lagunak ere erreferente bilakatu dira, iruditzen zait hor dagoen jendeak baduela talentua eta potentziala. **Eta zer bide egin nahiko zenuke aktore gisa?**

Nahiko nuke garatu aktore gisa. Esperientzia bezala aski aberatsa izan da eta baieztatu du nire nahia aktore munduan ibiltzeko. Orain gauzak ez daude nire esku. Deitzen banaute edozein proiektutatik aurkezteko, aktore izateko... Ni gogotsu ibiliko naiz eta edozein dei ongi etorria da.

Zein dira hemendik aitzinera etorkizunerako dituzun asmoak?

Pontx bezala proiektua aitzinera eramatea, eta proiektua zabaltzea noski. Eta gero, nola ez, 18 urte ditut, eta oraindik gelditzen zait aintz egiteko, ikusteko eta ikasteko. Horren aldetik ere, kuriositatez ikustea zer datorren orain aurretik. Amets bezala bereziki pailazogintzan segituko nahiko nuke eta aktore munduan eta mundu artistikoan garatu eta nora noan gehiegi jakin gabe aitzinera segitu.

«'GOAZEN'-EN
ATERATZEA
ESPERIENTZIA
POLITA IZAN DA»

«AKTORE GISA
GARATU NAHIKO
NUKE
ETORKIZUNEAN»



Kooperatibako sortzaileak irailaren 28ko bileran. TTPI-TTAPA

BixtuBeraren aurkezpena hilaren 26an egingen dute

Kooperatiban bazkidetzeko aukera izanen da aurkezpen ofiziala egiten duten egunean

A. LARRETXEA

Udaberrian hasi zuten herrian Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko prozesua Goinerren eta Elhuyarren laguntzarekin, eta udazkenean bukatu dute BixtuBera izeneko kooperatiba sortuz. Irailaren 28an egin zuten batzar eratzailerak Beralandetan eta 20 bazkide baino gehiagorekin hasi dute bidea.

Kooperatiban izanen dituen lantaldeen bilera egin zuten lehenik, eta ondotik, kooperatibaren zuzendaritza organoaren ardura banaketa egin zuten.

Ainhoa Lanz izanen da lehendakaria, Aitor Elexpuru lehendari ordea eta udaleko ordezkaria, eta Jaione Iraola kooperatibako ordezkaria. Horiekin batera, Jon Abrilek, Gerardo Rosek eta Joxe Mari Irazokik osatu dute zuzendaritza.

Urriaren 26an, ortzeguna, egingen dute kooperatibaren aurkezpen ofiziala Beralandetan 18:30ean egingen duten bileran. Bertan kooperatibaren inguruko xehetasunak azalduko dituzte eta bazkidetzeko aukera ere izanen da.

25 urteko herriko gazte bat hil da erredura larrien ondorioz

TTPI-TTAPA

25 urte zituen herriko gazte bat zendu zen urriaren 8an sute batean izandako zauri larrien ondorioz. Eguerdian izan zen ezbeharra Alzate karrikan. Gaztea logelan atsedent hartzen ari zela, sutea piztua zen oheburuan, eta erredura larriak eta

bihotz eta arnas geldialdia eragin zizkion. Helikopteroan eramane zuten Bizkaiko Gurutzetako Ospitalera, baina, ordu batzuk beranduago bertan zendu zen. Lerro hauek idazterakoan, oraindik ere ikertzen ari ziren sutea zer dela eta piztu zen.



PATXI LARRETXEA

100 urte bete ditu Juanito Peñak

Irailaren 26an bete zituen 100 urte Juanito Peña Mendigorria herritarrak. Urteurren borobila izaki, ospakizuna ere neurriko egin zuten. San Jose adinekoren egoitza du bizileku Peñak eta bertako lorategian egin zuten ospakizuna. Bai bera eta bai bere familia ere hagitz eskertuak ziren omenaldiarekin.

Baztango, Bortzirietako eta Malerrekaeko ekonomia feminista eskola Beralandetan

A. LARRETXEA

Mundu Bat Fundazioak eta Ara! Gorputz elkarteak antolatuta, bigarren urtez Ekonomia Feminista Eskolatxo egingen dute eskualdean. Iaz abiatu zuten proiektua, eta aurten segitzea da asmoa, azaroan hasi eta otsailera bitartean. Aurten ere saioak Beralandetan egingen dituzte, larunbatetan. Gai guztiak modu praktikoan landuko dituzte, eguneroko bizipenetatik abiatzen baitira lanketa guztiak egiteko.

Aitzineko ikasturtean lehen bi moduluak landu zituzten,

eta azaroan hasita 3. modulutik 8. modulura bitartekoak lantzea da asmoa. 6 orduko topaketa saioak izanen dira, eta zazpi egunetan elkartuko dira: azaroaren 4an eta 25ean, abenduaren 16an, urtarrilaren 20an, otsailaren 3an eta 17an eta martxoaren 2an. Egun denetan Berako Beralandetan elkartuko dira 11:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era.

Izena emateko edo informazio gehiago lortzeko info@aragorputz.eus helbidera idatzi behar da.





Churrut hoteloak jatetxea (LENKONEA)

Urriaren 15etik aitzinera egunero irekita egonen da eguerdian eta gauetan.

Zain izanen gaituzue!

Foruen plaza | BERA (erdian)
T. 948 625 540 · T. 948 625 542

Lurraren Eguna XXXV. aldiz egingen dute igandean

Larunbatean Lizuniagako Igoera eta barazki opil lehiaketa egingen dituzte eta Bera Kantari ariko da karrikaz karrika

A. LARRETXEA

Egun berezia izaten da Lurraren Eguna beratarrentzat, eta herritarrez gain aunitz izaten dira kanpotik ere bertaraten direnak. XXXV. aldiz antolatu dute aurten Gure Txokoa Elkarteak eta Berako Kultur Batzordeak, eta igandeko ekitaldiez gain, asteburu osoan izanen da zer egin eta ikusi.

Larunbatean, urriaren 21ean Lizuniagako Igoeraren XLII. Edizioa egingen dute. 15:30ean ttikien txanda izanen da, eta 17:00etan hasiko da helduen lasterketa. Parte hartzaileek 4,9 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, Iamotenean hasi eta Lizuniagaraino. Izena eman nahi dutenek hiru aukera izanen dituzte: pb-organisation.com helbidean egiten ahal da lasterketa aitzinetik 5 euroren truke, 626 30 94 38 zenbakira idatzita edo, bertzela, lasterketa egunean berean 10 euroren truke.

Ohiko sariez gain, denbora hobetzen dutenentzako 150 euroko saria izanen da. Gi-

zonezkoen kategorian errekorra Chakib Lagcharrek ezarri zuen 2019an 15.55ko denbora eginda. Emakumeen kasuan, aldiz 2021ean ezarri zuen Majida Maayoufek 18.30eko denborarekin.

Lasterketaren ondotik Barazki Opil lehiaketa izanen da eta Bera Kantarik alaituko ditu karrikak. Gainera, Labiaga ikastolan erakusketa ere izanen da.

XXXV. Lurraren Eguna

35. edizioa beteko du aurten Lurraren Egunak igandean, eta urtero bezala eskulangileak, elikadura postuak eta barazkiak izanen dira protagonista. 10:00etan hasiko da azoka, orduan irekiko baitutuzte postuak, eta baita, Olakoren erakusketa ere. Ordu horretatik aitzinera, barazki eta baserriko produktuak ikusteko aukera izanen da Merkatu plazan. Horretarako, barazkiak 08:00ak eta 09:00ak bitartean eraman beharko dituzte ekoizleek.

Horrez gain, 11:00etan hasita Ricardo Baroja eskolan



Bertako ekoizleen produktuak erosteko aukera izanen da igandean. TTPI-TTAPA

Bortzirietako 35. Gasna lehiaketa egingen dute eta Karnaxenean 24. Sagardo Lehiaketa. Parte hartzeko Bortzirietako ekoizlea izan behar da derrigorrez, eta 10:00ak baino lehen aurkeztu behar dira produktuak Ricardo Baroja eskolara.

Urtero bezala musikak presentzia nabarmena izanen du egun osoan. 10:00etan Altzateko plazako eszenatokian txalapartariak eta Irats

eskolako trikitilariak ariko dira, eta ondotik karrikaz karrika ariko dira Iratseko trikitilariak, musika eskolako txistularien eta trikitilarien taldea, talde instrumentala eta baita Berako Banda ere.

Arratsaldean izanen du bestak segida. 17:00etan Altzateko plazan bertsolariek zuzendutako sari banaketa eta gaztaren enkantea egingen dute. 18:00etan mutxikoak izanen dira Sebastien txarangarekin, eta eguna bukatzeko, 19:00etan, erromeria izanen da.

Egun osoan taloak, jaki eta edari dastatzeak izanen dira, eta iluntzean baita gaztaina erreak eta sagardoa edateko aukera ere.

EGUN OSOAN JAKIAK EROSTEO AUKERA IZANEN DA ALTZATE KARRIKAN

SARAGUETA-MUJIKA
abokatuak

HURBILTASUNA,
DISKREZIOA ETA
HARRETA
PERTSONALIZATUA

Iparralde, 5 Behea 31780 BERA
www.abokatua.com
Astelehenetik ortziralerara 10:00 - 18:00

SARAGUETA

- Hirigintza eta sektore publikoa
- Enpresa sektorea
- Merkataritza, mugaz gaindikoa eta bertako merkatarien elkarte eta federazioak
- Merkataritza-zuzenbidea eta sozietate-zuzenbidea

fsaragueta@abokatua.com

MUJIKA

- Familia abokatua
- Bizilagunen komunitateen kudeaketa
- Erkidegoak eta jabetza horizontala
- Zuzenbide zibila

bmujika@abokatua.com

2021eko otsaileko sutearen auzia epaitegian itxi dute

Epaileak autoan dioenez, ez dago nahikoa froga deklaratzera deitutako herritarra erruduna dela frogatzeko

A. LARRETxea

Foruzaingoak eta Iruñeko ins-trukzio-epaitegi batek frantziar herritartasuna duen gizoneko bat ikertu dute 2021eko otsailean Beran piztu eta ia 1.400 hektarea kiskali zituen sutearen ustezko egilea delakoan. Kasua behin-behinean artxibatu egin dute, ordea, ezin baitute frogatu ikertutako herritarra dela sutea piztu zuena.

Lekukoen testigantzei eta segurtasun-kameren eta telefono-komunikazioen trafikoa-ren azterketari esker, foruzai-nek Espainiar estatuan aurre-

kari judizialak dituen eta gaur egun Frantzian bertze delitu batzuegatik zigorra betetzen ari den frantziar herritartasuna duen herritar bat identifikatu zuten, sutearen egilea izan zitekeelakoan. Horren ondorioz, Instrukzioko epaileak deklarazioa hartu zion ikertu gisa, baina, auzia itxi egin dute ezin baitute frogatu bera izan zela sutea piztu zuena.

Suteak kalte handiak eragin zituen, eta batez ere Berako eta Lesakako lur eremua izan zen kaltetua. Denera 1.400 hektarea erre ziren.



ENERITZ ZAPIAIN ETA GURE TXOKOA DANTZA TALDEA

Gure Txokoako dantzariak martxan

Ikasturtea urtarrilean hasten badute ere, batean eta bertzean dantzari ari dira herriko dantzariak. Urriaren 1ean Sao Pedro de Casteloes taldeko dantzariak emanaldia egin zuten Beran Gure Txokoakoekin batera. Urriaren 7an, aldiz, txistulariekin batera Euskal Herriko Dantzari Egunean parte hartu zuten.

Bukatu dituzte parkea berritzeko lanak

Abuztu bukaeran hasi zituzten Mukixu haurtzaindegi ondoan dagoen parkea berritzeko lanak, eta dagoeneko parkea bukatu eta ireki dute. Hiru elementuk osatzen dute parke berria eta inguruko harriak kendu eta zorua berdindu dute.



'Intzola, pasoko bidea' liburuaren aurkezpena

Asteazkenean, hilaren 18an aurkeztuko dute *Intzola, pasoko bidea* liburua 18:00etan Beralandetan. Mugerri elkarrekin eta Ziburuko Jakintzak argitaratu dute liburua udalaren laguntzarekin eta Urruña eta Bera arteko bidea eta harremanak ditu hizpide.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Arduo

arropa-denda
etxeako osagarriak | lentzeria

Aitzate, 30 BERA T. 948 630 136

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

BERNILL TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

1.465 bisitari hartu ditu uda honetan turismo bulegoak

Gainera, hamahiru bisita gidatu antolatu dituzte eta guztira 240 pertsonak hartu dute parte hauetan

AITOR AROTZENA

Ekainaren 20an ireki zituen ateak turismo bulegoak eta bertan dagoen Burdinaren Museoak eta irailaren 30a arte luzatu dute udako denboraldia. Guztira 1.465 bisitari hartuko dituzte, iaz baino % 15 gehiago. Gainera, herrian datu turistikoak hartzen direnetik, kopuru altuena da aurtengoa. Jatorriari dagokionez, aurten deigarria da nazioarteko turismoa % 102 hazi dela 2022arekin alderatuta. Izan ere, atzerriko turistak totalaren % 6 izate-

tik % 12 izatera igaro dira 2023an. Lautik hiru Frantziatik datoz, baina Argentina, Alemania, Erresuma Batua, Belgika, Herbehereak, Errumania, Txekiar Errepublika, Turkia, Israel, Peru, Txina eta Estatu Batuetatik etorritakoak ere izan dira. Espainiar estatuko artean, aipagarria Madriletik etorritako hazkunde % 85ekoa izan dela. Bisita gidatuei dagokienez, uda honetan 13 antolatu dira guztira eta 240 pertsonak parte hartu dute, hau da, iaz baino % 12 gehiagok.

Beti Gazteren argazki lehiaketarako lanak urriaren 31ra arte aurkez daitezke

Beti Gazte elkarteak argazki lehiaketa antolatu du aurtengoan ere udalarekin elkarlanean. Argazkiak posta elektronikoko bidez soilik jasoko dituzte eta argazki erakusketa ere modu birtualean egingen dute. Lanak argazkilaritza@betigazte.net helbidera bidali

behar dira urriaren 31 arte. Lehen saria 400 euro eta trofeoa izanen da eta bigarrenentzat 300 euro eta trofeoa. Beti Gazteko bazkideen artean argazki onenari 250 euroko saria emanen zaio, kirol argazki onenari bezala. *info +: betigazte.net*



A. AROTZENA

Granollersko casteller ikusgarriak

Kataluniatik etorritako Colla castellera Xics de Granollers taldeko 110 bat lagun izan ziren iraila eta urria lotzen zuen asteburuan herrian. Udalak harrera egin zien, larunbatean tailerra eta igande eguerdian emanaldi ikusgarria hainbat giza-dorre osatuz, jendez lepo zegoen Plaza Zaharrean.

San Fermin elkartearen eguna urriaren 28an

San Fermin jubilatari elkartearen eguna ospatuko dute urriaren 28an. 12:30ean aureskua dantzatu eta oroigarria emanen zaie 85 eta 90 urteko omenduei Alondegian eta bazkaria Zalain jatetxean izanen dute. Txartelak 40 eurotan eskura daitezke hilaren 25a arte.

Ikastolaren 50. urteurreneko besta larunbatean

Tantirumairu ikastolaren 50. urteurreneko besta egingen dute urriaren 21ean. Larunbat goizean Intxaurrenea eraikin berria bisitatzeko aukera ere emanen dute, ekitaldia eta bazkaria izanen da pilotalekuan. *Xehetasunak 839. zenbakian.*

Merkatu afaria bertsolariekin hilaren 19an

Merkatu afaria egiteko ohitura bada hamabortzero Kasinon. Bada, urriaren 19ko merkatu afaria Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluze bertsolariekin, udalak eta Bortzrietako bertso eskolak antolatua. Izena emateko 618 96 30 11 zenbakia (25 euro).

Santiago Banda organo-jotzailea urriaren 27an

Organorako Musika Nafarroan zikloaren 39. edizioaren barruan, Santiago Banda organo-jotzaileak kontzertua emanen du urriaren 27an, ortzira-lean 18:30ean San Martin elizan. *Lesakako Roqués organoa (1893-2023)* liburua azaroaren 5ean aurkeztuko dute.

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

K-STRETCH

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina.tolosaechebare

Jauzena

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauzenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean Erreformak, etxe berriak Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa eta dirulaguntzen gestioa



Sastrinen hiru mahai paratuko dituzte, bakoitza bere bi aulki luzeekin. UTZITAKOA

Oihan masa berreskuratzearen aldeko apustua

41.000 zuhaitz landatuko dituzte Eskolamendin eta Mikelgorrin eta pista berria egin nahi dute Zala eta Goiko Iraga lotzeko

A. AROTZENA

Suteek eta intsinis pinuen eritasunak hagitz murriztua utzia zuten herriko oihan masa. Bertzalde, udalak klima aldaketaren aurkako borrokarekin bat egin nahi du. «Mendiak izaten ahal duen interes ekonomikoaz gain, bertze interes garrantzitsu batzuk ere kontuan hartu nahi ditugu: bertzeak bertze paisaia, oreka ekologikoa, baliabide hidrikoen babesa, suteen prebentzioa, abeltzaintza bultzatzea, aisialdia eta kirola sustatzea (ondoko eta mendi-fruituen bilketa, mendi ibilaldiak eta lasterke-

tak, mendiko bizikleta...»), diote udaletik. Horretarako, bertako zuhaitzen landaketa indartu nahi dute, aniztasuna eta biodibertsitatea sustatuz.

Landaketak Eskolamendin eta Mikelgorrin

Bertze alde batetik, mendi gainak garbiak edukitzeari lehentasuna ematen dio udalak, sasi garbiketa mekanikoaren bidez: artzaintzarako soroak hobetzen direlako, eta suteak mozteko balio dutelako. Honela, 2022an suteek erre zuten Eskolamendi inguruko ia 14 hektareatan 18.289 lan-

dare landatuko dituzte (14.790 ametz, 870 bertako haritz, 870 gaztainondo, 870 gereziando, eta 889 haritz amerikar). Mikelgorri mendikoa ia 21 hektareatan, berriz, eri zeuden pinuak bota ondotik ia 23.000 zuhaitz landatuko dituzte (4.619 bertako haritz, 543 gereziando, 272 lizar, 1.644 haritz amerikar, 3.067 strobis pinu, 6.820 taeda pinu eta 6.000 alertze).

Mendi garbiketarako eta bertze

Azken urteetan Beltzaunen, Lantzetarriko maldan, Zumarran, Allegin, Sastrinen, Frainen, Otsangon, Ziobin eta Mikelgorrin egindako landaketak garbitu behar dira, sasiak kenduz eta zuhaitz hondatuak jorratuz. Horrek zuhaitzen hazkundera hobetuko du, eta suteek eragin ditzaketen kalteak saihestuko ditu. Gainera, zuhaitz txarrak eta adarrak moztuko dituzte Aritxulegin, Ponpollegin, Otsangon, Idoian, Erengan, Luzurietan eta Do-

mikon. Erengan 2012an egindako 14,2 hektareako landaketa ixten duen zerrakura ere kenduko dute.

Pista berriak eta konponketak Euriteak eta erabilerak hagitz hondatua utzia duten Ikatzulo-Zumarragako pista moldatuko da. Pista bazterrak garbituko dituzte, ur bide berriak egin eta zola moldatu. Euriteak eta egur garraioak hondatutako Peurango pistak moldatuko dituzte. Aurten esleituko da lehen zatien konponketa, eta lehenbailehen konponduko da.

Zala-Goiko Iraga lotzen dituen pista berria eginen da: badira urte batzuk Zala auzoa Goiko Iragako lepoarekin lotzeko asmoa dagoela, auzo horren eta Agina-Ikatzulo arteko konexio azkarra egiten baitu. Baserriarrei eta azientzajabeei bidea erraztuko die. Bertze alde batetik, suteak itzaltzeko suhiltzaileen lana azkartuko eta erraztuko du. Lesakako suhiltzaileek behin baino gehiagotan aipatu dute ekimen horren egokitasuna.

Bertze aldetik, Sastrinen iturri bat paratu zen eta otorduk egiteko mahaia hagitz hondatua dagoenez, hiru mahai eginen dituzte, bakoitza bere bi aulki luzeekin. Herriarrak (kuadrillak, kultur-kirol elkarteak, ehiza elkarteak...) lan handia egiten ari dira auzolanean mendiak eta bideak garbitzeko eta bertako zuhaitzak landatzeko eta hauei eskerrak eman dizkie udalak.



Fernando Celaya
TERAPIA NATURALAK

Gure kontsultan honako patologiak aztertuko ditugu:

- Lixeriketa aparatuko patologiak
- Gihar patologiak
- Neurologiak patologiak
- Arnas aparatuko patologiak
- Ginekologia patologiak
- Giltzurrun eta gernu aparatuen patologiak
- Zirkulazio eta endokrino patologiak

Erabiltzen ditugun terapiak:

- Osteopatia
- Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
- Akupuntura
- Fitoterapia Txinatarra
- Reiki...

Salis Hiribidea, 24 - IRUN

639 955 324

www.fernandocelaya.com



Apirilaren 22an Etxalarren egin zuten grabaketako irudia. ARTXIBOKOA

Udazkeneko kultur egunak urrian eta azaroan izanen dira

Urriaren 21ean 'Auzolangiltza' dokumentala aurkeztuko dute eta azaroaren 11n Sahatsa dantza taldearen saioa izanen da

IRUNE ELIZAGOIEN

Altzatak eta Bortziritetako Eus-kara Mankomunitateak elkar-lanean Kultur egunak antolatu dituzte. **Urriaren 21ean**, 19:00etan *Auzolangiltza* dokumentalaren aurkezpena egingen dute Kultur Etxean. Iker Iriarte eta Pablo Dendaluzeren lan honetan, etxalartarek ere parte hartu dute. **Azaroaren 11n**, 19:00etan, Sahatsa dantza taldearen emanaldia izanen da frontoian.

Hilobien garbiketa

Lehengo urteetan bezala, hilobien jabeek eskatzen zaie

hilobiak garbi ditzaten, urriaren 25a baino lehen. Egun horretatik aitzinera garbitu gabeak diren hilobien garbiketara Udalak egingen du eta 10,15 euro kobratuko zaizkio jabeari hilobi bakoitzeko.

Eskolaz kanpoko ekintzak

Ikasturte berriaren hasierarekin batera, eskolaz kanpoko ekintza eta ikastaroak eskainiko dituzte hainbat elkarte eta partikularrek. Bertzeak bertze: Muxikoak, gimnasia, yoga, euskal dantzak, pilota, trikitixa, pandereta, eskulanak, zirku tailerra, ingelesa...



ARGAZKIJABEAXXX

Usategietako sasoi hasiera

Urriaren 1ean hasi zen sasoi eta lehenengo eguna 5 dozena uso eta 11 txoloma harrapatuta hasi zuten. Geroztik egunero paratu dituzte sareak. Egun gehienetan bero egin duen arren, tarteka txoloma multzoren bat edo bertze etorri da. Aste batean 7 dozena zituzten harrapatuak.



MONTORI ETA KATAISHA NARRO

Urbasako Igoeran Iturria eta Sein

Urriaren 7an Etxalarko Oier Iturria eta Iker Seinek Urbasako igoera rally famatuan parte hartu zuten. Nafarroako igoeretako txapelketako baliagarria den proba honetan 103 partaide izan ziren eta herriko bi pilotoak gustura bueltatu ziren egindako lanarekin.



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com



INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36




T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR



Guztifikatutako berezikiak
24h-ko asistentziak erregidoretan
147 euruko zerbitzu dohaiak
Gasolindegik 24h irekita

☎ 609 446 693 - 948 625 663
mbidasoa@gmail.com

Zakur zuzen bidezko zerbitzu erregularrak eta asistentzia

Alkaga Industrialden Ziubi Kalea 6 31770 Lesaka (Nafarroa)	Noain-Eskirez Industrialden Y Kalea 10 31118 Noain (Nafarroa)
--	---





Herri kirol saioan omenaldia eskaini zioten Xeroneri eta Kaxoti. ANA ETA ITZIAR



Lasto altxatzaileak lanean.

Xerone eta Kaxot gogoratu dituzte herri kirol saioan

Beraien heriotzaren 20. urteurrena gogoratu dute bertze hainbat ekitaldi eder izan dituzten bestetan

ANA ETA ITZIAR

Badira egun batzuk bestak pasatu zirela baina ezin utzi aipatu gabe. Aurten klimatologiari dagokionez uda kaxarra joan bada ere, *sanmigelletako udatxoa* agertu zitzaigun eta eguraldi ezin hobea izan zen. Egitaraua ere bikaina izan zen. Herriko merkataria botatako txupinazoarekin sartu ziren besta giroan, aitzineko asteburuetan hasiak baldin baziren ere. Bezperan, goitibeherak, buruhaundiak, txaranga, Biltokiko afaria...

San Migel egunean, goizeko dianarekin hasi zen eguna eta

abesbatzak kantaturiko meza, dantzak, bandera igoera, pilota partidak... denak bikain joan ziren.

Larunbatean, berriz, toka, bazkariak, Granollerseko casteller taldearen emanaldi bikaina, gazteek antolatutako herri kirol saioa, elektrotxaranga, kontzertuak, betizuak eta DJ-a izan ziren. Aipatzekoa da duela 20 urte zendu ziren Luis Mari Zelaieta *Xeroneri* eta Migel Angel Etxarte *Kaxoti* herri kirol saioan egin zitzairen omenaldia. Etxekoei lore sorta eman ondotik, garai haietan beraiekin herri kiroltan aritu



Granollerseko casteller taldea.

ziren txapeldunek lasto altxatze emanaldia eskaini zuten. Hunkigarria benetan!

Igandean eman zitzairen akabaila herriko beste gazteen gosariarekin, betizuetan eskainitako ikuskizun ederrarekin, herri bazkariarekin, haur eta gurasoen bazkariarekin, puzgarriekin... Heldu den urtean, gehiago!

Ekofeminismoa eta landa eremuko emakumeaz

Landa eremuko Nazioarteko Egunaren harira, urriaren 26an, 18:00etan *Ekofeminismoa eta landa eremuko emakumea* hitzaldia egingen dute udal-txean. Izena eman behar da 722 69 30 78 zenbakian edo berdintasuna@bortziriakberd.eus korreora idatziz.

Baratzondoko mus eta partxis lehiaketak

Baratzondo elkarteko mus eta partxis txapelketak hasiko dira urriaroaren 21 ean. Mus lehiaketa larunbat arratsean izanen da eta partxisekoa, berriz, igandean 18:00etan. Urriaren 12ko bazkideen bazkarian 41 lagun elkartu ziren eta giro ederrean joan zen eguna.

Yoga ikastaroa asteartero Estitxu Mentaberriekin

Buruilaren bigarren hamabortzaldian hasi ziren yoga saioak. Estitxu Mentaberri buru dutela, kuadrila koxkorra biltzen da asteartero 19:30etik 21:00etara. Ikasleek erran dugutenez, gustura hasi dute ikasturtea eta horrela segi dezatela!

Zelain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziratera

Zelain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zelain.info

Alberto RETEGI
abokatuak

948 630 763 · Alizate, 17 · BERA

F. LANCHAS

Akuxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

MARITX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA



Azaroaren 1ean ekoizleek euren produktuak frontoian paratuko dituzte.

Baserritarren Egunaren 27. edizioa izanen da aurtengoa

Kultur egunetan, solasaldia, antzerkia, mus eta partxis txapelketak, ipuin kontalaria eta Baserritarren Eguna izanen dira

NEREA ALZURI

Uda ondotik Euskara Batzordeak eginiko bilerek udazkeneko fruituak eman dituzte eta aurten ere, kultur ekitaldien egitarau anitza prestatu dute. Urriaren 27etik azaroaren 5era solasaldia, antzerkia, ipuin kontaketa saioak, mus eta partxis txapelketak eta nola ez, Baserritarren Eguna izanen dira.

Solasaldia

Urriaren 27an, ortziralean, *Elikadura sistema osasunaren begiradatik* izenburupean solasaldia antolatu dute libururtegiari. 19:00etan hasiko da.

Helduentzako antzerkia

Urriaren 29an, igandean, *Magma Mia* helduentzako antzez-lana egingen dute 18.00etan eskolako gimnasioan. Beatriz Egizabalen bakarrikzeta saioa izanen da.

Baserritarren Eguna

Azaroaren lehenean, asteazkena, Baserritarren Egunaren 27. edizioak hartuko du lekukoa, urtero bezala, bertakoe-na eta bertakoa bertatik ber-

tara ikusteko eta gozatzeko hitzordua ederra. Ekaitza Elkartek antolatuta, goizean, frontoian eta plaza inguruan, bertako ekoizleen eta baserritarren elikagaiak, eskulanak eta aziendak paratuko dituzte. Gazta lehiaketak ere ez du hutsik egingen. Gainerakoan, herriko trikitilariak eta panderojoleak goizeko azoka giroa alaitzeaz arduratuko dira eta pintxoak eta tragoxkak hartzeko modua izanen da ostatuan.

Mus eta partxis txapelketak

Azaroaren 4an, larunbatean, Ekaitza Elkartean, partxis eta mus txapelketak jokatu dituzte: partxisa 16:00etan eta musa 18:00etan.

Ipuin kontalaria

Biharamunean, azaroaren 5ean, igandea, Ameli ipuin kontalariaren saio bikoitza izanen da eskolako gimnasioan: 17:00etan Haur Hezkuntza-koentzat eta 1. eta 2. mailako haurrentzat eta 18.00etan 3. mailatik goitiko umeentzat ipuinak kontatuko ditu. Ondotik, haurrentzat merienda prestatuko dute.

'Isildutako eskuak' liburuaz hitzordua ortziralean

Joan den urriaren 15ean, Landa Eremuko Emakumearen Nazioarteko Eguna izan zen eta honen harira, Bortzirietako Berdintasun Batzordeak antolatuta, Jon Abril Olaetxea idazle beratarrek *Isildutako Eskuak*, *Emakume langileak gerra ondoko Euskal Herrian*, bere liburua aurkeztuko du ortzirale honetan, 19:00etan libururtegiari. 2021ean lan honekin Tene Mujika saria irabazi zuen Abrilek eta iaz argitaratu zuen liburua. 1936ko gerra ondoko hamaika lanbidetako hamalau emakumeren istorioak bildu ditu..

Herrian grabatutako 'Hitza eman nion' film laburra

Ekaitz Bertiz Apezetxea familia erdia herrian duen 20 urteko sunbildar gaztea Bartzelonan zinemagintzako gradua egiten ari da. Bere lanetan, euskara, euskal kultura, gure herriak eta paisaiak, lagunak, familiakoak... partaide izaten ditu. Duela hilabete batzuk aipatu bezala, ilbeltzean *Hitza eman nion* film laburra grabatzen ibili ziren Garaiko borda, Beratsekun eta Putzubeltz inguruan. Urriaren 19an, Lekeitioko Ikusgarri Zinemaren estreinatuta zuten bere lana eta 46. Euskal Zine Bileran ere aukeratua izan da. Zorionak!

Pelle-Ttikiren alde kamisetak atera dituzte

Pelle-Ttiki Arantzan bizi lelopean, kamisetak atera dituzte gurasoek. Haurren kamisetak 10 eurotan eta helduenak, estuak eta zabalak, 12 eurotan eros daitezke. 699 01 20 12ra deituz edo Baserritarren Egunean egiten ahal izanen da eskaera. Poltsak ere prest dituzte.



Pelle-Ttikiren aldeko kamisetak.

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

744 484 361
ttipi-ttapa

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra
Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL
Iturrunubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (NA)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzclinika.es
@liderahortzclinika

Herri Eskola Publikoen besta urriaren 28an prest dute Lesakan

Bortz herrietako eskola publikoak bilduko dira larunbat arratsaldean, Irain Guraso Elkartek antolatutako ospakizunean

AITOR AROTZENA LESAKA

Bortzirietako Herri Eskola Publikoen besta ospatuko da lehenbiziko aldiz Lesakan urriaren 28an, Irain eskolako Guraso Elkartek antolatua, Lesakako udalaren laguntzarekin. Ospakizunaren helburua «bortz herrietako eskola komunitateak, eskola, guraso, haur eta familiak elkarlanean arratsalde polit bat pasatzea izanen da. Modu honetan, herritarren arteko harremanak sendotu, kultur jarduerak bultzatu eta gure seme-alabei bertze ereduak azaltzeko aukera ezin hobea izanen da».

Programa

Urriaren 28an, larunbat arratsaldean denak Lesakan elkartuko dira eta Irain Guraso Elkartek hainbat jarduera antolatu ditu. 16:00etan ha-



Irain eskolako ikasleak Domikon.

rrera ekitaldia izanen da Harriondoa kultur etxean. 16:30ean kalejira herrian barrera eta eskola bakoitzak dantza emanaldi bat eskainiko du herriko zenbait tokitan. 17:30ean plazan talde argazkia, bertsoak, jolasak eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat guneak. 18:30etik 20:00etara musika eta dantzaldia izanen da. Eguraldi txarra eginen balu frontoian eginen lirateke ekitaldiak.

Pello Apezetxea bekan lanak aurkezteko epea urriaren 29an bukatuko da

TTIPI-TTAPA ETXALAR

Pello Apezetxea Zubiri iker-tzaile eta euskaltzalea omentzeko bekaren lehen edizioa antolatu zuen udaberrian Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Euskaltzaindiarekin elkarlanean. Proposamenak aurkezteko epea iraganik, hutsik gelditu zen deialdia, ez zelakoz eskaera bakar bat ere aurkeztu. Hortaz, bi erakundeek bigarren deialdia egin dute.

Bigarren deialdian interesatuek **urriaren 29ra arteko epea** izanen dute beren proposa-

menak aurkezteko. Deialdi honek bi helburu ditu: batetik, Apezetxea omentzea; bertzetik soziolinguistika, dialektologia edota onomastika arloetarako ikerketa lan bat egiteko beka ematea. Interesatuak banaka nahiz taldeka aurkeztu ahal izanen dira bekaren deialdira, eta urriaren 29ra arteko epea izanen dute proposamenak aurkezteko. Beka esleitu ondotik, bekadunek zortzi hilabeteko epea izanen dute ikerketa garatzeko. Bekadunak 7.000 euroko saria jasoko du ikerketagatik.

Lesakan 'Kabiak' erakusketa urriaren 23tik azaroaren 10era

A. AROTZENA LESAKA

Saharako Kabiak elkarteak beraien lana ezagutarazteko eta Saharako errefuxiatu-eremuetako liburutegiekin lan-kidetzan aritzeko Nafarroako Liburutegi Sareko zortzi liburutegira hurbildu nahi du ikasturte honetan, Liburutegi Zerbitzuaren proiektuaren barrenean. Lesakako liburutegian *Bubisher. Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetako liburutegiak* erakusketa ikusgai izanen da urriaren 13tik azaroaren 10era. Azaroaren 16an, berriz, Kabiak eta eremuetako liburutegien lanari buruzko solasaldia izanen dute 17:30ean eta kamishibai saio bat (haurrentzako jarduera) ortzegun berean 18:30ean.

Hiri Hondakinen Mankomunitatearen egutegirako argazkiak

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Hondakinen Mankomunitateak Bortzirietako etxe guztietan banatuko du 2024ko egutegia, eta hori osatzeko herritarrei deia luzatu die beren argazkiak bidaltzeko. Egutegia polita eta erakargarria izan dadin, urtero inguruko jendeak utzitako irudiak erabili izan ohi dituzte eta ideia zabaldu nahi izan dute, edozeinek bere argazkiak uzteko. Argazkiak (guttieneko tamaina 30x21 cm, 300 pixeleko erresoluzioan) urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira teknikaria@bhm.eus helbidera bidalita, edo mankomunitateak Etxalarren duen bulegoan aurkeztuta 08:00etatik 15:00etara.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
AUTOMOTIVE SOLUTIONS

www.ibargoyen.net ☎ 943 616 587
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.


Zureganako maitasuna edo zurekiko maitasuna?

Aunitz dira *-(en)ganako* hartzen duten izenak: adeitasun, amodio, debozio, desira, errespetu, erruki, ezinikusi, gorroto, grina, herra, higuin, jaiera, joera, konfiantza, larderia, leialtasun, maitasun, mirespen, onginahi, zaletasun, zintzotasun...

-(en)ganako moldea da nagusi tradizioan, eta ez *-ekiko*. Honatx Euskaltzaindiak egindako hiru hitzen lagin-modukoa:

- **maitasuna:** elkarrenganako maitasuna da hobestekoa. Horixe da euskal literatura-tradizioan gehien erabiltzen den egitura. Badira elkarrekiko maitasunaren adibideak ere, baina hagitz guti.
- **gorrotoa:** *-(en)ganako gorrotoa* edota *-en kontrako/aurkako gorrotoa* dira hobestekoak; izan ere, *-ekiko gorrotoa* duen adibiderik ez dago tradizioan.
- **konfiantza:** *-(en)ganako konfiantza* da hobestekoa, erabiliagoak baitira egitura hori edota *konfiantza ...-(en)gan* modukoak. Bertzea (*-ekiko*) gaitzetsi gabe, ordea; izan ere, *-eki(la)ko konfiantza* modukorik aurkitu ez arren, badira horren oinarri izan daitezkeen egiturak: *alegia, konfiantza ...-ekin* gisakoak.

Osatu erran zaharra



Nola erran

Erdara ≠ gaztelania ≠ frantsesa...

Euskara ez den edozein hizkuntza da *erdara*; bereziki, gaztelania Hegoaldekoentzat eta frantsesa Iparraldekoentzat. Bide batez, Euskaltzaindiak dioen bezala, **erdera* forma ez da egokia baturako. *Erdal* hitz-forma dagokio hitz-elkarketako lehenbiziko osagai denean: *erdal* liburuak, *erdal* hitzak... Eta forma murratxodunak ez dira zuzenak: **erdal-liburuak*, **erdal-hitzak*...

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

DEABRUV ADINTSU, HORREGATIK JAKINTSU



EDO EZ?

**HARPIDETU ZURE HERRIKO ALDIZKARIAN
eta jaso liburu-sorta bat doan.**

* Harpidetzen diren lehen 10 lagunek hiru liburu doan
dituen sorta bat jasoko dute.

nafar
PRES
Asociación de la
Prensa Local de Navarra
Nafarroako Tokiko
Pentsaren Elkartea



Ulibeltzak elkartearen egunean giro ederra izan zuten. IRATI ARRIETA

Ulibeltzak elkarteko bazkideen eguna bikain joan da

Sei bikotek parte hartu zuten mus txapelketan eta Pattere Galtzagorri eta Jon Aranbillet suertatu ziren txapelak

MAIDER PETRIRENA

Ulibeltzak elkarteko bazkideen eguna ospatu zuten irailaren 30ean. Goizean mus txapelketa izan zen. Sei bikotek parte hartu zuten eta irabazleak Pattere Galtzagorri eta Jon Aranbillet izan ziren, bigarrenak, berriz, M^a Jesus Iriarte eta Rakel Urtxegi. Eguerdian, bazkari eder batekin ospakizunari jarraipena eman zioten. Atsalde partean, DJ J&J-k jarritako musikarekin izugarrizko giroa izan zen.

Bazkideen eguna izaten da Ulibeltzak elkarteak urtean zehar antolatzen duen azken

ekitaldia. Aitzinera begira, 2024an elkarteak 40 urte beteko ditu, baina oraingo ez dutela ospakizunerako deus pentsatu onartu du Irati Arrieta presidentek. Berekin batera, Haritz Bereau (idazkaria), Eneko Herrera (diruzaina), Ander Oskoz, Laura Mendibil, Iñigo Agesta, Maite Aizkorbe eta Andoni Espelosin dira gaur egun 234 bazkide dituen elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak. Bertzalde, elkartearen garbitzaile lanak egiten dituen Maribel Petrirena jubilatuko denez, lan horretarako deialdia ere egingen dute.

Ekaitz Bertizen film laburrak jaialdiz jaialdi ikusgai izan dira

Ekaitz Bertiz Apezetxea herri-tarraren ahaleginek fruitua eman dute. Ikasketetako lehen-dabiziko mailan grabatutako *Eclipse morala* film laburra Madrilgo festibal batean, urriaren 7tik 14ra, online proiektatzeko aukeratu zuten. Bigarren mailan grabatutako

Hitza eman nion filma, berriz, 46. Euskal Zine Bilerako hogeitau laburmetraietako bat da eta urriaren 19an, Lekeitioko Ikusgarri zineman estreinatuko dute. Urriaren 21ean, 19:30ean sari-banaketa izanen da toki berean. Zorionak Ekaitz. Segi disfrutatzen eta ikasten!



ESKOLAK UTZIA

Hamahiru ikasle hiru urteko gelan

Irailaren 7an hasi zuten ikasturtea eskolan eta hiru urteko gelan argazkian ageri diren 13 ikasleak hasi dira. A zer nolako kuadrilla ederra! Urrian sartzearekin batera, pixkanaka-pixkanaka eskolaz kanpoko jardueretan ere hasiak dira haur eta helduak.




UTZITAKO ARGAZKIA

Herrera eta Iparragirre irabazle Aiaran

Garaipena eskuratu zuen Herrera eta Iparragirrek osatutako bikoteak irailaren 30ean Aiaran jokatu zen EHko Mendi Duetlo zirkuituko 4. proban. Aitzinetik jokaturako probetan bezala, bizikletako zatia Koldo Herrera Urroz herritarrek osatu zuten eta lasterka Dani Iparragirre arantzarra aritu zen.

Eneit Bertiz garaile Lizarrako Epic Maratoian

Eneit Bertiz Apezetxeak garaipena lortu du Lizarrako Epic Maratoiko iraupen ertainako karreran. Koldo Herrera Urroz ere podiumera igo zen, bigarren izan baitzen 23 urtez beheko kategorian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Uxue Alberdi liburutegian izanen da azaroaren 2an

Kultur agenda oparoa izanen da heldu den egunetan herriko etxean, liburutegian eta zineman

OIER ZULAIKA

Malerekako Irakurle Taldeak martxan hasi dira dagoeneko, eta ikasturteko lehen bisitan Uxue Alberdi idazlea eta bertsolaria joanen da. Azaroaren 2an, ortzegunean, 18:00etan *Jenisjoplin* liburuaz solastatuko da Alberdi liburutegian. Solasaldia irekia izanen da, eta liburutegian liburuaren hainbat ale paratu dituzte eskuragarri irakurtzeko.

Alberdiren bisita ez da heldu den egunetan egingen den kultur ekitaldi bakarra izanen. Urriaren 18an mintzodromoa egitekoa zuten 19:30etik 21:30era Herrigunean. Urriaren 20an, ortziralean, *De función pública* liburuaren aurkezpena izanen da herriko etxean 19:30ean. Urriaren 21ean, larunbatean *Erdaldun berrien kluba* bakarrizketa



CONNRY BEYREUTHER/WIKIMEDIA

izanen da 20:00etan zineman. Urriaren 30ean, astelehena, gaztelaniazko irakurle taldean *Caperucita en Manhattan* liburua landuko dute 18:30ean. Biharamunean, urriaren 31n, Erreka Guraso Elkarteak antolatuta Gau Beltza egingen dute arratsaldean.

Bertzalde, oroitu asteartero 11:00etatik 12:00etara Ipuin Txokoa izaten dela 0 eta 3 urte arteko haurrentzat Haizea Loiraren eskutik.



UTZITAKOAK

Autoak protagonista asteburuan

Urriaren 7an autoak izan ziren protagonistak herrian. Alde batetik Nafarroako Automobilen Ondareari Buruzko Jardundien barrenean, kotxe klasikoak ibili ziren herrian eta giro polita izan zen. Arratsaldean, 4x4 erakustaldian ere, jende aunitz eta giro ederra izan zituzten.

Hiru herritar ariko dira Bortz Kirol txapelketaren bigarren edizioan

TTIPI-TTAPA

Errekak Bortz Kirol txapelketaren bigarren edizioa antolatu du. Urri hondarrean edo azaro hasieran abiatuko da eta zortzi pilotarik parte hartuko dute. Horietatik lau eskualdekoak dira: pilota jokamolde kuttunena laxoa edo eskularria

duten Imanol de Rueda, David Mitxeo eta Jon Apeztegia herritarrek eta paleta modalitateko maiteena duen David Albiasu narbartearra. Bertze bi pilotari gipuzkoarrak dira, bat lapurtarra eta lehen edizioan txapelketa izan zen Peio Etxeleku baxenabartarra.

Arantxa Arregi da Cederna Garalurreko lehendakari berria


Cederna Garalur elkartearen zuzendaritza batzordean karguak berriro dituzte. Honela, Arantxa Arregi Alberro herriko alkatea da lehendakari berria. Sakanako Mankomunitateko Aitor Larraza Carrera izanen da lehendakariordea.



Arantxa Arregi alkatea. UTZITAKOAK

Espainiako Kopan aritu da Gaxuxa Zelaieta judoka

Errekako Gaxuxa Zelaieta judoka urriaren 7an eta 8an Kantabrian jokatu Espainiako Kopan aritu da. Noelia Ariztia entrenatzaileak kontatu duenez, «txapelketa hagitxogorra izan da beroagatik eta maila altuagatik». Zelaietak 5. postua lortu du.



Zelaieta eta Ariztia Kantabrian.

Serafina Egina **K**

JOSTEN IKASTEKO TAILER BERRIA

Ebaketa eta jontzigitza ikastaroak taldeko

Zure arropa konponzen ikasteko barokako klaseak



T 618 962 887  **DONEZTEBE**



Arraioz eta Oizko jokalariaik Iturengo plazan. ARKAITZ MINDEGIA

Laxoa partiden lekuko izan da berriz ere Iturengo plaza

Oiz, Doneztebe eta Arraiozko taldeak aritu ziren irailaren 30eko desafioan eta baztandarrak nagusitu ziren

ARKAITZ MINDEGIA

Irailaren azkeneko larunbat arratsaldean Laxoa elkarteak antolatu zuen herri arteko desafioa jokatu zen herrian. Bertan, Baztandik Arraioz eta Malerrekako Doneztebe eta Oiz taldeak aritu ziren elkarren artean finalerako txartela lortzeko partidetan. Jokaturiko hiru partidetan lehia estua izan zen, batez ere Oiz eta Donezteberen artekoan, baina azkenean Arraioz eta Doneztebek jokatu zuten finala. Polita izan zen azkeneko partida. Bertan, desafio guztian bezala, baztandarren nagusi-



Laxoan jokatzen.

tasuna nabaritu zen eta 9-3 irabazi zuten. Beraz, Arraiozera joan zen desafioa, gerturatu ziren ikusleak eta herri-tarrak gustura egon ziren pilotaren modalitate hau ikusten.

Egoitz Gorosterrazu Nafarroako bertsolari txapelketan

Iruritan abiatu zen urriaren 7an Nafarroako bertsolari txapelketa. Bertan aritu zen kantuan Egoitz Gorosterrazu Elizagoien eta entzuleek bere bertso berezi eta politak entzuteko aukera izan zuten. Sarai Robesek irabazi zuen kanporaketa.

Herriko pilotariak hasi dute denboraldi berria

Ados eta Erreka pilota eskolatan ari diren herriko neska-mutikoak hasi dira entrenatzen. Errekako mutilak Doneztebeko Ezkurrafrontoian aritzen dira; Adoseko neskak, berriz, Sunbilako frontoian eta koxkorrenak baita Latasako pilotalekuan ere, astean behin.



Trikidantz taldekoak aurtengo Nafarroa Oinezen. UTZITAKOIA

Birako azken kontzertua Elizondon emanen du Trikidantzek

A. MINDEGIA

Azken dantzarik ezizenburupean bira berezia izaten ari da aurtengoa Trikidantz taldeko kideentzako, «aro baten bukaera eta etapa berri baten hasiera» ekarriko baitu. Denboraldia otsailean hasi zuten eta orduz geroztik han eta hemen kontzertuetan gustura aritu dira jendea dantzan eta kantuan jartzen. Hala ere, iritsi zaie aro honi bukaera emateko momentua. Urriaren 27an Elizondoko Mendi Ostatuan eskainiko dute azken kontzertua. Maitasunez eta ilusioz prestatu dute emanaldia eta bertara joaten diren guztiak disfrutatu eta oroimean gordetzeko modukoa.

Bira bukaera ez da izanen taldearen bukaera. Taldeko kideek diotenez, ibilbideak aurrera darrai eta aurrerantzean etapa berri bati ekinen

diote. Etapa berri honetan ere kontzertuetara hurbiltzen diren guztiak dantzan, kantuan eta giro onean pasatzeko aukera izanen dute.

Taldeak eskerrak eman nahi dizkie zaleei: «orain arte emandako indar, berotasun eta maitasun guztiagatik. Anima zaitetzte *Azken dantzarik ez* tour azkeneko kontzertura».

San martinak ate joka Aurtitzen

Herriko bestak ospatzen azkenak, aurtiztarrak izanen dira urtero bezala. Azaroaren 9tik 12ra ospatuko dituzte Sanmartinak. Egunez egun egitarau zabala prestatuxea dute bertako gazteek, herritarrek eta gerturatzen diren guztiak ederki pasatzeko modukoa. Hurrengo aldizkarian egitarau guztiaren berri izanen duzue.

LIZUN
GAZTANDEGIA
Sunbilla - Tel: 948 450 862

BORDAKO
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



Gozatzeko eta hausnartzeko hitzaldia eman zuen Sarrionaindiak. IZASKUN ZUBIALDE



Marsel magoak ikuskizun polita eskaini zuen bazkalondoan. IZASKUN ZUBIALDE

Giro ederra izan da aurten ere Euskararen Egunean

Bi eguneko egitaraua borobil bete zen, baina larunbat gauean izandako «ekintza onartezinak» salatu dituzte gazteek

FERMIN ETXEKOLONEA

Ohiko egitarau zabalarekin Euskararen Eguna bikain ospatu dute Zubietan aste honddarrean, herriko gazteek antolatua. **Urriaren 6an**, ostira-lean Joseba Sarrionaindiak *Euskara eta euskal literatura* hitzaldi ederra eman zuen eskolan, «gozatzeko eta hausnartzeko». Errandonean, berriz, hamahiru pintxo aurkeztu zituzten lehiaketara. Lehen saria Maialen Elizaldekin eskuratu zuen eta bigarrena Malen Etxekoloneak. Mus txapelketan, berriz, hamar bikote aritu ziren. Urko Loiarde eta Ibai

Juanikorena suertatu ziren txapeldun, finalean Joxetxo Elizalderi eta Jexux Santestebani irabazita.

Egun handia larunbatean

Urriaren 7a, larunbata, izan zen egun handia eta borobila suertatu zen. Herriko eskulangileen lanak izan ziren ikusgai eta erosgai plazan. Urdaiazpiko eta gazta apustua ere egin zuten eta hauen pisura gehien hurbildu zirenek eraman zituzten etxera: Garazi Santestebanek urdaiazpikoa eta Marimar Bergarak gazta. Joaldunak ere ibili ziren

herrian barna eta eguerdian aizkora apustu bikaina jokatu zuten herriko aizkolariek. Raul Castro eta Antonio Jaunarena beterranoak nagusitu zitzaizkien Mikel Indakoetxea eta Mikel Santesteban gazteei baina lau aizkolariek lan ederra egin zuten. Bittori Elizalde eta Iker Gorosterrazu balkoitik balkoira bertso kantari aritu ziren, megafoniaren arazoan gainetik. Ondotik, inoizko herri bazkari jendetsuena izan zen, 140 heldu eta hainbat haur bildu baitziren bazkaltzera. Bazkal ondoan, haurrek eta helduek Marsel magoaren ikuskizunarekin gozatu zuten. Turrutxiki txaranga ibili zen arratsaldean eta gau partean Korrontzi taldeak herri guztia dantzari jarri zuen. Euskararen Eguna borobiltzeko, gauerdian hasita, Trikidantz taldearekin dantzaldia izan zen eta zubietarrak agurra egin zioten hainbat ekitalditan musika jarri duen taldeari.

Biharamun gazia

Gazteek udalaren laguntzarekin antolatutako Euskararen Eguna bikaina izan zen, baina biharamun gazia utzi zuen. Motor bat ebatsia, auto bat hartu eta landa batera sartua, hainbat komun manipulatuak, etxe atariak margoekin zikinduak... Zail da ulertzea festa bati horrelako bukaera eman behar izatea edo festa egiteko halako "ekintzak" egin behar izatea, baina batzuk halaxe egiten dute, besteek egindako lan dotorea zapuztuz. Herriko gazteek garbi adierazi dutenez, «ez da horrelako zerbait gertatzen den lehenengo aldia. Askotan jasan behar izan ditugu lekuz kanpo dauden gertaera eta jarrerak. Nazkatura gaude». Euskararen Eguna «denok ongi pasatzeko antolatzen dugun eguna da eta denon artean egin behar da posible. Gainontzeko guztia ongi joan zen arren, tristea da zapore txar honekin gelditu behar izana».



Plaza osoa dantzari jarri zuen Korrontzi taldeak. IZASKUN ZUBIALDE

ORBELA
SINCRONIZA ALTERNATIBA
BEINTZAKO OSTATUA
Idola - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

TTPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttppi.ttapa

DESINFERA
DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK • HEGAZTIEN KONTROLA
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

MALERREKA

Euskadi Irratiko 'Faktoria' saioa Ezkurratik egin dute

Herri txikietako zerbitzu faltaz, despopulazioaz eta hainbat gaiei buruz aritu ziren herritarrek urriaren 6ko emanaldian

JAIONE ZABALO EZKURRA

Ezkurrako Barranka jatetxera hurbildu zen urriaren 6an, ostiral goizean, Euskadi Irratiko Faktoria saioa lantaldea. Herri txikietako zerbitzu falta, zerbitzuek bizirauteko dituzten zailtasunak, despopulazioa... Hainbat gai izan zituzten hizpide herritarrekin eta uhinen bitartez zabaldu zituzten Euskal Herri osora. Besteak beste, Jose Luis Gorostiaga Barranka jatetxeko jabea, Peio Zestau udaleko zinegotzia, Cecilia Balda postaria eta herrian zegoen dendako nagusi ohia, Oier Telletxea 13 urteko haurra, Iker eta Ander Gorostiaga haurrak... aritu ziren mikrofono aurrean, baita Olaia Inziarte abeslaria ere.

Herritarrek, nola ez, adi-adi entzun zituzten beraiek esandakoak.



'Faktoria' saioa Barrankatik.



Iker eta Ander Gorostiaga hizlari.



ARGAZKIAK ETA TESTUA: JAIONE ARIZTEGI

Giro ederra izan dute Urrozko bestetan

Giro bikaina izan da Urrozko bestetan. Mus txapelketan Uxue Matxiñena eta Julen Saldias izan ziren garaile, finalean Joxe Mari Iribarren eta Martin Lazkanori irabazita. Horrez gain, tortilla lehiaketan Natalia Elizondo izan zen garaile eta poste lehiaketan, berriz, Isabel Santesteban.

WIKAI

Konektatzeko lurra
Hemengoak garelako

300M-KO eta 600M-KO ZUNTZEKO ESKAINTZAK eta bigarren etxebizitzako eskaintzak KONTSULTATU

PROMOZIOA 50 Mbps + 12G mugikorra
24,90€ /hil
12 hilabeteko iraupena. Gero 34,90€/hil

Telebistako plataforma oparitzen dugu.
96 kanal baino gehiago familia osoarentzat.
Gainera, **ETB1, ETB2, ETB3, ETB4, eta XALOA** telebista-kanalekin.

Ahiz doan, 18 hilabeteko konpromisoa BEZ-a berriz.

12G

info@wikai.es
948 030 500 | wikai.es



Salamancatik Soriarako bidea egin dute erromesek. UTZITAKOIA

Donejakue Bidearen zati bat egin dute lau bazkidek

Salamancatik Soriarara 226 kilometro egin dituzte Done Jakue bideko Platako bidean

TTIPI-TTAPA

Arkupeak Elkarteko lau kidek, Donejakue bidearen zati bat egin dute. Zehazki Platako bidea izenez ezaguna den ibilbidearen zatia, Salamancan hasi eta La Puebla de Sanabriaraino. Denera, 226 kilometroko ibilbidea osatu dute.

Hagitz jende jatorra eta esku zabalarekin topo egin dute bidean erromesek. Tartean, egun batean euri aunitz ari zuenez, kotxez eraman zituzten aterperaino. Aipatzeko da, jende talde bat ibiltzen dela norbaitek bidean arazoren bat badu laguntzeko.



Lau erromesetatik hiru bidean.

Bidean jatorri anitzeko jendea ezagutu dute. Gainera, garai aproposa zenez onddo batzuk biltzeko aukera izan zuten, eta baita oreinen orroak entzuteko ere.

Angelita Izurategik Berako delegatu postua utziko du eta ordezkoa behar da

TTIPI-TTAPA

Abenduaren bukaeran, Angelita Izurategik Berako delegatu postua utziko du. Elkartearen izenean eskerrak eman nahi dizkiote Arkupeaken alde egin duen lanagatik.

Orain, Izurategiren postua betetzea tokatzen da. Elkar-

teko estatutuek agintzen duten bezala, hilabeteko epea izanen da hemendik aitzine- ra postu horretara aurkeztu nahi duenarentzat. Hortaz, interesa duenak, abenduaren 6a baino lehen izena eman beharko du elkarteko bulego- ra, 948 45 08 78ra deituta.



Mari Mar Sanzberro ekaineko irabazlea. UTZITAKOIA

Ekaineko eta iraileko irabazleak Mari Mar Sanzberro eta Julian Iparragirre

TTIPI-TTAPA

Hilabeteroko zozketa egiten segitzen du elkartek txin- txo-txintxo. Oraingoan, bi saridunen berri ematea to- katzen da, ekainekoa eta irailekoa. Ekainean, Igantzi- ko Mari Mar Sanzberro izan zen irabazlea, eta argazkian ageri da saria eskuan duela.

Iraileko irabazlea, aldiz, Julian Iparragirre leitzarria izan da.

Orain, urriko galdera egitea tokatzea da: **Nork irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketako Iruritako saioa?** Erantzunak beti bezala 618 56 78 37 zenbakira bidali behar dira, baina bakarrik whatsapp- pez.

Solaslaguna ekimenean parte hartzeko aukera

Euskararen erabilera bultzat- zeko asmoz, urtero bezala, aurten ere Solasguna ekimena martxan paratu dute eskual- deko herri aunitzetan. Arkupeak elkartek ere bat egiten du ekimen honekin, eta interesa dutenek elkarteko bulegoan dute izena emateko orriak.



Mintza Eguna iaz. MINTZALAGUNA

Erriberrira egingen dute abenduaren 15ean urteko azken irteera

TTIPI-TTAPA

Elkarteko bazkideek aben- duaren 15ean egingen dute urteko azken irteera Erribe- rriko Piedemonte upategira. Lehenik upategira bisita egi- nen dute bi taldetan bana- tuta, eta ondotik, bazkaria izanen dute Castejonen.

Egun osoko irteerak 49 eu- roko prezioa du, eta azaroa- ren 6an, 7an, eta 8an eman beharko da izena herriko delegatuari jakinaraziz.

Horren aitzinetik, azaroaren 9an bazkideak Lizarrara eta Lodosara joanen dira egun pasa.

Udazkeneko festa antolatu dute urriaren 28rako

Udazkenarekin lotura duen artelan txiki bat osatzeko eskatu diete haur eta gaztetxoiei

TTIPI-TTAPA

Udazken kolorez jantziko da plaza urriaren 28an, larunbatean. Denok Bat guraso elkar-teak udazkeneko festa antolatu du eta plaza apaindu eta gaztain erreak janez, giro ederrean, kantuan eta dantzan pasako dute arratsaldea.



Gaztainak erreko dituzte. ARTXIBOA

Plaza apainduta

Erleta eskolako haur eta gaztetxoen laguntza izanen dute gurasoek plaza dotore-dotore jartzeko orduan. Hosto lehorrak, pinaburuak, ezkurak, morkotsak, makila txikiak... hartuta, udazkenarekin harrereana duen artelan txiki bat osatzeko eskatu zaie. Plaza eta karrapean jarriko dituzte guztiak ikusgai. Gau beltzari ere keinu egin nahi diote eta herritarrei etxeko arropa zaharrak eta maindireak eramateko

eskatu diete, plazan eta karrapean zintzilikatzeko. Gaztain erreak banatzen 17:00etan hasiko dira eta zertxobait lehenago jarriko dute danbolina dantzan. Gurasoek momentuan erreko dituzte gaztainak. Sei gaztaina errez betetako poltsa 50 zentimoren truke banatuko dute. Musika-rik ere ez da faltako eta iluntzera arte dantzan aritzeko aukera izanen dute bertaratzen direnek.



ENERITZ IRAOLA

Hamabost eginak eta aurrera!

Urriaren 7a gorriz seinalatutako eguna zen leitzar askorentzat eta plazan sortutako giroa horren erakusle izan zen. Aurrera Elkartearen Eguna ospatu zuten eta 15. edizioan urte luzetan elkarteko zuzendari izandako Karlos Agirre omendu zuten.



JABI ARANBURU, AMAIA IPARRA, TORIBIO GEREÑO ETA JON RODA

Leitzuliaren itzulera arrakastatsua

Hiru urteko geldialdiaren ondotik, ilusio berezia nabari zen irteera-puntuan. 275 txirindularik parte hartu zuten eta 267k osatu zuten itzulia. Jon Egizabal herritarrari omenaldia ere eskaini zioten BTTn Nafarroako txapeldun izan delako.

TTIPI-TTAPAK bere txokoa izanen du Leitzan

TTIPI-TTAPA inoiz baino hurbilago izanen dute leitzarrek aurrerantzean. Leitzako Udalak sortu duen Mimukai garapen eta eraldaketa zentroan bere tokitxoa eskatu du Eneritz Iraola lankideak eta ostegun eta ostiraletan bertatik ariko da lanean. Landa industrialdean egokitu duten espazioan lanpostuak, bulego txikiak, bilera gelak eta formakuntza-gela bat daude eta eskualde mailan eragiteko helburuz sortu da. Mimukai ezagutu nahi dutenentzat ate-irekiak egitekoak dituzte urriaren 20an.

Independetzia Egunarekin lotutako hitzaldi sorta prest

Hezkuntzaren eta euskararen inguruko solasaldiak eskainiko dituzte urriaren 19an eta 26an

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 11n Independentzia Eguna antolatu dute Leitzako Sortuko kideek. Eskaintza politikoa eta soziala uztartu eta «hausnartzeko, aldarrikatzeko, elkartzeko eta gozatzeko eguna» izatea nahi dutela azaldu dute. «Prozesu independentistaren gaurkotasuna eta garrantzia azpimarratzea» da beraien helburua eta horretarako, hitzaldi zikloa ere prestatu dute azaroaren 11ko ekitaldien aurretik.

Bi hitzaldi prestatu dituzte eta prozesu independentista ardatz hartuta, hezkuntzarekin eta euskararekin duen loturaz ariko dira. Aurrenekoa, urriaren 19an, 18:30ean, Leitzako Udaletxean izanen da. Bertan, Nora Salbotx Alegria irakaslea, *Hezkuntza burujabe baten bidean, zer egin dezakegu?* galderari erantzuten saiatuko da. Beste lekuetako esperientzien berri eman eta hezkuntza arloan Euskal Herrian ditugun hainbat erronkei nola erantzuten ari diren azalduko du. Bigarren solasaldia, berriz, urriaren 26an izanen



Bi hitzaldi antolatu dituzte. ARTXIBOA

da Leitzako udaletxean 18:30ean. *Euskara minorizazio gorrian: arnaguneetatik, zer egin dezakegu?* izenburupean Iñaki Iurrebaso Biteri soziologoa eta Xabi Iraola Larraia, Sortuko Herrigintzako arduraduna izanen dira hizlariak. Euskararen egungo egoeraren argazki zorrotz bat egiteaz gain, euskara arnaberritzeko egin daitekeen bidearen gakoak ematen saiatuko dira.



Irailean egin zuten aurreneko etapa, Leitza eta Betelu artekoa. EH MENDI ERRONKA

Mendi Erronkako ibilbidea oinez osatzeko bigarren etapa urriaren 22an

TTIPI-TTAPA

Euskal Herria Mendi Erronkako antolatzaileek ibilbidea oinez lau etapatan egiteko aukera eskaini dute. Irailean egin zuten lehenbiziko etapa, Leitza eta Betelu artekoa, eta urriaren 22an, bigarrena osatuko dute. Goizeko 8etan Beteluko plazatik abiatuta, Albi

arteko 16 kilometroko zatia da egingen dutena. Interesa dutenek urriaren 19a baino lehenago eman beharko dute izena info@ehmendierronka.eus helbidera edo 679 87 50 89 zenbakira idatzita. Izena emandako jende kopuruaren arabera autobusa antolatuko dute.

Xakean jokatzeko hitzordua astero liburutegian

Pasa den ikasturtean hasi ziren, liburutegian xake ikastaroa eskaintzen. Arrakasta izan zuen ekimenak eta aurten ere hasi dira biltzen. Astelehenero 19:00etan elkartuko dira eta xakean jokatzeko ikasi edo dakienez trebatzeko aukera izanen du.

Sastrakak mendi irteera antolatu du urriaren 28rako

Emakumeen* mendi irteera antolatu du Sastrakak taldeak urriko azken larunbaterako. Enaren ibilbideko zati bat egingen dute eta segidan, Belaguan elkarrekin bazkaldu. Aldez aurretik izena eman behar da sastrakak@gmail.com helbidera idatzita.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA

T. 948 631 218

joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com











Arma berri zain bigarren eskukoak salmenta

Eskepetak, orriak eta abarrei konponketa


Kartuko eta bain salmenta eta abar...

eizmendi anaiak
kizak eta armatza




Berri, 19 - 21. AMASA-VILLABONA

Tel 943 692 623 - 668 844 983




Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.

Egiten ditugun lanak:

Fabaden konponketak, segurtasun-sistemen instalazioak, tellatuen eta azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

948 031 174

info@anelan.pro





Mendibil Mendi Taldeko kideek taldea indartzeko apustua egin dute.

«Mendi taldea erakargarri egiten asmatu nahi dugu»

MENDIBIL MENDI TALDEA

Mendi taldea desagertzeko arriskuan dagoela ikusita, hori indartzeko lanean hasi dira hainbat herritar. Ohiko mendi irteerak berrartzeaz gain, mendi lasterketen taldea sortu nahi dute

G. PIKABEA LEITZA

Itzaltzear zegoena pizteko bidea abiatu du herriko mendizale talde batek. Hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidea du atzetik Aurrera elkarteko Mendibil Mendi Taldeak, baina azken urteotan goitik beherako bidea hartua zuen, desagertzeko arriskuan izateraino. Halakorik gerta ez dadin, lanean hasi dira. Lantalde horretako kideetako bat da Lorea Barinaga-Rementeria Zabaleta eta esku artean duten proiektuaren berri eman dio TTIPI-TTAPAI.

Zer ibilbide egin du Mendibil Mendi Taldeak?

90eko hamarkadan sortu zen. Data zehatza ezin esan, men-

di taldea sortu baino lehen Aurrera elkarteak ibilaldiak antolatu zituelako. Urte askotan taldeak mendi irteerak antolatu izan ditu: Leitza inguruan, Nafarroa mailan, Pirinioetara, Europako Mendietara... Egun bateko ateraldiak edo asteburu pasak izaten ziren, Izabara eta Somportera iraupen eskia egiteko irteerak ere antolatzen zituzten, mendi astea ere bai... Inguruko beste edozein mendi talderen ibilbidea egin du.

Urterik oparoenetan zein izan da taldearen egoera?

Antolatutako irteerak nahiko jendetsuak izaten ziren eta horrek ekintza gehiago antolatzen segitzeko gogoia ematen

zuen. Antolatzailerek irteerak antolatu eta kartel bidez zabaltzen zituzten, eta nahi zue-na apuntatzen zen.

Nola funtzionatzen du?

Mendibil Mendi Taldea Aurrera Kirol Elkartearen barrenean dagoen batzordea da. Dantza taldea, pilota eskola, pesta batzordea edota futbol taldea dauden bezala, mendi taldearena Aurreraren beste atal bat da. Aurrerako bazkide

«AZKEN ALDIAN IRTEERETAN OSO JENDE GUTXI ANIMATZEN ZEN»

guztiak mendi taldeko kide izan gaitezke.

Desagertzekotan zegoela ohar-tarazi duzue...

Bai, poliki-poliki goitik behera egin du. Leitzan beti izan da mendirako zaletasuna, gure aurrekoek bazuten, guk ere bai, eta oraingo gazteek ere badutela uste dugu. Baina gizartea aldatu da eta jendearen ohiturak ere aldatu dira; mendian ibiltzeko modua, harremanak izateko modua, antolatzeko modua... Ez dakigu zergatik, baina kontua da mendi taldeko batzordeak antolatzen zituen irteeratan eta ekintzetan jendeak gero eta gutxiago erantzuten zuela. Lan handia hartzen zuten: irteerak prestatu, autobusak, jatetxea, aterpekereserbatu... Eta oso jende gutxi animatzen zen. Egoera ikusita, aurreko batzordeak asanblada bat antolatu zuen pasa den urtean, erreleboa nork hartuko zuen ikusteko, baina ez zen inor aurkeztu. Eta horretan gelditu zen kontua. Taldea bertan behera gelditu zen.

Horregatik batzuek elkartzea erabaki duzue...

Bai, lagun batzuk gaiari buruz aritu ginen. Modu batera edo bestera, denak beti mendian ibili gara eta saiakerarik egin gabe mendi taldea desagertzeak pena ematen zigun. Horregatik, beste saiakera bat egitea erabaki dugu, ea lehen-go martxa berrartzen duen.

Helburu horrekin irailaren 23an bilera egin zenuten. Nolakoa harrrera izan zuen?

Dezente ona izan zuela esanen nuke. 30-40 bat lagun bildu ginen, eta argi gelditu zela han geundenok behintzat ez dugula mendi taldea desagertzea nahi eta modu batera edo bestera mendira joaten segitzeko ekintzak egiteko gogoia dugula.

Zenbateko taldea bildu zarete proiektu honen atzean?

Oraingoz, zazpi lagun gaude tartean: Txoma Barriola, Aingeru Zabaleta, Oihana Saenz, Aitor Zugarramurdi, Inma

Zabaleta, Xabier Portu eta ni gaude. Hala ere, lantalde irekia da eta norbaitek parte hartu nahi badu atea zabalik dauka. Horixe izan zen bileran aipatu genuen kontuetako bat. **Bi arlo garatu nahi dituzue: mendi lasterketak eta ohiko mendi ateraldiak. Azalduko zenuke?**

Mendi taldea nola indartu hitz egiten aritu ginenean, gaur egun mendi lasterketek duten indarra aipatu genuen; gazte asko mendi lasterketetan ibiltzen dira. Hala, ohiko mendi irteerez gain, mendi lasterketen arloa sortzea proposatu genuen. Horri lotuta, hiru talde egitea pentsatu dugu: bat mendi lasterketetan hasi berriak direnentzat edo hasi nahi dutenentzat, bestea pixka bat ibiltzen direnentzat eta hirugarren taldea dezente ibiltzen direnentzat, goi mailakoentzat. Talde bakoitzak bere arduraduna izanen luke, batez ere, hasi nahi duten horiei teknika erakusteko: nola egin lasterka, makilak nola erabili, zer egin lesiorik ez izateko... Eta talde bakoitzaren barrenean entrenamenduak elkarrekin egin nahi badituzte, edo asteburuetan elkarrekin ateralditxoak egin edo lasterketetara elkarrekin joan nahi badute, aukera izanen lukete. Ongi funtzionatzen badu, lasterketetara talde moduan aurkezteko aukera ere hor dago. Ikusiko dugu zer martxa hartzen duen. Eta mendi irteeren kasuan, hasiera batean, anbizio handirik gabe, herri inguruan edo egun bateko irteerak egiteko asmoa dugu. Horrekin batera, komunikazioa ere indartu nahi dugu, Whatsapp eta Instagram bitartez arinxeagoa izan dadin eta jende gehiagorengana ailega dadin. Erantzun ona baldin badu, aurrera begira ikusiko dugu zer egin daitekeen; ideia asko proposatu zituzten.

Lasterketei begira, hiru talde osatu nahi dituzuela aipatu duzu, eta zerrendak ere ireki dituzue jendea apuntatzeko, ez?



2012an Eguzkizko-Muinora egindako ateraldian hartutako irudia. MIKEL ILLARREGI



2015ean Plazaola eta Goizueta lotuz egindako ateraldiko irudia. MENDIBIL TALDEA



2015ean Sarbilera egin zuten ateraldian hartutako irudia. MENDIBIL MENDI TALDEA

Bai, hori da. Mendi lasterketetarako sortu ditugun hiru taldeak osatzeko zerrendak ireki ditugu. Norbaitek apuntatu nahi badu, gutako norbaitekin harremanetan jar

daiteke, edo bestela, Instagram edo Whatsapp bidez.

Noiz paratuko duzue martxan?

Mendi irteerekin urte bukarran edo hurrengo urte hasiarran hasi nahi genuke, Euskal

«MENDI IRTEEREZ GAIN LASTERKETEN ARLOA GARATU NAHI DUGU»

«JENDEAK EKINTZETAN PARTE HARTZEKO GOGOIA IZAN BEHAR DU»

Herria Mendi Erronkako antolatzaileek mendi erronka oinez lau etapatan antolatu baitute. Aurrenekoa irailaren 24an izan zen eta urriaren 22an bigarrena eginen dugu. Beste bi geldituko dira eta horien ondotik hasiko gara gu. Garai batean, umeentzat, gazteenentzat, helduentzat eta nahi zuen guztiarentzat, Pirinioetara iraupen eskia egitera joateko irteera antolatzen zuten, eta hori berrartu nahi genuke. Jende dezente apuntatzen zen eta oso ongi pasatzen genuen. Ez dakigu hori izanen den aurreneko irteera, baina buuruan dugu. Horrez gain, Alex Txikon mendizalea hitzaldi bat ematera etorriko da. Eta mendi lasterketaren kasuan, taldeak osatzen hasi dira, eta osatu direla ikustean hasi nahi dugu.

Zer behar du mendi taldeak ongi funtziona dezan?

Uste dugu taldea erakargarri izateko modua asmatzea dela kontua. Gure ustez, herrian badago mendizaletasuna, baina mendiaz gozatzeko eta bertan ibiltzeko moduak aldatu dira eta horretara egokitu behar dugu. Hori asmatzea izanen da gure erronka.

Zein mezu luzatuko zenieke herriarrei?

Mendia gustatzen bazaie eta Leitzaan aspalditik martxan den mendi taldea bizirik mantendu nahi badute, ahal edo nahi duten ekintzetan parte hartzeko esanen nieke.

Etokizunera begira zein asmo dituzue?

Iraileko bileran ideia dezente ateraziren: mendi astea antolatzea, inguruko herrietan egiten duten bezala mendi itzulia egitea, duatloi bat antolatzea, rokodromo bat egitea... Horiek ongi funtzionatzen badute, gerora, ekintza gehiagotara zabal dezakegu: eskalada, mendi eskia... Mila ekintza antola daitezke, badaude proposamenak, baina horretarako, jendeak antolatzeko eta parte hartzeko gogoia izan behar du.

Jubilatuen eguna urriaren 29an ospatuko dute

Bazkarira joan edota truk edo mus txapelketan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute urriaren 23a baino lehenago

TTIPI-TTAPA

Goizuetan erroldatuta dauden jubilatuek festarako aukera izanen dute urriko azken as-
teburuan. Umore Ona Elkar-
teak urteroko hitzordua man-
tendu eta jubilatuen eguna
antolatu du urriaren 29rako.
Bezperan, girotzen hasteko,
truk eta mus txapelketa joka-
tuko dute.

Urriaren 28an, larunbatean,
16:00etan hasiko da truk eta
mus txapelketa. Umore Ona
elkartean, beheko soziedadean,
bilduko dira parte hartuko
duten bikoteak. Txapelketa
aurrera ateratzeko gutxienez
lau bikotek apuntatu beharko
dute. Izen-ematea urriaren
23a, astelehena, baino lehe-
nago egin beharko dute Es-
tankoan edo Amaia kafetegian.
Bazkarira joan nahi dutenek
ere halaxe egin beharko dute



Karta jokoan ariko dira. ARTXIBOA

eta bazkarian bertan 10 euro
ordaindu.

Bazkaria igandean

Urriaren 29an, igandean,
mezarekin hasiko dute jubi-
latuen eguna. Segidan herriko
pilotarien arteko pilota parti-
dak ikusteko aukera izanen
dute. 14:00etan mahaiaren
bueltan bilduko dira eta tripa
bete ondotik, kontu eta kanta,
iluntzera arte luzatuko dute
festa.



Urteak daramatzate Jumpfit ikastaroa eskaintzen. KRONIKA

Sei ikastaroko eskaintza osatu du udalak

TTIPI-TTAPA

Irakasleak topatu ezinik ibili
badira ere, azkenean lortu
dituzte eta ikastaro aukera
zabala eskaintzeko modua
izanen du aurten ere udalak.
Eskulanak, pilates, jump fit,
entrenamendu funtzionala,
adinekoentzat jarduera fisikoa
eta haurrentzat multikirolak
ikastaroak izanen dituzte au-
keran. Lerro hauek idaztera-
koan, pilates, jump fit eta
eskulan tailerrak eman ahal
izateko taldeak osatuta zeuden.
Horretarako, ikastaro bakoit-
zear, gutxienez zortzi lagunek
eman behar zuten izena eta

gehienez hamabiko taldeak
eginen dituzte.

Astearte eta ostegunetan
bildu dute aurtengo kirol es-
kaintza: 16:00etatik 17:00eta-
ra haurrentzat multikirolak,
17:00etatik 18:00etara pilates,
18:00etatik 19:00etara jump
fit eta 19:00etatik 20:00etara
entrenamendu funtzionala.
Asteazken eta ostiral goizetan,
09:30etik 10:30era, adinekoek
jarduera fisikoa egiteko auke-
ra izanen dute eta ostiral arra-
tsaldetan, hiru orduz, eskula-
netan aritzeko. Izen-emate
ordenaren arabera esleitu
dituzte plazak.

Salaberria anaiak txapeldun izan dira Atarrabian

Txapela soinean zutela
etxeratu ziren urriaren 7an
Markel eta Julen Salaberria
anaiak. Atarrabiako pilota
txapelketa irabazi zuten
Irurtzungo elkartearekin
gaztetxo mailan. Final estua
jokatu zuten eta azkenean
22-20 irabazi zieten
Nazabali (Larraun) eta
Santestebani (Atarrabia).



ANGEL SALABERRIA

Autoenplegua sustatzeko dirulaguntza

Goizuetako Udalak herrian
autoenplegua sustatzeko di-
rulaguntza deialdia onartu du
eta eskabideak aurkezteko
epea irekita dago urriaren 31ra
arte. Dirulaguntza eskuratu
ahal izanen dute Goizuetan
norberaren kontura 2021eko
urriaren 1etik aurrera jardue-
ra ekonomiko martxan jarri
duten herritarrek. Dirulagun-
tzaren oinarriak, eskabidea
eta informazio gehiago www.goizuetak.eus
web orrian eta
udal bulegoetan eskura dai-
teke, astelehenetik ostiralera
09:30etik 12:30era.

Azaroaren 25eko feria eguna antolatzen hasi dira

Urtero bezalaxe, azaroko az-
keneko larunbatean ospatuko
dute Goizuetako feria eguna.
Urriaren 9an egin zuten festa
antolatzen hasteko lehenbi-
ziko bilera eta datozen aste-
tan pixkanaka dena lotzen
joateko asmoa dute. Gauza
jakina da feriarik ez dela azie-
nda, barazki, eskulan edota
tresna zaharrik gabe eta ho-
rregatik, azokan postua jarri
nahi dutenei aukera ematen
die udalak. Interesa dutenek
Udaletxean eman beharko
dute izena azaroaren 3a baino
lehenago.

18.484 euro bildu dituzte uso-postuen enkantean

Hirugarren postuak lortu zuen eskaintzarik hoberena, 4.960 eurokoa

ENERITZ IRAOLA

Irailko azken bi larunbatetan egin zituzten uso-postuen enkanteak. Azken urteetako zifrak nabarmen hobetu zituzten eta behin betiko errematearen ondotik, 18.484 euro bilduko ditu Aresoko Udalak; iaz baino 10.382 euro gehiago.

Astebetetz sesteoan aritu ondoren, irailaren 30ean izan zuten ehiztariak azken eskaintzak egiteko aukera. Udaltzeko batzar-aretoa leporaino bete zen eta ehiztariak azken urteetan baino gogotsuago aritu ziren lehian. Enkantera ateratako hogeita zazpi postuetatik zortzi esleitu gabe gelditu ziren, pasa den urtean baino hiru gutxiago.

Hirugarren postuak errekorra Lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren postuak



Batzar aretoa beteta. ENERITZ IRAOLA

izan ziren eskaintzarik altuenak jaso zituztenak. Hirugarren postuak lortu zuen errekorra. 600 euroan emana zen eta, lehenbiziko enkantean 1.980 eurotan gelditu bazen ere, 4.960 eurotan itxi zuten enkantea.

Peña, Perratokieta, Goiegi, Uniate, Museo eta Gañarben dauden ehiza-postuak, berriaz, Usoa Ehiza Elkarteari esleitu zitzaizkion herritarrek erabil ditzaten.



ENERITZ IRAOLA

Egunpasa borobila topaketetan

Ni + Zu = Gu dio topaketetako leloak. Eta halaxe, bat egin zuten Arano, Areso, Ezkurra, Goizueta eta Leitzako haur eta gurasoek. Irailaren 30ean ospatu zuten festaren XXII. edizioa herrian eta egunpasa borobila izan zen. Jolasean, dantzan... primeran pasa zuten. Argazkiak *erran.eusen* ikusgai.



ENERITZ IRAOLA

Urteak festarako aitzakia bihurtzen diren eguna

1959 eta 1964 artean jaiotako 21 lagun bildu ziren urriaren 7an Pake Toki Elkartearen egindako bazkarian. Biltzen hurrenak, 1955 eta 1958 artean jaiotakoak izango dira urriaren 21erako egina dute hitzordua.

Olatz Zubirik lortu du udaleko administrari postua

Administrari lanpostua egonkortzeko deialdia egin zuen berriki udalak. Irailaren 29an egin zuten hautagaiak azterketa eta Olatz Zubiri goizuetarrak lortu du lanpostua. Ezaguna du bertako martxa, urtetan izan baita Aresoko Udaleko administraria. Epe laburrean aldaketa gehiago ere izanzen dira udalean. Maiztzeko hauteskundeetan osatu gabe gelditu zen udala osatzeko hauteskundeak deitu dituzte azaroaren 29rako. Urriaren 18tik 23ra arte aurkez daitezke hautagaitzak.



Arantzan, Areson, Eratsunen, Urrozen, Zubietan eta Narbarten dute bigarren aukera.

Hauteskundeetako zerrendak urriaren 23ra arte

Maiatzean hautagairik aurkeztu ez zen udalerrietan eta kontzejuetan azaroaren 26an bigarren aukera izanen dute

TTIPI-TTAPA

Joan den maiatzaren 28ko hauteskundeetan zerrendarik aurkeztu ez zen udalerrietan eta kontzejuetan, bigarren aukera izanen dute azaroaren 26an. Legearen arabera, lehen-biziko deialdian hautagairik aurkezten ez bada, sei hilabetere buruan hauteskundeak errepikatu behar dituzte, eta hori izanen da Nafarroan 38 udalerritako kasua. Horietatik bortz eskualdekoak dira: Arantza, Areso, Eratsun, Urroz eta Zubietan. Egoera berean daude Narbarteako kontzejuen ere.

Bortz udalerrri eta kontzeju bat

Arantzan, Areson eta Zubietan zazpi hautagai aukeratu behar dituzte eta Eratsunen eta Urrozen bortz. 250 biztanle baino guttiago dituzten udalerrietan zerrenda irekiak izaten dira, hau da, botoak hautagai bakoitzarentzat izaten dira, ez gainerakoetan bezala taldeentzat. Eta zehazki, Urrozko eta Eratsungo kasuan, 101 eta 250 biztanle izanda, boto emailere bakoitzak

gehienez ere bortz hautagairi eman diezaioke botoa. Hautagai bakoitzak dituen botoak zenbatzen dituzte eta boto gehien biltzen dituzten bortz ordezkariak hautatzen dituzte udal ordezkari. Boto kopuruan berdinketa izaten baldin bada, zozketa bidez erabakitzen dute.

Narbarteko kontzejuen, bertzalde, batzarreko lehen-dakaria eta lau bokal hautatu behar dituzte.

Zerrendak aurkezteko epea
Irailaren 25ean jakinarazi zuen Espainiako Gobernuak hau-

ZERRENDA BAKARRA BADA BOTOEN % 5 BEHAR DU

ZERRENDARIK EZ BADA GOBERNUAK BATZORDEA IZENDATUKO DU

teskunde partzialen eguna zein den, eta geroztik, hainbat xehetasun argitaratu dituzte. Zerrendak aurkezteko epea, adibidez, aste honetan zabaldu dute eta urriaren 23ra arte izanen da aukera. Bi egun beranduago, hilaren 25ean, aurkeztutako hautagaitzak argitaratuko dituzte; 30ean hautagaiak aldarrikatuko dituzte eta 31n aldarrikatutako hautagaitzak argitaratuko dituzte.

Kasu honetan, ez da hauteskunde mahaien zozketarik eginen, baina mahaiko kideei urriaren 28tik maiatzaren 4ra bitarteko epean berriz egin beharko diete jakinarazpena.

Kargu hartzea abenduan


Hauteskunde kanpaina azaroaren 11n hasi eta azaroaren 24ra arte izanen da. Eta hauteskunde egunean, 08:00etatik 08:30era mahaia osatu eta 09:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte hautetontziak. Udalbatzak, berriz, abenduaren 16an osatuko dituzte.

Zerrenda bakarra baldin bada zer?

Hauteskundeetan zerrenda bakarra auzeratu bada, horrek ez du erran nahi ziur alkate-tza lortuko duenik. Legearen arabera, botoen % 5 baino guttiago lortzen duen alderdiak edo taldeak ezin du alkate-tza lortu. Hala ere, herri-tarren taldeak aurkeztu izan direnetan aise gaintu izan dute guttieneko kopurua.

Eta zerrendarik aurkezten ez bada?

Bigarren deialdian ere zerrendarik aurkezten ez bada, Nafarroako Gobernuak kudeaketa batzordea osatuko du. Legeak dio, bai udalerrien kasuan, bai kontzejuen kasuan, «toki erakundearen funtzionamendu normala ahalbidetzeko», Nafarroako Gobernuak kudeaketa batzorde horretako kideak izendatu behar dituela.



Jeiki Abesbatzako kideak kantari.

Leitzako Jeiki Abesbatzaren kontzertua igandean

TTIPI-TTAPA

Kantua maite dutenentzat hitzordu berezia izanen da asteburu honetan. Nafarroako Abesbatzen Elkartearen ekimenez, Bideak lotuz izeneko zikloa egiten ari dira han eta hemen abesbatzak hainbat kontzertu eginez. Bada horietako bat Aranon izanen da. Leitzako Jeiki Abesbatzako kideak igande honetan, urriaren 22an, elizan emanaldia eginen dute. 12:00etan hasiko da.

Azaroaren 30eko greba deialdiarekin bat sindikatuak

Euskal Herriko Mugimendu Feministak azaroaren 30erako iragarritako greba feminista orokorarekin bat egin dute ELA, LAB, STEILAS, ESK, EHNE, ETXALDE eta CGT sindikatuek. Aldarrikapen nagusia «zaintza eskubide kolektiboaren erakitzea» izanen da. Sindikatuek argi utzi nahi izan dute «zaintza guztien ardura dela, eta horien antolaketak sozial eta ekonomiko justuago baten aldeko borroka ere bai». Hala, «denon bizitzak erdigunerak ekartzeko, azaroaren 30ean denok kalera!», adierazi dute.

Santu Guztien Eguna



Hildakoak oroitzen mundu guztian

Azaroaren lehen egun berezia da aunitzentzat, gure artean ez daudenak omentzeko garaia baita. Hilerriak garbitzea, txukuntzea eta loreekin kolorez betetzea dugu ohitura, baita familiarekin elkartu eta otordu eder bat egitekoa eta postre tradizionalak jatekoa ere. Gainera, azken urteetan Gau Beltza berreskuratzen ari dira hainbat herritan, euskal ohitura zaharra. Baina leku guztietan ez dute berdin ospatzen eguna. Nolakoa da Santu Guztien Eguna munduko bertze herrialdeetan?

Mexikokoa da ziurrenik egun honetako ospakizunik eza-gunena. *Día de los Muertos* edo Hildakoen Eguna azaroaren lehen eta 2an izaten da, eta bertako ohitura indigenak eta tradizio katolikoak elkartzuz sortu zen. Egunduan hildakoek *Mictlána* gurutzatu eta bizidunekin

elkartzeko baimena dute, beraz, osakizun alaia eta koloretsua izaten da. Eskualde bakoitzak bere usadio propioak ditu, baina denetan nabarmentzen dira hildakoei egindako eskaintzak eta aldareak. Loreak, kandelak eta jatekoak izaten dira nagusi aldare hauetan. Mexikotik kanpo, Latinoamerikako bertze hainbat herrialdeetan ere ospatzen dute egun hau: Bolivian, Ekuadorren, Argentinan...

Irlandan Samhain besta galtzen ari den tradizioa da. Europa osoan egin ohi zen zelten ospakizuna zen; uzta-aren garaiari akabaila ematen zion, negurako prestatzeko. Urte berriaren hasiera markatzen zuen, eta egun horietan hildakoen izpirituak bizidunen mundura bueltatzen zirela sinesten zuten. Kristautasunaren hedapenarekin, *All Hallows' Eve* (Santu Guz-

 Ombasaindurako lore eskaintza zabala
· Etxea apaintzeko galak
· Arropa eta osagarriak
ETORRI ETA IKUSI!!

Albistur 39 LESAKA T. 948 627 542 · 722 748 836

Santu guztien egunerako

**IRIS**
LORENDUA

 aukera zabala

Jaime Urrutia 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO

Oharriz Auzoa z/g · LEKARÓZ
T.948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

**HARRI LAN, S.L.**
KALTEKORREKATZEA



ANTZUZELAI
S.L.

BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com



HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK



MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEOIAK
HILERRIAK | ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK | HARRI ZIZELKATZEA

M. 688 605 182 | T. 948 453 444    
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com

tien bezpera) besta Samhain ordezkutzen hasi zen, gaur egun denok ezagutzen dugun Halloween ospakizunean bihurtu arte. Hala ere, besta zahar honek bizirik dirau Irlandako hainbat herritan, baita Eskozian eta Galizian ere. Festibalak egiten dituzte eta su handiak pizten dituzte, izpiritu txarrak uxatzeko helburuarekin.

Kanbodian, aldiz, *Pchum Ben* edo Arbasoen Eguna egiten dute urrian, 15 eguneko ospakizun budista. Infernuko ateak zabaldua, hildakoen mamuak kanpora ateratzen dira egun hauetan. Monjek *sutrak* abesten dituzte gau osoan eta herritarrek janariak uzten dizkiete familia eta arbasoei, purgazioarekin laguntzeko. Zenbait tentutan janaria monjeei ematen diete zuzenean, haien bitartez hildakoengana ailegatzeko.

Azkenik, **Madagaskarren** hildakoak omentzeko *Famadihana* (Hezurren Itzulera) jaialdia egin ohi du bertako malgaxe herriak, herrialdeko etnia nagusiak. Gainerako tradizioak ez bezala, ez du data zehatzik eta familia bakoitzak berea egiten du. Heriotzatik lau-zazpi urte-tara, gorpua kriptatik ateratzen dute eta hainbat egunetako besta haundia egiten dute familia eta bizilagunekin. Ez dute hilkutxarik erabiltzen, beraz, oihalekin estaltzen dituzte hezurak eta hauekin dantzatzen dute, jendetzaren artean airean eramanez.

Amerikan, Europan, Asian nahiz Afrikan, gure artean ez daudenak omentzeko mila tradizio eta erritual daude. Hala ere, denok dugu helburu bera: hildakoak geure oroitzenetan bizirik mantentzea.



lafitte.
jardinerie

Jardinerie Lafitte
84, 1945 maitezaren 8ko etorb.
64100 Balona
Tel.: 00 33 5 59 42 24 42

www.jardinerie-lafitte.fr



**OMIASAINDU EGUNERAKO
AUKERA ZABALA**

Aukera handia
kalitatezko produktuetan

Santu guztien
egunerako
Lore-eskaintza
zabala

Ongarriak eta ongarrizeko gaiak
Landareak, loreak, fruitu-arbolak
Lore-konposizioak
Etxe barrurako zein kanpoko landare eta arbolak
Dekorazio osagarriak, loreontziak eta jardinerak
Lorategirako erremintak

Landiflor

Landiflor zure loredenda egunero irekia:
9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00
Dantzarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com
www.venta-peio.com



DANCHARIA IBARDIN ARNEGUY BÉHOIE

FR. +33 9 72 10 40 20

ES. +34 948 625 130

JAIONE-GOZOTEGIA

*Bañalok eta
etsako produktak*

Altzate, 21 · BERA · T. 948 630 786

LORE SORTAK
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK

Lore moztuen
eskaerak
urriaren 25era
bitartean edo
agenda
bete arte

ZU loredenda
dekorazioa
osagarriak

Urriak 28 - 09:30-13:00 / 17:00-19:30
Urriak 29 - 09:30-13:00 / 17:00-18:00

Altzate, 33 zuloredenda@hotmail.com
31780 BERA f Tel.: 948 625 786

OMIASAINURAKO
LORE ETA LANDARE
ESKAITZA ZABALA

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Erreserbatu
omiasaindu egunerako loreak
eta mintegian gordeko dizkizugu



Astelehenetik larunbatera:
09:30-13:00/16:30-19:30
Igandeak: 10:00-13:00
Otsango auzoa · LESAKA
T. 948 637 826



JUAN MARI IRIARTE

Jaione gozotegia

«Betiko errezeta tradizionalak egiten ditugu»

Familia negozioa da Jaione gozotegia, duela 36 urte Beran irekia. Juan Mari Iriarte gozogilearen gurasoek abiatu zuten negozioa; «gure ama eta aita zena Mexikora joan ziren bizitzera 1978an, eta bueltatu zirenean lantegi propioa zuen gozo-denda bat irekitzea bururatu zitzaien». Izan ere, «nire gurasoek betitik maite izan dute gastronomia, eta aita okintzaren munduan sartua zegoen lehenagotik ere. Horrela hasi ziren, poliki-poliki».

Gaur egun Ana Baleztena aritzen da gozotegian, baina semearen laguntza ere izaten du, «asteburuetan eta ahal dudanean. Pastel eta txokolate artean hezi izan naiz, eta etxean ikusi dudana egiten bukatu dut».

Gozogintza tradizionala du ardatz dendak: «tendentziak segitu beharrean, ohitura zaharretako errezetak egiten ditugu; goiz-goizetik ernatu, masak harrotzen utzi eta labearen ondoan egoten gara». Opilak, pastelak, txokolateak... denetik egiten dute, dena etxean egina, «eta batez ere hostorea, hagitz fina egiten dugu eta hori da gure espezialitatea. Pastak arrakasta handia izaten

dute eta Eguberrietan errege-erroskak ere aunitz eskatzen dizkigute. Nafarroatik, Gipuzkoatik eta Iparraldetik etortzen dira erostera».

Domisaindu egunera begira, kruxpeta tradizionalak (buñueloak) egiten dituzte, esne-gainez edo kremaz beteak. «Aste horren bueltan egiten ditugu, asteburu bat lehenago edo beranduago... enkarguen arabera. Baina lan gehiena Santu Guztien Egunean izaten dugu». Galtzen ez den ohitura da, izan ere, «ia mundu guztiari gustatzen zaizkio gozokiak, eta jendeak etxean bazkari eder bat egiten duenean beti izaten da postrearentzako lekua. Beti izaten ditugu urtebetetzeak, urteurrenak... mahaiaren inguruan elkarrekin zerbait ospatzeko aitzakia».





Arxuri aldea Urbiako lepotik, kaskorat igotzeko bidea egin nahi dute bertan.

Arxuriaren etorkizuna Baztango Udalaren eskuetan

Urriaren 17an zuten egitekoa Arxuriko proiektuaren inguruko bozketa, kontrako gehiengoarekin

TTIPI-TTAPA

Azken agintaldian, Geroa Baik hainbat proiektutarako zuzenketak egin zituen aurtengo aurrekontuetan, tartean 45.000 euroko dirulaguntza Arxurian bide bat moldatzeko, parapente eta delta hegalean ibiltzeko. Uztailaren 20an Baztango Udalak aho batez onartu zuen dirulaguntza, baina honen berri izatean, Zugarramurdiko eta Sarako Udalek proiektua alde batera uzteko eskatu zion. Izan ere, proiektua Baztango lurretan aurreikusia dagoen arren, Zugarramurdiri eta Sarari eragiten die,

batetik pasatzen direlako salto egin nahi dutenak eta bertzean lur hartzen dutelako.

Hori dela eta, irailaren 28an pistaren moldaketa gelditzeko mozioa proposatu zuen EH Bilduk, baina proposamena ez zen aitzinerat atera, gainerako udal taldeek kontra bozkatu zutelako. Proiektuarekin segituko zutela jakitean, Zugarramurdiko eta Sarako herriarrek agerraldia egin zuten urriaren 5ean egoera azaltzeko eta desadostasuna adierazteko.

Azaldu zuten, «Baztango Udalak Arxuriaren kaskorat

joateko kilometro bateko pista eraikitzeko baimena onartu zuen. Norendako? Irungo parapente eta delta hegalean eskola pribatu batendako, Bidasoa Arxuria Groupendako. Legalki gaur egun Baztan eremuaren jabea bada ere, geografikoki eta sentimentaliki gurea egiten dugu Arxuria. Hor bizi direnak zugarramurdiarrak dira eta proiektu honen kaltetuak Zugarramurdi eta Sarako herriak izanen dira». Honez gain, manifestazio deialdia egin zuten urriaren 21ean Elizondon.

Gero Bairen erantzuna EH Bilduri

EH Bilduren mozioaren ondoren, Baztango Geroa Baik leporatu zion EH Bilduk berak onartutako eta tramitatutako proiektua gibelerat bota nahi izatea. Taldearen erranetan, «bere garaian EH Bilduk proposamena onartu eta bere egin zuen. Berek sinatu baitzuten hitzarmena Nafarroako Gobernuarekin, berek hartu baitzuten ardura proiektua idazteko, berek esleitu baitzituzten lanak eta oraingo alkateak sinatu baitzuten hitzarmenaren eranskina. Orain, proposamenaren ukazioetan ibiltzeak aski gaizki uzten du beren aitzineko taldea, orain gibelerat bota nahi baitute aitzinekoek egindako lana».

Gehitu zuten, pistaren moldaketak «fabore ederra egiten die beren azientak inguruetan bazkatzen dituzten

baserritarrei; handik pasatzen diren guzietan, delta hegalean edo parapentean ibiltzeko ere; eta mendizale eta ibiltariei, askatasunarekin ibiltzeko duten eskubidea indartzu».

Baztango Independenteen iritzi aldaketa

Zugarramurdiko Udaleko kideekin eta bizilagunekin bildu eta proiektuaren eremua bisitatu ondoren, Baztango Independenteen taldeak proiektuari buruzko jarrera aldatzea erabaki zuen. Azaldu zuten, «ez gara fede txarrez jokatzeko ari, eta ez dugu ezagutzen ez dugun enpresaren alde egin nahi bertze inoren gainetik». Kaltetuei «barkamena» eskatu zieten eta hurrengo bilkuran «botoa aldatuko zutela» jakinarazi zuten.

Horrela, proiektuaren kontrako aldea nagusituko litzateke udalean, EH Bilduren eta Independenteen kontrako zortzi botoekin eta gainerako taldeen bostz botoekin. Urriaren 17an zuten egitekoa hurrengo bilkura eta ezustekorik ez bada, proiektua bertan behera utzi beharko lukete.

Hau gertatzen bada, manifestazioa alde batera utziko dutela jakinarazi dute Sarako eta Zugarramurdiko bizilagunek. Bere aldetik, Baztango alkateak azaldu du «egitasmoa alde batera utzitza, udalak proiektuaren idazketa bakarrik ordaindu beharko duela, 2.000 euro ingurukoa. Gainerakoa ez, lanak ez baitira hasi».

Herencias y Gestión



Zuregandik hurbil gaude



Mugaz gaindiko herentzien onarpena



Gizarte segurantzaren pensioen eskaera



Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

«Hiria eta landa eremua guztiz deskonektatuak bizi dira»

PATRICIA TORNERO VIDAL GASNAGILEA

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Erratzun Pittika gasnategia sortu duen Patricia Tornero ekoizlearekin mintzatu da TTIPI-TTAPA

R. OSKARIZ ERRATZU

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna da urriaren 15a, hainbertzetan isilduak eta ikusezinak izan diren emakumeen lana aitortzeko eguna. Baztanen garrantzia handiko sektoreak izan dira tradizionalki nekazaritza eta abeltzaintza, eta indarra galdu badu ere, nagusi izaten segitzen du. Haraneko 37.000 hektarea baino gehiago erabiltzen dira lehen sektoreko ustiapenerako, larre gehienak herri lurraziz. Jatorri-izendapeneko produktuek, bertako markak eta produktu ekologikoen inportantzia handia hartu dute azken urteetan. Bertze hainbat ekoizle bezala, horretan aritzen da Patricia Tornero valentziarra Erratzuko Dorratxipia etxaldean. 2015ean tokiko ekoizpenaren aldeko apustua egin zuen, eta Pittika gasnategia abiatu zuen. Gaur egun, behi gasna ekologikoak egiten ditu bertan, eta ekoizle tikien egoera «zaila» dela azaldu du, «sektoreak ez du instituzioen laguntza erreala eta geroz eta industrializatuagoa dago».

Nola hasi zinen gasnagintzan? 25 urterekin joan nintzen Valentziatik Nafarroako iparralderat bizitzera, abeltzaintzako ikasketak egiteko asmorekin. Landa eremuan murgildu nahi nuen, lan bat baino gehiago, bizitzeko modu bat delakoz. Gasnak egiteko hainbat kurtosotan parte hartu nuen, eta



Gaur egun behi gasna egiten du Tornerok Iparraldeko esnearekin. UTZITAKOIA

praktikak egin nituen Iparraldeko bi artzain eta gasnagilearekin. Pasta biguneko gasnak eta esnearen gatzapena egiten ikasi nuen bertan. Arantzazuko Artzain Eskolan (Oñatin)

«LAN BAT BAINO GEHIAGO, BIZITZEKO MODU BAT DA»

eta Katalunian ere formakuntza ikastaroak egin nituen.

Eta zergatik etorri zinen Baztanerat?

Urte aunitzez izan nuen proiektua buruan, baina zail-

«GEROZ ETA MEKANIZATUAGO DAGO LEHEN SEKTOREA»

tasun haundiak izan nituen gauzatzeko, lur eskaintza tikiarengatik eta prezio altuenengatik. Erratzuko Dorratxipia etxaldea erosteko aukera sortu zitzaizkidan, nire proiektuarekin bat egiten zuela ikusi nuen. Hasmentan, ahuntzak paratu nahi nituen esentsiboan, eta gasnategi tiki bat hauen esnea lantzeko. Gaur egun proiektua aldatu da, eta behi gasnak egiten ditut Iparraldeko ekoizle tiki baten esnearekin. Lan egiteko modu berdintsua dugu biok eta berak ere esne gordineko gasna ekologikoak egiten ditu baserrian. Ahuntz talde tiki bat eta behi batzuk ere dauzkat.

Lehenagotik loturarik zenuen gasnagintzarekin?

Ez, Valentziatik etorri nintzen ez nuen inongo loturarik gasnagintzarekin. Hirian bizi nintzen, baina argi nuen naturarekin konektatzeak ongi sentiarazten ninduela eta honek nire lanbidearekin koherentzia izatea nahi nuen. Geroztik, gasnagintzaren munduak poliki-poliki erakarrri nau, bereziki bertze gasnagileak eta gibeletik dituzten istorioak ezagutzean.

Gaur egun, erraza da ekoizle tiki izatea?

Ez, ez da batere erraza. Burokrazia da astunena; nire kasuan, oztopo-lasterketa bat egin behar izan nuen osasun-erregistroa lortzeko. Urteak behar izan nituen lortzeko, behin-behineko erregistro batekin lan egiten nuen bitartean. Geroz eta mekanizatuagoa eta industrializatuagoa dago lanbidea, eta enpresa haundien baldintza eta arau berdinak paratu dizkigute artisauek, aldatzera edo desagertzera behartuz. Bidea zaila da, baina lan guziaren emaitza ikusteak pozgarria eta hunkigarria da.

Gizartea naturatik deskonektatu bizi dela uste duzu?

Bai, hiria eta landa eremua guztiz deskonektatuak daude. Eskolan ingelesa edo mate-

matik irakasten dira, baina haur aunitzek ez dakite nola ekoizten diren elikagaiak, eta batzuk ez dute inongo kontakturik baserri inguruarekin. Hiritarrek landa paisaia baloratzen dute, baina uste dute hor egoetatik dagoela eta ez da hala. Landa paisaia biztanleek eraikitzen dute; nekazari eta abeltzainik gabe ez dago landa eremurik.

Zergatik da hain garrantzitsua lehen sektorea bizirik mantentzea?

Lehen sektorerik gabe landa desagertuko litzateke, eta horrekin bertako elikagai osasuntsuak, kultura eta bizimodua. Eredu industrial gailentzen ari da sektorean: makro-ustiategi kutsakorrek eta laborategietan in vitro sortutako elikagaiak. Zentzugabetasun honen aitzinean, abeltzaintza tradizionalak eboluzionatu behar du ez desagertzeko. Lan eredu jasagarriak eta ekologikoak behar ditugu, horrek desberdintzen gaituelako bertze sistemetatik. Elikagai osasuntsuak, seguruak eta ingurumena errespetatzen dutenak eskaini behar ditugu. **Sektoreak gobernuaren eta erakundeek laguntza dauka?**

Ez, ez gara lehenatasunezko gaia momentu honetan. Erakundeek diskurtso ekologista aunitz ematen dituzte baina ez dugu laguntza errealik. Adibidez, Nafarroako Ekomercado ekoizleen taldetik denbora luzez eskatu diogu Iruñeko Udalarri karrikan espazio bat zuzeneko salmentarako, baina ez digu inongo laguntzarik eman. Egoera zaila da, ez dugu beharrezko laguntzarik eta indarrak agortzen ari zaizkigu... Pena handia emanen lidake talde hau desagertzea bertze hirietan duten laguntza ez izateagatik. Ekoizleen merkatuak ezinbertzeko lekuak dira landa eremuko produktuak hiriekin konektatzeko. Honez gain, beharrezkoa da ekin nahi dioten gazteei laguntzea, bidean ilusioa gal ez dezaten.



Ahuntzak eta behi batzuk ere ditu Tornerok Erratzuko Dorratxipian. IKER BASTERRETXEKA

Baztanen Arras Baztan, Bertan, Baztango Zaporeak eta bertze hainbat egitasmo ditugu tokiko produktu jasagarriak ezagutzera emateko. Nola ikusten duzu hauen papera?

Egitasmoa hauek arras ongi daude ibarreko egitura ekonomikoa babesteko eta bertako komertzioei laguntzeko. Baztango Zaporeak, adibidez, azokak egiten ditu larunbatero Elizondoko plazan artisauekin batera. Horrelako kolektiboak arras garrantzitsuak dira, baina instituzioen aldetik babes haundiagoa behar dugu jendeari tokiko produktuen garrantziaz ohartarazteko, eta Baztan den lekua segitzen izateko, baita hobetzeko ere.

«LAN EREDU JASANGARRIAK ETA EKOLOGIKOAK BEHAR DITUGU»

Datuen arabera, historikoki emakumeen egoera oraindik eze-gonkorrago izan da baserrian. Zein da bete izan duen papera? Landa eremuan emakumeak beti uztartu behar izan ditu etxeko lanak eta baserrikoak. Produkzio eredu ttikia eta lurrari lotua zen, eta familia guztiak parte hartzen zuen, baina emakumeak ez dute behar bezala baloratu. Aunitzek bizi guzian jardun dute etxalde edo ustiategietan lanean eta haien lan guzia 'etxeko laguntzat' hartu dute. Gizona zen jabea, titularra eta kudeatzailea.

Egoera hobetzen ari da?

Bai, alde horretatik aldaketak ematen ari dira, baina desparrekotasun dezente dago oraindik.

«LANDA EREMUKO EMAKUMEA EZ DA BEHAR BEZALA BALORATUA IZAN»

dik. Egia da geroz eta emakume gehiago sartzen direla nekazari aktuetan lurrari lotutako proiektuetan, baina horixe dugu eredu industrial, berriz ere gizonek gobernatutako eredu dena.

Nola ikusten duzu tokiko ekoizpen tikiaren etorkizuna?

Ekoizle hauek aunitzez ere gehiago baloratu behar direla uste dut. Kontsumitzaileak ohartu behar gara zein garrantzitsua den elikagaiak non erosten ditugun. Beti ez da posible, baina aunitzetan ekoizleak ondoan ditugu eta ohitura edo erosotasunagatik ez gara haiengana hurbiltzen. Kontsumitzaileak hau baloratzen ez badu, litekeena da urte guttitan ekoizle tikiak ez aurkitzea. Inork ez dugu makro-ustiategi bat nahi gure herrian, hondamen ekologikoak direla dakigulako, baina azkenean makro-ustiategietako haragia erosten dugu supermerkatuan... gure esku dago egoera aldatzea.



JONE URIARTE

Erratzuko errebestak giro bikainean

Urriaren 7an musika izan zen nagusi egun osoan: goizean herriko gaiteroek eta txistulariek eta Eletroxorngok alaitu zuten giroa, bazkal ondoan eta arratsaldean Modestok girotu zuen besta eta, eguna borobiltzeko, Xuritabeltz DJ bikotea aritu zen gauean. Eguraldia lagun, giro ederra izan zuten.



UTZITAKOA

Kortariko gasna hirugarren Idiazabalen

Sariak pilatu eta pilatu segitzen dute Orabideko gasnategian. Azkena urriaren 8an lortu dute, Idiazabalen egindako Euskal Herriko 40. Artzain Gazta Lehiaketan. 35 gasnategi aurkeztu ziren lehiara eta Kortariko Infernuko Gasnak hirugarren postua eskuratu zuen. Zorionak!

OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43

www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7^ºE
20004 - Donostia

@ oteizaarquitectos

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE

abokatua

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818

Santiago, 59 2C ELIZONDO



Almandozko eskolako haurrak eskolaren atarian. ALMANDOZKO GURASO ELKARTEA

Eskola Ttikien besta Almandozen egin dute aurten

Urriaren 7an Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango Eskola Ttikietako ikasle eta gurasoak Almandozen bildu ziren

ALMANDOZKO GURASO ELKARTEA

Larunbat goizean eskolako atarian elkartu ginen jendea-ri ongi etorria emateko eta Almandozko eskolako haurrek ozen abestu zuten beraien kantua. Ondotik, jendeak Almandozko parajeekin disfrutatu zuen bi mendi bueltetan. Goizean aurpegiak margotzeko eta Ainara Unanuaren ipuinak aditzeko aukera ere izan zen. Eguerdian frontoian bazkaldu genuen; kafea eta kopa Almandozko Guraso Elkartearen esku izan zen eta almandoztarrek egindako postreak erosteko aukera ere izan zen.



Arratsaldean puzgarriak izan ziren.

Arratsaldean puzgarriak, Hauspolariak bikotearen musika eta hainbat joko izan genituen.

Hurrengo urteko bestaren testigua Zigako eskolako gurasoei eman zaie.

Kaparetasunaren betearazpenei buruzko solasaldiak urriaren 24an Iruritan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Unibertsitateak 'Kaparetasun betearazpenak erregimen zaharraren amaieran' sinposioa antolatu du urriaren 23an eta 24an. Astelehenean Iruñean izanen da, Unibertsitatean, eta asteartean Iruritako Jauregian.

Hainbat hizlarik parte hartuko dute sinposioan eta Iruritako saioan hiru solasaldi izanen dira; 10:30ean, 11:00etan eta 12:30ean. Eguerdian bazkaria izanen da Olarin eta Jauregiari bisita ere egingen diote. Parte hartzeko izena eman beharko da.



deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA

2024ko Nekazaritza Politika Bateratua adostu dute

Lur komunalen banaketan «ATPak, lehentasunezko ustiategiak eta gazteak positiboki haztatzea» du helburu politika berriak

TTIPI-TTAPA

Urriaren 2an egindako osoko bilkuran, Baztango Batzar Nagusiak heldu den urteko Nekazaritza Politika Bateratuko (NPB edo PAC) irizpideak adostu zituen aho batez. Azien-dak mendian alhatzeagatik dirulaguntzak ematen ditu NPBk, eta horiek hartu ahal izateko Baztango larre komunalak nekazarien artean banatzen dituzte.

Iaz aurtengo kanpainako irizpide batzuk hartu zituzten «laguntzen eskakizuna egokitzeko». Hau «trantsizio kanpaina gisa» hartu dute, abeltzainak araudira egokitu ahal izateko, «eta 2024. urteari eta hurrengoei begira, behin betiko irizpideak ezartzeko mendi irekiko hektareak banatzeari dagokionez». Gaiaren konplexutasuna dela eta, «ez du denborarik eman ordenantza oso bat osatzeko».

Bileran erabaki bezala, «Baztango ustiategiaren erroldan agertzen diren eskatzaileak baino ez dira onuradun izanen, bertan erroldatuta badaude (sozietateen kasuan, sozieta-

tearen helbide soziala Baztanen)». Banaketa proposamen honek «haztapan positiboa dakar lehen instalazioko proiektua duten abeltzain gazteentzat, baita sektoreko profesionalak diren lur-eskatzaileentzat ere, ATPak (ogibide nagusiz nekazaritza dutenak), lehentasunezko ustiategiak eta gazteak positiboki haztatuz». Horretarako haztapan sistema proposatu dute:

- **Ez-profesionalak:** Oinarria
- **Lehentasunezkoak ez diren ATPak:** Oinarria + %10
- **Lehentasunezko ustiategiak:** Oinarria + %20
- **1. instalazioaren ustiategiak:** Oinarria + %70

Lurrak banatzeko proposamena onartuta, bilerekin segituko dute hurrengo Batzar Nagusian ordenantza bat onartzeko helburuarekin, eta «nahiz eta aitzinetik jakin zaila izanen dela epea betetzea, saiakera egingen da. Prozedurari, zehapen-araubideari, emakida-muga posibleei, soberakinei, hektareako ordaindu beharreko tasari eta abarri buruzko puntuak jasoko dira».



MAITANE MARITORENA

Anizko bestak giro paregabean

Aurtengo bestak bereziak izan dira beroagatik eta otorduetan bildutako jendeagatik: ortziraletan zopetan eta igandean zikiroan, aspaldiko urteetan izan zen jendeketarik handiena izan baita. Eguzkia lagun (edo etsai) izan dute ekitaldi guzietan: ortziraletan goizean ezkila jotzetik hasi, eta igandean gaixoa ni artio.

Liburu aurkezpenak izanen dira urri akabailean Txokoton eta Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Txokoto tabernak *Nostalgia ez da salgai* liburuaren aurkezpena antolatu du urriaren 22an, 19:30ean, Xan Idiarte idazlearekin. Zortzi ipuinek osatzen dute bere liburu berria eta umore beltza dute protagonista.

Urriaren 25ean, berriz, Talde Ekosozialak *Zombis del capital. Sobre monstruos políticos y un socialismo verde* liburuaren aurkezpena antolatu du 19:00etan Arizkunenean. Egungo krisi sozioekologikoari buruzko gogoeta egiten du Raul Zelik egileak liburuan.

ELEKBERRI

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

EGUZKI PANELEN INSTALAZIOA

- Proiektu pertsonalizatu, baimen eta diru laguntzen gestioa
- Amortizazio planen azterketa
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuoen instalazioa
- Finantziario aukera

646854825 / 616898065 · elekberri@gmail.com · Elizondo (Baztan)



Elizondoko Feriak

Urriak 27-28



**INDAUTO
TAILERRAK *ELITE***

Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Ibilgailuen salerosketa

ongi pasa feriak

Ind. Ordoki - Arizkun (NA)
T. 948 453 488 - M. 675 324 960

info@indauto.es

Udazkeneko feria Baztanerat ailegatu da

Urtero bezala, hemen dugu eskualdeko ferien garaia, eta Elizondon izanen ditugu lehendabizikoak, urriko azken ortzirale eta larunbatean.

Herriko karririk jendez beteko dira hilaren 27an eta 28an; postuak, azienda, makinaria... aunitzendako galdu ezineko hitzordua.

mañonea ONGI PASA FERIAKI



ASEGURUAK

AGENTE ESKLSIBOIA
Enregistro Dela: C007287193304

www.mañonea.com

Kontable, zerga, lan eta juridiko
AHOLKULARITZA
Barride komunitateen kudeaketa
(administrazioa, kontuak...)

Braulio Iriarte karrika, 9
ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43
info@mainonea.com

**INTZA
TABERNA**

Ongi
pasa
feriak!

T. 948 580 417



**BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK**

*Mendi
ostatua*



Eguneko menua

Bokatak · Pintxoak · Razioak · Pizzak

Deltu eta egin erreserbat

Goizeko 8etatik gauerdirarte
T. 948 580 313



Tel.: 948 580 257
Jaime Urrutia, 26 • Elizondo

OHISI PASA FERIAKI!

ESKISAROI

J A T E T X E A

Elizondo / T. 948 580 013 / www.eskisaroi.eus

hiru

BERTAN JAN edo ERAMATEKO
Deskargatu gure APPa eta egin
zure eskaera

... betikoa baina ezberdina

INGU PASA FERIAKI

Kaxulak,
plater konbinatuak,
bokatak, pizza,
hanburgesak,
ensaladak, fritoaek...

Etomi eta dastatu gure
bereiztasunak!

Baztan Berri 7 B | ELIZONDO | T 948 581 219

LABORRA ARKITEKTOAK
- Gabriel & Ines -

Santiago 66, 1º - Elizondo - 948 580 122

- Etxebizitza berriak
- Zaharberitzeak
- Hirigintza
- Ziurtagiri energetikoak
- Eraikinen Ebaluazio Txostenak (EET/IEE)

www.laborra.com

DISEÑADOR
DISEÑADOR
CERTIFICADO
PASSIVHAUS

EGUZKIALDE OSTATUA

Ongi pasa feriak!

Eguneko menua
Errazioak
Entsaladak
Sandwichak
Hanburgesak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak

T. 948 45 26 26 - Santiago 43 - ELIZONDO



Postuak

Urtero bezala, 300 postu inguruk beteko dituzte Elizondoko karririk ferietan. Bertakoak zein kanpotik etorritakoak, gustu guzizko produktuen salmenta izanen da: jatekoak, arropak, jostailuak, diskoak, artisauek, motxilak, galtzerdiak, diruzorroak... betitik etortzen direnak dute lehentasuna, baina aurten 40

bat postu berri izanen direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Eta noski, ortziraletan azientak beteko du Merkatuko plaza. Behiak, ardiak, zaldiak... 500 azienta buru inguru biltzen dira urtero eta aurten ere kopuru berdina aurreikusi dute. Laxoko frontoian, berriz, nekazaritzako makinak, tresnak eta lanabesak izanen dira nagusi.



BAZTANDERRA S. COOP.

NEKAZARIEN ZERBITZURA
Pentsuen fabrikazioa, abonoak,
gasolioa, fitosanitarioak, aseguruak,
nekazaritzarako tresneria eta haziak

ORDOKI AUZOA, z/g - ARIZKUN
T. 948 45 33 10



Gasna lehiaketa

Joan den urteko arrakasta erre-pikatu nahian, aurten ere Elizondoko Ferietako Ardi Gasna Lehiaketa eginen dute Iriarte frontoian, bigarren urtez.

Iaz eskualdeko hamar gasnagilek parte hartu zuten, eta Lekarozko Kortariko gasna nagusitu zen hiru sarirekin: gasna hoberena, Baztango gasna hoberena eta gasnagilerik gazteena. Lesakako Agorleku gasnategiak lortu zuen bigarren saria eta Berako Sokorro Almandozek hirugarrena. Gasna sarituak enkantean saldu zituzten 510, 150 eta 100 eurotan, hurrenez hurren.

Lerro hauek idazterakoan izena emateko epea irekia dago eta, beraz, aurten ez dakigu zenbat parte hartzaile izanen dituen lehiaketak. Baina argi dago gasna maite duetenendako galdu ezinezko hitzordua izanen dela!

Dena prest

Urtero bezala, bertze hainbat ekitaldi eta egitasmo izanen dira herritarrendako asteburuan. Kirolak ere bere tartearen du, eta Aspeko profesionalen pilota partida izanen da frontoian.

Saharaztan elkarteak tonbola solidarioa paratuko du Oporrak Bakean ekimenerako dirua biltzeko. Eskualdeko komertzioek emandako produktu eta zerbitzuak izanen dituzte bertan.



Ongi pasa feriak!



Braulio Iriarte 16, Elizondo
948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com



ELBETEKO POSADA

Udazkeneko Feriko
Menu Berezia

Karrikaundi • ELBETE • T. 948 581 519

info@posadaelbete.com • www.posadaelbete.com





Auto, furgoneta, 4x4 eta kamioien konponketa, mantentze-lanak, mekanika, elektrizitate eta pneumatikoen salmenta.
2. eskuko kotxeen salmenta.

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847
bztangoiza@yahoo.es
www.bztangoizataillerrak.com



NEKAZARITZA ETA INDUSTRIA TRESNEN KONPONKETA
ALOKAIRU ETA SALMENTA

Ordoki industrialdea - 31713 ARIZKUN
Tel.: 948 453 343 - administracion@berrobide.com

ESKABAZIOAK
ELIZONDO

650 374 146
ELIZONDO



ANZABAL
Inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Auzo, epeko bizi, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Ongi pasa feriak!!



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

«Eskuekin egiten dugu lan, nire aitatxi-amatxik bezala»

Arrate VILLAMOR BERGARA · La Exquisita



Baztandar aunitzendako ezinbertzeko geldialdia da ferietan La Exquisita txurro-denda, urte luzez herrira etorri dena. Txurrogile tradizioko familia bateko hirugarren belaunaldia da Arrate Villamor, eta ttiki-ttikitatik ikasitakoa egiten segitzen du gaur egun. «Aitatxi-amatxi eta gurasoak txurrogileak izan dira beti, beraz, ni honekin sortu nintzen. Haurretan ez nuen estudiatu nahi, eta gazte hasi nintzen etxean lanean».

Manolo senarrarekin ezkontzean, «txurro-denda bat ireki genuen, eta Errioxatik ibili ginen herriz herri. Aita jubilatzean bi dendak elkartu genituen; bera ibiltzen zen herri batzuk hartu genituen eta bertze batzuk utzi».

Ongi ezagutzen du Elizondo, izan ere, «6-7 urte nituenean hasi ginen etortzen, eta aitak, hil aitzinetik, herri batzuetara joaten segitu beharra nuela erran zidan, eta horietako bat izan zen Elizondo. Zerbait berezia dauka herri honek. Beranduago apartamentu bat erosi genuen hemen, eta guretako etxea da gaur egun».

Ezagunak dira bertako txurroak, eta aunitzendako, goxoenak. «Gaur egun makina aunitz erabiltzen dira, baina gurea artisau lana da, eskuz egiten baitugu dena, nire aitatxi-amatxik egiten zuten bezala. Garrantzitsua da ere osa-

gai onak erabiltzea; olio, irina... produktu onekin emaitza ona lortzen da». Hortaz, etorkizun ona ikusten dio txurrogintzari, «betiere gauzak ongi eginez gero. Artisautza galtzen ari da, orain dena industrialia baita, baina eskuekin lan egiten segitzen dugunok etorkizuna ona dugula uste dut».

Bizimodu berezia

Ferietako saleroslearen bizimodua «gogorra» dela azaldu du txurrogileak; «gaztea zarenean dibertigarria da bestaz besta ibiltzea, eta erraz jasaten duzu, baina urteekin nekea geroz eta gehiago nabaritzen da. Gainera, nik ez daukat sustrairik. Berdin zait hemen bizitzea, Arrasaten, Lekeition edo Logroñon. Ez naiz inon errotu». Hala ere, aitortu du «zailena» haurrak edukitzean datorrela; «etxean utzi behar dituzu lanera joateko eta gogorra da.». Dena den, «kontent nago gure negozioarekin, eta datorrena datorrela, eutsiko diogu».

Familia tradizioak segida izanen du, baina bertze modu batez: «gure semeetako bat ere txurrogilea da, baina Arrasaten egin du bere bizitza. Bere haurrak bertako eskolara doaz, eta inguruko herrietan aritzen da lanean, lo egiteko etxera bueltatu ahal izateko. Bertze modu batean planteatu du bere bizia. Nik ez nuen aukerarik izan, baina berak bai; eta aukera ona hartu duela uste dut».

ALMACO Eraikuntzako materialak

Santiago 93, 31700 Elizondo

www.almacobazan.com

Tel. 948 580 104



NEKAZARITZARAKO TRESNERIAK

Orain Kubota ere!



BISITA GAITZAZU ELIZONDOKO FERIETAN!!!



ARAZ-BERRI, S.A.

Tel. 948 581 021 / 948 580 258

irurita@arozberri.com - Ctra. NA-8307, km 0'8 - 31730 IRURITA (Navarra)

www.arozberri.com



Estefika aurreratua · Aurpegiko eta gorputzeko bioterapiak · Presoterapia · Manikura- Pedikura

eta askoz ere tratamendu personalizatu gehiago eskaintzen dizkizugu!

Santiago, 59 behea - Elizondo
Tel. 948 10 32 00 - M. 676 14 00 81



«Feria lan haundiko eguna da guretako»

JEXUX URRUTIA JAUREGI · Aroz Berri

Duela 46 urte ireki zuten Aroz Berri Baztanen. Jexux Urrutiak azaldu bezala, «lehenbizi Elizondon egon ginen urte batzuz eta ondotik Iruritarra joan ginen, orain gauden lekura». Bertan «aunitz» haunditu zen negozioa; «Elizondon leku ttikia genuen eta bertze lanak egiten genituen. Hasmentan behorrekin erabiltzeko tresneria eta horrelakoak saltzen genituen, pixkanaka traktore ttikiak sartzen hasi ginen eta gero haundiagokoak». 2007an bigarren tailerra ireki zuten Oriainen.

Gaur egun, nekazaritzarekin eta basogintzarekin lotutako makinerian eskaintza zabala dute, eta

konponketak ere egiten dituzte. Izan ere, «bezeroendako arras inportantea da zerbitzu bat ematea eta saltzen duguna zaintzea».

Teknologia aitzinera doa, baita nekazaritzaren munduan ere. «Gaurko egunean traktoreak, haziak botatzeko makinak, tresnak... ordenadorearekin etortzen dira gehienak. Teknologia hori erabiltzen eta konpontzen jakin behar da, bertzenaz ez dugu deus egitekorik». Hala ere, aitzinamendu hauek «beharrezkoak» ikusten ditu; «belaietan erremedioa botatzeko, adibidez, sistema hauekin kalkulatzeko ahal duzu deus ez galtzeko, edo leku berean bi aldiz ez emateko».

Goizalde ostatua



Ongi pasa feriak!!

Pintxoak
Eganea menu
Karta
Plater kombinatuak
Opatartekoak
Entsaladak
Hamburgesak
Errozkoak



Jaime Urrutia 8 · ELIZONDO · Tel.: +34 948 58 13 34 · goizaldeostatua.com

BAZTAN MOTOR S.L.

TXAPA ETA PINTURA | MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA



ONGI PASA FERIAKI

Zaldubia Industrialdea 31730 IRURITA
T. 948 45 21 19 • 948 58 06 55



PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

1

KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadetan gutxi integratuak. Portal barrikat sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2

BARRUKO IGOGAILUAK

Eskalerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrikat, inongo estroparik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpuzkailuan daudenentzako egokitua.

3

IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpuzkailuan daudenentzako pertsonentzako sarbidea egokitzen da. Azkar egiten dituzte lanak, eragozpen minimoak sortuz.



EZ ZAITEZTE KEZKATU!
gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra balmenak tramitatu, dirulaguritzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 73 | ELIZONDO | M 619 424 999 | suteia@suteiazaldain.com

Ferietarako prest

Batuendako paseoa ibiltzeko egunak izaten dira feriak, baina Urrutiarendako lan eguna da. Traktore eta makineriaren erakusketan parte hartzen dute urtero; «bezperatik hasi eta ondoko egunera arte makineria ekarri eta bildu, zaindu...

lan haundia da. Ikuskizunaren parte gara, herria kontent egoten da eta guk gure makinak aurkezten ditugu». Aspalditik aritzen dira; «lehen feria bi astero egiten zen, larunbatetan. Pixkanaka lekutuz joan zen, udaberri eta udazkenekoa egin arte, eta gaur egun urrian bakarrik egiten da. Hemen bezala, leku guztietan gero eta bakanagoak dira eta jendeak Internetean begiratzen ditu produktuak. Feriak akitzten ari direla erranen nuke».

Hala ere, erakusketan goiti egin du eskaintzak; «lehen gutti ginen eta nahi genuen lekua hartzen genuen, baina orain herriak banatzen ditu lekuak». Gainera, «jende aunitz ibiltzen da aziendak eta makinak ikusten, gehienbat Iparraldekoak».

«Gazteek interesa dute makina eta teknologia berrietan»

Gazteen artean ere interesa ikusten du makina eta teknologia berrietan, «prestatuagoak baitaude eta gehiago ulertzen dute». Izan ere,

nekazaritzak segitzeko, «afizioa izatea garrantzitsua da. Egia da lehen nekazari gehiago izaten zirela, baina aunitzek bigarren lanbide bezala izaten zuten. Gaur egun gorabehera gehiago izaten dira eta nekazari guttiago dira, baina profesionalki aritzen dira. Nekazaritzak segida badu, baina bertze modu batez».



Tel. 948 452 394
Saskatx Plaza,
31700 Elizondo

Maite Petrarena

Aseguru agentzia - Agencia de seguros **Allianz**

ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK

Santiago 31 • ELIZONDO
Tel. 94 580 234
www.ferreteriaquevedo.com

arteka

ARKITEKTURA ZERBITZUAK

www.artekabaztan.com

Balda Medikua Plaza, 1-1A | 31700 ELIZONDO
948 580 610



«Tonbolako dirua saharar herriari laguntzeko erabiltzen dugu»


Raul FERNANDEZ YOLDI · Saharaztan

Gureaut 
TAILERRAK

ongi pasa
feriak!!

Mekanika, elektrizitatea,
Ibilgailuen salerosketa

Zaldubia Ind. IRURITA | T. 948 580 225
M. 619 328 145 | gureauto2@gmail.com



ARKUPE
Txokolataak
1984

IRURITA
Dukasa plaza
T. 948560059
T. 948452021
(Obradoiroa)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T. 948452393

www.arkupetxokolata.com

«Saharar herria laguntzea eta pairatzen duen egoerari ikusgarritasuna ematea». Hori da Baztan-Bidasoko Saharaztan elkarteak duen helburua. 2007an sortu zen taldea: «hainbat urtetan, Baztan-Bidasoko eta Leitzako jendea Sahararen alde lan egiteko elkartzten zen, eta lana eskualdera murgiltzea erabaki zen». Saharaztan izena «bi herrien arteko hitzen batura izateaz gain, zelan hitzarekin hassaniara (sahararren hizkuntza) hurbiltzen gara, herria erran nahi baitu».

«Duela urte pare bat» sartu zen Raul Fernandez erratzuarra elkarteak; «udan harremanetan paratu nintzen taldearekin harrera familia izateko, eta geroztik ahal dudan neurrian laguntzen saiatzen naiz. Hala ere, gaur egun elkarteak gehiago laguntzen nau, nik bera baino». Sahararrek kamentuetan bizi duten egoeraz sentibilizatzeaz gain, «elikagaiak, arropa, sosa... biltzen ditugu, karabana solidarioetan laguntzen dugu eta udan Oporrak bakean programa egiten dugu hango haurrak etor daitezten».



Urteroko dinamika

Urte osoan aritzen da lanean elkarteak. «Otsailaren 27an Sahararako Arabiar Errepublika Demokratikoaren eguna da, eta elkarretaratzeak eta sentsibilizazio ekintzak antolatzen ditugu. Udaberri aldera harrera familiak bilatzen hasten gara, udan Saharako haurrak hartzeko, eta dinamika horretan aritzen gara uda osoan, familiak laguntzen. Irailean familien topaketa egiten dugu eskualdean, esperientziaren balorazioa egiteko, eta ferietako tonbola prestatzen hasten gara. Egoeraren arabera, bertze jarduerak ere antolatzen ditugu».

ELIZONDOko
plazan
EROSKI CITY

Asteleheneetik Larunbatera:
09:00-21:00

Santiago 12 · ELIZONDO
T. 948 580 005



BEAARRAINDEGIA

esarte 



«Egoera arras larria»

Duela 40 urte baino gehiago okupatu zuen Marokok sahararren lurraldea. Geroztik, «erbestean eta baldintza gogorretan» bizi dira Argeliako basamortuko kanpamentuetan, «eta gerran daude. Herri bezala antolatzen saiatu arren, gabezi aunitz dituzte elikaduran, osasun arretan eta hezkuntzan. Gainera, kanpoko laguntza geroz eta eskasagoa da».

Horregatik, «elkartera hurbildu eta dinamiketan parte hartzea» animatu du jendea. Tonbolari dagokionez, «norbaitek lagundu nahi badu, gurekin harremanetan jar daiteke saharaztan@hotmail.com helbidearen bitartez. Edozein motako laguntza ongi etorria da».

Oporrak bakean

«Estatu mailan martxan dagoen ekimena» da Oporrak bakean, eta ANASeK kudeatzen du Nafarroan. Haur errefuxiatuei sufritzea tokatu zaien errealitateetik denboraldi batez ateratzea du

helburu programak. Saharaztanez «egitasmori laguntza ematen dio; informazioa zabaltzen, tramiteak nola egin azaltzen eta bidaiak ordaintzeko ekonomiko-ki laguntzen». 70 haur etorri dira aurtengo udan Nafarroara, eta eskualdera bederatzi: «uda gogor batetik ateratzen diren haurrak dira». Aitortu duenez, «ez nuke erranen lehenbizikoz gustura etortzen direnik, egoerak behartuta baizik. Familia eta lagunak uzten dituzte mila kilometrotara bizi diren ezezagun batzuegana joateko. Baina hemen arras gustura egoten dira, horretan ez dut zalantzarik. Negarrez etortzen dira eta negarrez bueltatzen dira».

Raulek haur bera hartu du etxean azken bi udatan; «maila pertsonalean aberasten zaitu, harreman eta bizipen berriak emanez. Saharar herrira hurbiltzeko ere balio izan dit, eta jendearengandik jasotako babesa eta laguntza arras polita izaten da. Oro har, arras esperientzia polita da».

asegi asesorías ^a

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuaren Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eltzeta, 20
31770 LESAKA
T. 948 638 077

ITURRIA

VIVIENDAS

PROMOZIO ETA ERAIKUNTZA

Laster Iruritan
industria-nabeak
eraikiko ditugu

Baztanberri 2, ELIZONDO
Iharte Monastegia 2, IRUÑEA
info@iturriaviviendas.com · www.iturriaviviendas.com
T. 674 880 306



BB BLOK BAT

TALLERES

Ongi pasa feriak!

www.biokbat.com

Talleres BLOK BAT, SL • Santiago, 85 • ELIZONDO • Tel. (0034) 948 580 898

MOTOSIERRA
120 MARK II

199€



2024/01/31ra arteko balioko eskaintza

ONGI PASA JERMAN

Malkorra

Txokolatea urrakin egina
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia

Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO
www.malkorra.com

Bertan egindako ardi gasna
Behi eta ahuntz gasnak saltzeko
Zenderena
Gaztanbera
AndalorEKO ogi ekologikoa

Autxitxia

«Ongi pasan, Feri!»

Jaime Urutia, 32 - ELIZONDO
948 45 57 30
autxitxia@gmail.com

BAZTAN
BIZTAN
BIZTAN

Albaitaritza

www.albaitaritza.com
Tifno.: 948 580 980

Materiala
Botika
Hazia

Osagarri mineralak
Bildots eta aratxeendako esnea
Xaboi eta desinfektatzaileak

Albaitack

Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak

www.albaitack.com
Tifno.: 948 506 169

ALBAIKIDE

Tifnoa.: 902 169 169
www.albaikide.com
Albaitari zerbitzua



Tonbola prestatzen

Egitasmoarendako dirua lortzeko, elkarteak tonbola paratzen du urtero Elizondoko ferietan; «komertzioen zerrenda hartu eta banan-banan haiengana jotzen dugu laguntza eske. Bildutakoa antolatzen dugu boletoretan sartu ahal izateko eta azkenik sariak prestatzen ditugu posturako». Gainera, «aurten kamisetak, poltsak eta materialak egin ditugu postuan saltzeko».

Komertzio eta erakundeek «aunitz» laguntzen dute, «norbere jarduerari dagokion produktu eta zerbitzuak ematen. Eskertzekoa da inplikazioa eta laguntzeko prestutasuna». Argi utzi du «bartzuetan Baztan mailan aritzen garen arren, eskualde osoko elkarteak gaita; Malerreka, Xareta eta Bortzirietakoa ere. Tonbola eta ekimenak eskualde osoan zabaltzea da gure xedea, eta harrera familia izateko aukera ere dute».

Honez gain, «herritarrek maila pertsonalean ere bere aportazioak egiten dituzte, tonbolaren egitasmoa sare sozialen bidez zabalduz, adibidez. Eta nola ez, ferietan herritarren parte hartzea ezinbertzekoa da dinamika behar bezala ateratzeko».

Lortutako dirua «neurri batean haurren bidaiak ordaintzeko» erabiltzen dute, «baita martxan dauden bertze ekintzetan laguntzeko ere: ur deposituak instalatzeko, eskoletan materialak banatzeko... Saharak behar aunitz ditu».

Etorkizunera begira, «desagertzea da gure asmorik haundiena, saharar herriak bere etorkizuna eta bidea libreki kudeatuko duenaren seinale izanzen delakoz». Birtartean, «udan eskualdera geroz eta haur gehiago ekartzen saiatuko gara. Jendea harrera familia izatera animatu nahiko nuke hemendik».



Errotulazioan eta diseinuan aritzen gara. Egin nahi duzun proiekturako hairbat proposamen ditugu eskaintzeko, eta hori gauzatzen lagunduko dizugu.

Kristalak tindatzea · Autoak errotulatzera · Inprimatze digitala
3Dko kartel argidunak · Eranskailuak eta kartelak pertsonalizatzea
Lokalak errotulatzera · Kanpo seinaleak
Publizitate-olanak · Bisita-txartelak, albaranak, etab.

Pol. Ind. Zaldubia, 1
31730 Iruirita (Nafarroa)

☎ 948 58 09 77 ☎ 647 00 63 36



Hilabete hasieran aurkeztu zuten proiektua. EHNE SINDIKATUA

Lehen sektorean erreleboa sustatzeko kanpaina abian

Nafarroako EHNE sindikatuak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Nafarroako Gobernu Hezkuntza departamentuak bultzatu dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako lehen sektorean belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko asmoz, kanpaina hasi dute Nafarroako EHNE sindikatuak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Nafarroako Gobernu Hezkuntza departamentuak. Bide horretan, bideo bat prestatu dute DBHko 4. mailako eta LHko ikasleak dauden ikastetxeetan erakusteko, nekazaritza- eta abeltzaintza-ingurunearekin lotutako ikasketen aukeraketa sustatzeko eta, horrela, landa ingurunean segida ahalbidetzeko. Dokumental horretan lehen sektoreko zortzi profesionalen iritziak bildu dituzte, eta tartean da Arizkun Baztango ardo zuri ekologikoa ekoizten duen Ana Iriarterena.

Gisa berean, «heldu den ikasturtean nekazaritzaren etorkizunarekin lotutako jarduerak» egin nahi dituzte, bertzeak bertze, «elikadura subiranotasuna bezalako kontzeptuak landuz eta ikasleen ekimenen bidez belaunaldien arteko erreleboa bultzatuz». Gisa honetara, «komunikazioan eta gizartean protagonismo berezi-

rik ez duen lanbide bat ezagutarazi» nahi dute. Izan ere, oroitarazi dutenez, «gizateriaren biziraupenerako funtsezko lanaz arduratzen da, hau da, elikaduraz».

Unitate didaktikoa

Bideotik haratago, honela nabarmendu du EHNE sindikatuak: «baliabide horretatik abiatuta, Hezkuntza Departamentuarekin harremanetan jarri gara mezua zabaltzeko eta ikasgeletan lantzeko, unitate didaktiko bat balitz bezala». Unitate horren helburuak «landa lana duintzea eta lehen sektorea lanerako aukera erakargarri gisa baloratzea, Nafarroako nekazaritzan genero berdintasuna sustatzea eta elikadura onaren inguruko kontzientzia politikoa hartzea» dira.

Jarduera ikasleentzat didaktikoagoa izan dadin, erredakzio lehiaketa bat ere eginen dute *Lehen sektorearen garrantzia* gaitzat hartuta. Egokienak diren bi lanen egileek, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan, nekazaritza eta abeltzaintzako instalazio bat bisitatuko dute.



Jose Manuel Iñarrea Marta Martín Deia egunkariko zuzendariarekin. UTZITAKOIA

Hemendik Saria eman diote Jose Manuel Iñarrea erratzuarrari

TTIPI-TTAPA ERRATZU

Draveten sindromeari ikusgarritasuna emateko mendiz mendi dabil azken urteotan Jose Manuel Iñarrea Rekarte erratzuarra. Eta berriki tontorrez tontor egiten ari den ekimen solidario hori aitortu diote. Laboral Kutxa Deia Hemendik Sarien XVI. edizioko sariak banatu zituzten urriaren 5ean Mungialdean (Bizkaia) eta zortzi lagunek eta taldek egindako ibilbidea aitortu zuten. Sarietako bat Laukizen (Bizkaia) bizi den Iñarrearendako izan zen.

2.000 metrotik goitiko 50 mendi tontor baino gehiago zanpa-

tu ditu dagoeneko. 2017tik Aconcagua (6.961 m), Mont Blanc (4.809 m) eta Cervinora (4.478 m) igo da, eta bortz egunez Pirinioetan ibili da uda honetan, Aneto (3.404 m), Posets (3.368 m), Monte Perdido (3.355 m), Vignemale (3.298 m) eta Balaitús (3.144 m) igoz. Pic Long (3.192 m) eta Neouvielle (3.091 m) ere igo ditu udan, bi egunez. Afrikako Kilimanjaro (5.895 m) du begiz jotako hurrengo erronka. Pare bat aldiz gibelatu behar izan du, eta azkenean, otsailean eginen duela iragarri du. Gaineratu duenez, Himalaiara ere joan nahi du.



JM ONDIKOL

Ehiza jardunaldi gastronomikoak martxan

Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak antolatu dituen Ehiza Jardunaldi Gastronomikoen barrenean, azaroaren 30era arte eskualdeko zortzi jatetxetan ehizari lotutako menuak eskainiko dituzte. Aurkezpena urriaren 10ean egin zuten. Xehetasun gehiago 839. aldizkarian eta ERRAN.EUS atarian.



Hainbat zugarramurdiar eta saratar agertu ziren proiektuaren kontra. G.PIKABEA

'Arxuria ez hunki!' eskaria egin dute herritarrek

Parapente eta delta hegal erabiltzaileak kaxkorat errazago ailegatzeko pista egitearen kontra agertu dira

MARIFA ETA KORO

Ezuste handia izan genuen abuztuko lehenbiziko egunean Madaria auzoan: makineria ekarri baitzuten bidea zabaltzen hasteko asmoz, nonbait Arxuria aldera parapenteak eta delta hegalak sartzea errazteko. Herriko etxeak ez zuen batera lan horren berririk, baimena Baztango Udalak emana zuelako, eta herrian ez da bide horren beharrik ikusten, bide horrek ez baitu nehorat eramaten. Segidan, herriko etxea, Sara-koarekin batera, Baztango Udalarekin jarri zen harremanetan baimen hori bertan behera uzteko eskatuz, baina irailaren 28an jakin zen baimenak aitzinera segitzen zuela. Ondorioz, bi herrien artean mobilizazio eta bilkurak egin ziren, berriz ere Baztango Udalarari eta parapente eskolari proiektua gelditzeko eskatuz. *Arxuria ez hunki!* goiburupean prentsaren aitzinean ere agertu zen herritar eta saratar talde bat. Proiektuaren deuseztatzeko «arrazoi aunitz» daudela aipatu zuten. Alde batetik, «Zugarramurdik tu-



Proiektua zentzugabekieratzat jo dute.

rismo masiboarekin aspaldi gainezka» egin duela, eta egin nahi duten pistarekin, «turismo fluxu handi hori gure mendietara hedatuko» dela salatu zuten. Horrekin batera, «naturan izanen dituen kalteak» esplikatuz zituzten, eta proiektua bera «izigarriko zentzugabekeria» iruditzen zaiela ere nabarmendu zuten.

Berri hau idazterakoan, bertze mugimeta bat izan dela jakin dugu: proiektua gelditzeko eskaera berriz ere aurkeztuko dute Baztango Udalean, eta aldi honetan bai, ez egitearen aldekoak izanen dira boto gehienak. Hala aterako ez balitz, urriaren 21ean manifestazio bat deitua da Elizondon.



Urdazubi eta Zugarramurdiko jubiloteka garai hobekoetan. ARTXIBOKOA

Urdazubi eta Zugarramurdiko jubilotekak bertan behera utzi du zerbitzua oraingoz

MARIFA ETA KORO

Pena handiz, baina Urdazubi eta Zugarramurdiko jubilotekak momentuz zerbitzua alde batera utzi behar izan du. Zortzi urtez martxan egon da, eta momentu batean hamasei lagun biltzera ailegatu baziren ere ere, gauza da gaur egun lau lagun bakarrik joaten direla martxa normalean, eta urriaren 6ean elkartu ziren azkeneko aldiz.

Dirudienez, zerbitzua martxan mantentzeko beharrezkoak dira sei lagun bederen, eta hori lortu arte, ezin da zerbitzua eman. Jubilotekan

soinketa, memoria lantzeko ariketak, eta bertzelako errehabilitazio ariketak egin izan dituzte, beraiek proposatutako bertze ariketekin batera.

Izena emateko aukera

Norbait animatzen bada, jakin dezala astean bitan elkartzeko direla (astelehen eta ortziraletan, arratsaldean, 15:30etik 19:30era). Herri batetik bertzera mugitzeko garraioa dohainik da, hilabeteko kuotaren barne (30 euro edo 40 euro). Informazio gehiago edo izena emateko, deitu telefono honetara: 659 84 95 70 (Amaia).

Frontoiaren erabilera antolatu du udalak

Frontoiaren erabilera antolatu behar izan du udalak. 16:00etatik 18:00etara herriko haurrentako da, eta hortik kanpo bertze hiru erabiltzaile daude. Libre den orduetan herritarrek dute lehentasuna. Erreserbatzeko, herriko etxean egin behar da eskaera.

Sanoki ostatu mus txapelketa abiatuko da

Sanoki ostatuak mus txapelketa bat antolatu du. Urriaren 20an, 27an, eta azaroren 3an jokatu dituzte partidak, eta finala azaroren 11n. Txapel-dunen saria 1.000 eurokoa da, eta txapel-dunordeena 500 eurokoa. Bertze sari batzuk ere ba omen dituzte.

Ainhoa Altzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com



Hainbat lagun bildu ziren hartzen buru-hezurak ikustera. ARANTXA ETA IRAIA

Alkerdiko hartzen buru-hezurrek ikusmina piztu dute

Europako Ondarearen Jardunaldiaren barrenean solasaldia eman zuen Asier Gomez paleontologoak eta EHUko irakasleak

ARANTXA ETA IRAIA

Urtero hitzordu berezia izaten da herrian irail bukaeran edo urri hasieran: ondareari me-rezi duen garrantzia eman eta Berroberriko leizeetara sartzeko aukera ematen da. Aurtten, urteroko bisita bereziaz gain, kultur etxean Alderdi-2 lezean atzemandako hartzaren buru-hezurak ikusteko aukera izan zen. Leize horretan emandako aurkikuntzez mintzatzeko EHUko irakasle eta doktore den Asier Gomez hurbildu zen kultur etxera eta azalpenaren ondotik, pieza ikusteko aukera izan zen. Gero,



Buru-hezurretako bat hurbiletik.

Berroberriko leizeetara bisita egin zuten, lezeko ikono bihurtu den bisontearren marrazkia ikusi ahal izateko. Urteroko gisan jende andana bildu zen herriko altxor hauek ikusteko.

Arto pikatzen traktoreak lanean eta haurrak ikusle izan dira aurtien ere

ARANTXA ETA IRAIA

Irailaren finitzean ere izan zen zer ikusi belaietan. Arto pikatze lanen denbora izaki, arto pikatzaileek eta traktoreen mugimenduak bete zuten herria eta haurrak hurbildu ziren ikustera. Nekazaritzak badu segida herrian!



Arto pikatze lanetan. ARANTXA ETA IRAIA



ARANTXA ETA IRAIA

Iribere auzoko bestetako bazkaria

Irail hasieran Leorlas auzoko bestak ospatu zituzten eta, berrikiago, urriaren 7an Iribereko auzokideek Koxkan bazkari batekin ospatu zituzten haien auzoko bestak ere. Modu xumeago batean bada ere, auzokideek seinale polita egin zuten eta giro ederrean pasa zuten eguna.



UTZITAKOA

Alzuyet familia munduko txapelketan

Iñaki Alzuyet Torres eta Aiora eta Nahia Alzuyet Oiartzabal aita-alabek munduko Kenpo Kai txapelketan aritu dira Tunezen Euskal Herriko selekzioarekin. Nahiak zilarrezko eta brontzeko domina ekarri ditu (12 urtez beheiti), Aiorak zilarrezkoa (12-16 urte) eta Iñakik brontzekoa (45 urtetik goiti).

Montxo
BATEA - ERBETEGIA
Tradizioa, historia eta gastronomia
asadormontxo.com

Akuler karrika, 12
31711 Urdaizubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com



Joan den urteko elkarretaratzea Ainhoan. GANEX

Beti Gaztek urriaren 28an egingen du elkarretaratzea

Urteko azken hitzordua urriaren 28an izanen dute Ainhoako Ur Egui jatetxean

GANEX

Beti Gazte erretiratuaren elkarrekin egingen du bere aurtengo azken elkarretaratzea urriaren 28an, larunbatez, Ainhoako Ur Egui jatetxean, bazkari batekin. Menua: sangria, aitzinekoa, legatza Ur Egui gisara, ahate fileta sasoineko barazkiekin, gasna erretximentarekin, udare *belle helene*, arno beltz eta gorria, kafea ondo koarekin. Prezioa 40 euro izanen da, baina 32 euro erretiratuaren karta duenarentzat.

Zuen izenak eman urriaren 24a baino lehen deituz: Jeannot Etxeberrigarai (05 59 54

21 34); Maite Imaz (06 31 62 90 66) edo Anita Bats (06 28 28 08 24). Beraz erretiratu guztiak gomiatuakzarete egun goxo baten pasatzera, denak elgarrekin.

Urriaren 11n Bardozerat ateraldia egin zuten Beti Gazteko bazkideek, eguraldi ederra lagun.

Xaldamarren erakusketa

Bernard Zamora *Xaldamar* saratarraren margolanak ikusgai izan dira Suharriagan urriaren 7tik 8rako aste hondarrean. Herritar anitzek ikusi zituzten bere artelan ederrak.



Ellande Alfaro, Haira Aizpurua eta Etxahun Azkarraga, Urtxolan. UTZITAKOIA

Lizaieta taldea nagusitu da Urtxolako taldekako Xilaba txapelketako saioan

TTIPI-TTAPA SARA

Irailaren 30ean jokatu zuten Sarako Urtxola jatetxean Taldekako Xilaba Txapelketako saioa. Sarako eta Etxalarko bertsolariek osatzen duten *Lizaieta* taldea (Ellande Alfaro, Haira Aizpurua eta Karlos Aizpurua saratarrak eta Etxahun Azkarraga etxalartarra) eta *Kakoiak* taldeak aritu ziren lehian eta lehen taldea nagusitu zen.

Giro biziki polita izan zuten Urtxolan. 60 bat lagun elkartu ziren saioaz gozatzeko eta jendea kanpoan gelditu zen ezin sartuz. Inguruko herrietatik ere bertaratu zen Sarara saioa ikustera: Zugarramurditik, Urdazubitik, Azkainetik... Saioaren ondotik afaria egin zuten eta bertan ere jende andana bildu zen.

Lizaieta taldekoak hurrengo saioa urriaren 13an, joan den

ortziralean, jokatzekoa zuen Hazparmeko Xuriatea ostatuan *Hazparke* taldearen kontra.

Lehen fasean, hiru multzotan banatuta ligaxka fasea jokatzeko ari dira Xilaba taldekako txapelketa eta urriaren 20an bukatuko da. Bigarren fasean finalerdiak jokatu dituzte urriaren 28an Muskildin eta azaroaren 4an Azkainen. Finala, aldiz, azaroaren 18an izanen da Aiherran.

Lizaieta taldearekin batera, *Ipiñitzeko bertsuak* taldea ere ari da. Oihan Diaz, June Diaz, Kerman Diaz eta Aimar Karrikarekin batera, Hendaian sortu, baina, Lesakan bizi diren Josu Txoperena eta Maddi Ane Txoperena bertsolariak dira talde honetako partaide. Urriaren 6an Hendaia gaztetxean aritu ziren eta hilaren 15ean Baionan aritzekoak ziren.

Kalakan taldeak eta zenbait musikarik kontzertuak eman dituzten lezeetan

TTIPI-TTAPA

Zazpigarren urtez segidan, Kalakan taldeak lezeetan kontzertuak eman ditu. Hiru egunez izan dira emanaldiak, eta hainbat talde gonbidatu dituzte emanaldietara. Hiru egunetan lezeak jendez bete dira emanaldiak ikusteko. Hi-

laren 6an Argentinako Agumadera taldea izan zuten gonbidatu; hilaren 7an, Bigorreko Alegria taldeko abeslariak eta Lohitzuneko Berçaits anaiak eta igandean, Iruñeko Hutsun txalaparta taldea eta Xabi Aburruzaga trikitilari bizkaitarra.



Kalakan taldekoak lezeetan jotzen musikari gonbidatuekin. UTZITAKOIA



Solange Añorga, Euskadiko Orkestrako bi musikariek. JL BESSONART

Kantaldi bikaina eskaini du Solange Añorga sopranoak

Euskadiko Orkestrako bi musikariren laguntza izan zuen elizan emandako kontzertuan

JL BESSONART

Azken momentuan, uste baino jende gehiago hurbildu dira Solange Añorga sopranoaren kantaldia entzutera, Euskadiko Orkestrako bi musikariren laguntzarekin, elizaren gerizan. San Frantziskon sortua, Solangek bere haurtzaroa Baigorri iragan du eta kantuz ongi inguraturik, Erramun Martikorena baitu osaba. Bere ibilbide profesionalen mundu guzira zeharkatu du, adibidez Pariseko Opera Garnier, Milango Scala edo New-Yorkeko Lincoln Center. Denak lorietan geldi-

tu dira holako musika eta euskal kantaz gozaldia hartu ondoan, batetik boza xoragarrria bertetik harpa eta biolontxelo jotzaile goi-mailakoak.

Azaroan ere musika

Azaroaren 11n kantaldia antolatu du Segi Aintzina elkarteak Larrekon. 17:00etan hasita ariko dira Patxi Garat, Bost Axola, Yannick Telletxea, Maina Ortiz eta Kurruka. **Azaroaren 12an**, elizan, piano eta biolon erromantikoen doinuak joko dituzte Florent Albrecht eta Jean-Marc Philips-Varjabédian musikariek.

Savon Noir konpainiaren 'À l'horizon la mer' antzezlanaren 20an Larrekon

JL BESSONART

Savon Noir konpainiak plaza-raturiko *À l'horizon la mer* antzezlanaren aurkeztuko dute urriaren 20an ortziralean 19:00etan Larreko kultur aretoan. Frantsesez emana den ikusgarrian, nortasun handiko bi emazteren harremanak

nabariak dira, bata ez jakin bere amatasuna nola asumitu eta berteak, aldiz, lagundu nahi erronka horretan. Ikuskizuna dohainik eskainia da ortziralean 19:00tan Larrekon, haatik nahi dutenek diruztatu beren parte hartzea ongi etorria izanen da.

Sophie Henaff idazlea mediatekan

Sophie Henaff eleberriz beltzen idazle ezagunak aurkeztu du *Drame de Pique* bere azken obra Mediatekan 30 pertsonen parte hartu zuten topaketa horretan, gehienek irakurria zuten liburua eta denak atseginetan. Autorearekin harreman aberasgarriak izan dituzte.



JL BESSONART



Ibarrungo bestetako kantaldia Zortzi taldearekin. JL BESSONART

Ibarrungo bestetako bazkarian 800 bazkaltiar eta giro ederra izan zuten

JL BESSONART

Julen, Ibarrun auzoko besta komitearen zuzendaria biziki baikor agertu da aurtengo bestetan erabilitako formula berriekin. Hala nola, ortzirale arratsean usaiako afariaren orde, mus txapelketa antolatua zuten. 48 bikotek parte hartu zuten gaitzeko giro alai batean, iduriz beranta arte.

Xerrikume erreak betiko arrakasta ukan zuen larunbaterako bazkarian. 800 kideetan baitzen mugatua, erreserbatzeko lehen egunean tanpez leku guzikiak hartuak zituzten. Igande goizean, emazteen

minbizia ikertzeko dirua biltzeko egiten den martxak 50 kide bildu zuen. Meza nagusia ere ongi kantatua izan zen Inharria baserrian. Arratsaldean, plaza erdian bilduak ziren *kasetas* delakoak, alaituak saihetseko kantaldiarekin. Aurten Zortzi taldea aritu zen kantari. Gaualdia, berriz, Frikog animatu zuten.

Astelehenean, bukatzeko, azken indarrak betiko kuadrilla beretsuek eman zituzten tabernetan gaindi. Oro har, eguraldia lagun, bikain joan dira aurten ere Ibarrungo bestak.



Gaueko lasterketako eta mendi maratoni erdiko podiumak. Bietan izan zen Hodei Lujanbio goizuetarra. PIERRE EZKURRA

Lujanbio eta Bernardi nagusi Urdazubiko UKLko konbinatuan

Gaueko lasterketan Jokin Arretxea eta Joana Bimboire garaile eta maratoni erdian Iñigo Uribe-Etxeberria eta Maud Combarieue

ARANTXA ETA IRAIA URDAZUBI
Azkar kirol taldeak eta Urdazubiko gazteriak, udalaren eta Mugarkiren laguntzaz antolatutako Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketak egin zituzten urriaren 7an eta 8an. Larunbatean, urriak 7, gaueko lanak izeneko 9,5 kilometro luzeko lasterketa egin zen.

Garaile Jokin Arretxea suertatu zen (50.06), bigarren postua Hodei Lujanbio goizuetarrak eraman zuen (52.41) eta hirugarrena Michel Guilcou (54.06) izan zen gizonetakoetan. Emakumeen kasuan, Senpereko SPUC Lasterka taldeko Joana Bimboirek lortu zuen lehen postua (1.09.33), Sara Zapata


bigarren izan zen (1.09.55) eta Nerea Goikotxeak (1.11.07) osatu zuen podiuma.

Mendi maratoni erdia

Igandean maratoni erdian lasterka egitera animatu zirenak hurbildu ziren. Gizonetako podiuma Iñigo Uribe-Etxeberriak (1.49.47), Javier Aranguerenek (1.55.09) eta Hodei Lujanbiok (1.57.02) osatu zuten eta emakumeena Maud Combarieuek (2.14.47), Uxue Gomezek (2.43.30) eta Olatz Etxeberriak (2.43.30). Bi lasterketako garaile osoak (bi lasterketak egin zituztenak) hauek izan ziren: Hodei Lujanbio gizonetakoetan (2.49.43) eta Camille Bernardi emakumetakoetan (5.05.55).

Iker Salaberria lau eta erdiko final laurdenetan

Joan den urtean promozio mailako lau eta erdiko txapelketa irabazi ondotik, lehen aldiz lau eta erdiko Eusko Label pilota txapelketa nagusian hasi da Iker Salaberria pilotari goizuetarra. Ongi hasi gainera, final zortzirenetako partidaren 22-14 irabazi baitzuen Urrutikoetxeari urriaren 8an Tolosan. Final laurdenetako lehen partida urriaren 15ean jokatzekoa zuen Lekunberrin iazko txapeldunaren kontra, Ezkurdiaren kontra. Hauekin batera, Altuna III.a, Elordi, Peio Etxeberria, Artola, Jaka eta Peña II.a ari dira ligaxkan.



Iker Salaberria goizuetarra.



ADOS PILOTA

Iturriaga txapeldun, Zabaleta txapeldunorde

Ados Pilota elkarteak hirugarren aldiz antolatutako Plazaz Plaza txapelketaren finala jokatu zuten irailaren 30ean Azkoitiko Goiko Losa pilota plazan. Iera Agirre Iturriaga leitzarrak eta Ruiz de Larramendik 22-17 irabazi zieten Goiuri Zabaleta leitzarrari eta Mujikari.



UTZITAKOA

Arraioz garaile Iturengo laxoa desafioan

Herri arteko laxoa motzeko desafioa jokatu zuten irailaren 30ean Iturengo plazan, Iturengo udalak, Laxoa Elkartearn eta Nafarroako Pilota Federazioaren laguntzarekin antolatua. Arraiozek, Doneztebek eta Oizek parte hartu zuten eta baztandarrak nagusitu ziren.



Nafarroako arpana txapelketa mistoko podiuma Leurtzan. UTZITAKOIA



Saldias eta Biurrun txapeldunak.

Dani Saldias eta Biurrun arpana mistoan txapeldun

Berako Ainhoa Etxegarai eta Arantzako Alberto Fagoaga txapeldunorde izan ziren Leurtzan urriaren 8ko finalean

TTIPI-TTAPA LEURTZA

Nafarroako arpana txapelketa mistoko finala jokatu zuten urriaren 8an, igande eguerdi beroan Urrozek eta Beintza-Labaienek partekatzen duten Leurtzan urtegiatan. Joan den urtean bezala, Arraiozko Dani Saldias eta Irune Biurrun suertatu ziren txapeldun eta podiumean ere, iazko bikote berak izan ziren, baina lekuak aldatuta. Berako Ainhoa Etxegarai eta Arantzako Alberto Fagoaga bigarren izan ziren (iaz hirugarren) eta Ainhoa Iraizoz eta Josetxo Barberena hirugarren (iaz bigarren).

Finalean zeuden borts bi-koteek hamabi korte eman behar izan zituzten 45 ontzako enborrean. Hiru lehenbiziko postuetan lehia estua izan zen, baina Saldiasek eta Biurrunek 5 minutu eta 54 segundo behar izan zituzten lana burutzeko, Etxegarai eta Fagoagak baino 13 guttiago (6.07). Iraizozek eta Barberenak irabazleek baino 21 segundo gehiago eta Bortzirietako bikoteak baino 8 segundo gehiago behar izan zituzten podiuma osatzeko. Uxue Rodriguez eta Iosu Huarte laugarren izan ziren (6.44) eta

Oier Aizkorbe eta Miren Eizmendi bosgarren (7.36). Nafarroako Herri Kirol Federazioako presidente den Jon Telletxea Beintza-Labaiengo alkatearen eta Patxi Larretxearen eskutik jaso zituzten sariak.

Arpanlarien txapelketa ez ezik, aizkolarien erakustaldia ere egin zuten Leurtzan.

Eskualdeko bertze arpanlariari dagokienez, finaletik kanpo gelditu ziren Lekarozko Sela Goñi eta Jexux Goñi, Berroetako Sarai Maritorea eta Ekaitz Maritorea, Sunbillako Esti Gastearena eta Unai Bertiz eta Arantzako Naiara Manzano eta Mikel Oteiza.

EHKO hirugarren mailako aizkolaririk finalista

Euskal Herriko hirugarren mailako aizkolaririk txapelketaren finalean ez da eskualdeko aizkolaririk izan. *Txikia IVak*, Mikel Larrañagak, Ugaitz Mugertzak, Eneko Otañok, Aitzol Atutxak eta Eneko Saralegik lortu dute txartela.

Beti Gazte eta Amaiur hasi dira Nafarroako sokatira txapelketan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako sokatira txapelketa antolatuta du aurten ere Nafarroako Herri Kirol Federazioak. Azken urteetan bezala, Lesakako Beti Gazte eta Amaiur izanen dira eskualdeko ordezkariak. Gizonezkoak (620 kilo) eta talde mistoak (560 kilo) zortzinaka lehiatuko dira eta emakumeak seinaka (385 kilo). Txapelketa mistoko lehenbiziko jardunaldia larunbat honetan, **urriak 14**, jokatzekoa zuten Leitzan eta kategoria honetako txapelak **urriaren 21ean** banatuko dituzte Antsoainen. Txapelketa mistoan Amaiurko bi talde, Beti Gazte, Antsoain, Berriozar eta Txantrea ari dira lehian. Gizonezkoan eta emakumezkoen txapelketetako lehen jardunaldia **urriaren 29an** jokatu dute Elizondon eta **azaroaren 5ean** banatuko dituzte kategoria hauetako txapelak, oraindik zehaztu gabeko plaza. Gizonezkoetan, eskualdeko bi taldeekin batera, Antsoain, Berriozar eta Txantrea lehiatuko dira eta emakumezkoetan sei talde ariko dira: Amaiur, Antsoain, Araxes, Berriozar, Beti Gazte eta Txantrea. Gogoratu behar da martxoan munduko txapelketa ere jokatu dela Suedian.

Euskal Herriko lehen mailako aizkolaririk finalista erabaki dira Donezteben

TTIPI-TTAPA DONEZTEBEN

Euskal Herriko lehen mailako aizkolaririk txapelketaren kanporaketa jokatu zuten irailaren 30ean Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Hamaika aizkolaririk izan ziren lehian, azaroaren 1ean Iruñean jokatu den finalerako sei txarteletako

baten bila. Pronostikoak bete eta Otsagabiko Iker Vicente izan zen onena. Berekin batera, Hodei Ezpeleta *Bihurri*, Julen Gabirondo, Oier Kañameres, Zigako Joxean Etxeberria eta Jokin Urretabizkaia *Basozabal* izanen dira Navarra Arenako finalean.



Azaroaren 1eko finalerako Donezteben sailkatutakoak. ONDIKOL

URRIAK 19 - AZAROAK 2

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



MIKEL LARRETXEA

ARANTZA Kultur Egunak eta Baserritarren Eguna

Solasaldia, antzerkia, mus eta partxis txapelketa eta ipuin kontalaria. Informazio osoa 20. orrian.
Urriaren 27tik azaroaren 5era. Baserritarren Eguna azaroaren 1ean.

JARDUNALDIAK

LESAKA

Tantirumairu Ikastolaren 50. urteurrena

Urriaren 21ean, 11:00etan.

Fermin Donea Jubilatuen Elkartearen Eguna

Urriaren 27an.

Bortzirietako Herri Eskola Publikoaren besta

Urriaren 28an.

BERA

Lurraren Eguna

Urriaren 22an.

LEITZA

Udazkeneko festa

Urriaren 28an.

GOIZUETA

Jubilatuen Eguna

Urriaren 29an.

ARANTZA

Baserritarren Eguna

Azaroaren 1ean.

AURKEZPENAK

LEITZA

'Hezkuntza burujabe baten bidean, zer egin dezakegu?'

Nora Salbotxen eskutik.
Udaletxean, urriaren 19an,
18:30etan.

'Euskara minorizazio gorrian: arnaguneetatik, zer egin dezakegu?'

Iñaki Lurrebaso eta Xabier Iraola.
Udaletxean, urriaren 26an,
18:30etan.

DONEZTEBE

'De función pública' liburua

Herriko etxean, urriaren 20an,
18:30etan.

'Jenisjoplin' liburua

Uxue Alberdirekin.
Liburutegian, azaroaren 2an,
18:00etan.

ELIZONDO

'Nostalgia ez da salgai' liburua

Xan Idiarten eskutik.
Txokoton, urriaren 22an, 19:30etan.

'Zombis del capital' liburua

Arizkunenean, urriaren 25ean,
19:00etan.

LESAKA

'Komunikazio ez bortitza'

Koskontako bidean, urriaren
23an, 17:30etan.

'Letrekin dantzan' ipuinak

Haizea Loirarekin.
Liburutegian, urriaren 24an,
17:30etan.

Margarita Leoz

Liburutegian, urriaren 26an,
18:00etan.

IRURITA

'Kaparetasun betearazpenak erregimen zaharraren amaieran' sinposioa

Jauregian, urriaren 24an.

IGANTZI

'Ekofeminismoa eta landa eremuko emakumea'

Udaletxean, urriaren 26an,
18:00etan.

IKUSKIZUNAK

SENPERE

'À l'horizon la mer' antzezlana

Savon Noir konpainia.
Larrekon, urriaren 20an,
19:00etan.

ETXALAR

'Auzolangintza' dokumentala

Kultur etxean, urriaren 21ean,
19:00etan.

DONEZTEBE

'Erdaldun berrien kluba' bakarrizketa

Zineman, urriaren 21ean,
20:00etan.

BERA

'Piscolabis' antzezlana

Kultur etxean, urriaren 28an,
19:00etan.

MUSIKA

ELIZONDO

Ramada Inn taldea

Txokoton, urriaren 20an,
20:00etan.

Martti Mäkelä kantautorea

Txokoton, urriaren 25ean,
21:00etan.

Mäirü taldea

Arizkunenean, urriaren 29an,
19:00etan.

ARANO

Jeiki Abesbatza

Elizan, urriaren 22an, 12:00etan.

LESAKA

Santiago Banda organoan

Elizan, urriaren 27an, 18:30etan.

Ane Martija

Harriondoan, urriaren 29an,
19:00etan.

«Arraunak sakrifizio anitz eskatzen ditu, baina emaitzak merezi du»

AINHOA ETXENIKE SENPEREKO ARRAUNLARIA



AITOR ARRIZABALAGA / EUSKOTREN LIGA

Urruñan bizi den 19 urteko senperrara da Ainhoa Etxenike. Arraunzale amorratua da, «baina nahiko berriki, ez ttikitatik. Iparraldean ez zegoen batere garatua eta ez nuen ezagutzen».

Taldez talde

Anaiari esker ezagutu zuen arraunaren mundua; «Donibane Lohizuneko Ur Joko taldean hasi zen, kolegioko lagunek animatua, eta orduan joan nintzen lehenengoz estropadak ikustera. Lehenengo begiradarekin maitemindu nintzen, eta kirol hori niretzat egina zegoela eta maitatuko nuela jakin nuen. Estropadak bukatzean ni ere taldean sartu nintzen. 11 urterekin hasi nintzen patroi gisa ontzi ttiketetan Alebin kategorian, eta arraunean hasteko adina nuenean hasi nintzen estro-

padetan. Geroztik arraunlari izan naiz beti».

2021ean Jubenileko lehen urtean hasi zen traineruetan, Lapurdiko nesken arraun taldean. «Taldea urte horretan bukatu zen, eta arraunean segitu nahi genuen sei neska gelditu ginen. Beraz, hurrengo urtean bertze elkarte batzuegana jo genuen, eta Hernaniko taldean hasi ginen Lapurdiko seiak».

Orain, berriz, Orioko Orialki emakume taldean ari da Etxenike: «salto ikaragarria izan da, maila altuagoa baita eta Ligan lehiatzen delako.

«ORION HASTEA MAILAN SALTO IKARAGARRIA IZAN DA»

Zaila izan da, mentalki eta fisikoki, baina esperientzia biziki polita da».

Aurtengo denboraldiari begira, «bigarren urtez hasiko naiz Orion, baina oraingoz pausa denboran gaude. Arraunetik deskonektatzeko baliatzen dut denbora hau, gero jo ta ke hasiko baikara». Gainera, «aurten taldekide berriak izanen ditugu eta ekipoa nola osatuko dugun ikusteko gogoia haundia dut».

Taldeko lana

Arrauna «kirol gogorra» dela dio, «azaroan hasten dugu sasoi eta ordu aunitz pasatzen ditugu fisikoa prestatzen, astean lauzpabost entrenamendu eginda. Abenduan hasten gara uretara ateratzen eta udan entrenamendu gehienak uretan egiten ditugu, bi-hiru orduko sei entrenamendu astean. Materiala prestatu eta zaindu ere egin behar dugu eta beraz saioak luzatu egiten dira».

Hala ere, «taldean lehiatzea anitz maite dut. Biziki berezia da, taldean irabazi edo galtzen duzulako, ez zuk bakarrik. Bertzeak gabe ez zara deus eta bertzeak zu gabe ez dira deus». Gainera, «estresa hobe kudeatzen dugu taldean eta elkarrekin sufritzen dugu. Bukaerako garaipena askoz politagoa da».

Emakumeen egoera arraunean «anitz» hobetu da; «pau-soak egin dira aitzinera, bereziki aurten, goi mailan lau beharrean zortzi traineru izan baitira -mutiletan 12 izaten dira-. Hala ere, oraindik bada-go lana egiteko, emakumeek ez dutelako garrantzia handirik, bereziki bigarren mailan».

«EMAKUMEEN ARRAUNEAN LAN ANITZ DUGU EGITEKO»

Honez gain, «mutilekiko desoreka haundiak izaten dira maila guztietan, eta lan gogor eta luzea dugu oraindik egiteko. Ez dut uste mutilek baino merezimendu guttiago dugunik, eta elkarte batzuetan mutilek dute lehentasun eta errekonozimendu guztia».

Anitz eman eta kendu

Arraunketa «nire bizi osoa da, poza eta zoriontasuna ekartzen dizkit. Anitz sufritzen da, baina sufritze positiboa da, taldean delako. Gure arazoak ahaztu eta sufritzen ikasten eta maitatzen dugu. Arraunik gabe ezingo nintzateke bizi, oraingoz».

Baina noski, «kirolak gauza anitz ere kendu dizkit. Sakrifizio haundiak egin behar dira astean hainbertze orduz entrenatzeko, eta ezin duzu huts egin entrenamendu ez estropadetan. Ezin dituzu udak nahi bezala baliatu, lagunak eta familia hainbertze ikusi edo nahi duzuna jan eta edan. Errespetatu beharreko egin-behar anitz dituzu, eta hori argi izan behar duzu. Baina bizitzen dugun guzira ikusita, sakrifizio horien hautua egiteak merezi du».

Gainera, «gehitu nahiko nuke Iparraldeko euskalduna izatea ez dela erraza Hegoaldeko talde batean. Hasieratik borrokatu behar zara erakusteko zu ere euskalduna zarela eta ez frantsesa. Gure nortasuna defenditu eta justifikatu behar dugu beti».

Kirol honetan, «Kontxa irabaztea izanen litzateke nire ametsik haundiena, arraunean irabazten ahal duzun altxorrik politenetakoa baita».

Etokizunera begira, «teknikoki eta fisikoki ahal bezain bertze hobetzea eta indartzea da nire helburua. Gaztea naiz eta lan haundia dut oraindik egiteko. Eta noski, Orion edo goi mailako bertze talde batean lehiatzen segitu nahi dut».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BORTZIRIAK. Jubilazioarengatik 70m²-ko pisua salgai. 48.000 euro. ☎693 69 49 76 (Jose M^a).

KONPARTITZEKO

BAZTAN. Logelak errentan emateko, irakasleentzat aproposak. Irailetik ekainera. ☎630 22 26 81.

ERRENTAN HARTZEKO

BERA EDO LESAKA. 38 urteko mutil arduratsua eta garbia pisu bila dabil Beran edo Lesakan. Pisua barrik egoteko nahi du, lana eta familiaratik hurbil egoteko. Halere, konpartitzeko prest. ☎609 40 82 89.

EROSI

Berritzeko etxea, baserria edo pisua erosiko nuke. Ez du inporta zein zonaldean ezta zein egoeratan dagoen. ☎693 69 49 76 (Jose M^a).

GARAJEAK-LOKALAK

BERTZELAKOAK

ELIZONDO. Janari denda eta bisita gida turistikoen negozioa eskualdatzeko. 20.000 euro negoziagarri. ☎628 01 98 93.

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Pabiloia errentan emateko. 155 m², hormigoizko lurra, kamioientzako sarrera egokia eta N-121tik hurbil. ☎600 90 10 58.

LANA

ESKAINTZAK

LESACA. Iturbena kafetegian, igandetan 08:00etatik 13:30era/14:00etara errefortzua egiteko zerbitzari bila. Edozer gauza edo zalantza deitu. ☎620 70 09 64.

BERA. Ganix tailerrean aritzeko mekanikaria behar dute. ☎948 63 06 69.

ZERBITZUAK

ZURGIN LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Jose Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

ANIMALIAK

OPARITZEKO

LEITZA. Bost hilabete dituen eta collie arrazakoa den txakurkumea

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da

ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

oparitzeko. Oso polita eta ernea da. ☎636 02 23 11.

ERRATZU. Katakumeak oparitzeko. ☎628 90 41 30.

10 hilabeteko zakurkumea oparitzeko. Border Collie eta euskal artzain arrazen nahasketa. Obendientea, maitekorra eta hagitz azkarra. ☎639 60 70 36.



BERA. Katutxoak oparitzeko. ☎680 88 77 56

ETXALAR. 5 hilabeteko zakurkumea oparitzeko. Artzain zakur alemana

arrazakoa, mestizoa. Arra. ☎686 67 31 05.



Bi hilabeteko katakumea oparitzeko. Ama siamesa. ☎666 26 41 16.

DENETARIK

SALGAI

Logela saltzeko. Bi ohatze, mesanotxea, komoda eta armairu batez osatua. ☎659 76 43 75 / 661 13 83 85 (Deitu arratsalde).

Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko sua-

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,30 €
- 1.koa 5,18 €
- 2.koa 5,06 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,41 €
- 1.koa 5,27 €
- 2.koa 5,16 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69€

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 10,10/10,20 €
- 8-10 kilokoak: 8,20/8,90€

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 68 €

Zerri gizona 1,035 €

Zerramak 0,360€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua irailaren 29tik urriaren 6ra bitarteko prezioak)



rendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

GALDU-AURKITUAK

DONEZTEBE. Irailaren 13a aldera, Doneztebeko enplegu bulegoaren eta osasun zentro zaharraren inguruan NANA galdu dute. Norbaitek aurkitu badu deitzea eskertuko dute. ☎600 66 00 41.

ARANTZA. Ekaitza mendian betaurreko graduatuak aurkitu dituzte. ☎948 62 57 72 / 647 61 78 37.

MOTORRAK

SALGAI



Royal Enfield Himalayan 400 motorra salgai. 2018. urtekoa, 3.000 km bakarrik ditu eta beti garajejan egondakoa. Erabiltzeko denbora faltagatik saltzeko. Prezioa: 3.700 €. IAT/ITV 2025era arte pasatua. ☎674 79 58 63.

TAILERRAK



**SANTESTEBAN
TAILERRAK**



**RENAULT MEGANE
1.5 DCI 110 CV
2018. urtekoa
47000km**

**Aukera
bikaina!**

www.tailerresantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282
info@tailerresantesteban.com

BERAKO UDALA

ALKATEAREN EBAZPENAREN HIRIGINTZA

Berako Udaleko alkate eginkizunetan ari den alkateordeak, irailaren 20an emandako 282/2023 Ebazpenaren bitartez, 10. poligonoko 150. partzelako xehetasun azterketa (Eztegara Pasealekua, 22), onetsi zuen hasiera batez. Espedientea jendaurrean izanen da hogeitun laneguneko epean, dagokion iragarkia N.A.O.n argitaratu ematen denetik (2023ko irailaren 28ko 203. N.A.O.ean argitaratua).

Bera, 2023-09-29
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña

ttipi-ttapa
sare sozialetan



facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa

JARRAI GAITZAZU!

URTEBETETZEAK



Jare eta **Endara** lehengusinek urteak bete dituzte urriaren 5ean eta 6an. Muxu handi bat eta zorionak familia osoaren partetik.



Beñat Portu Iraizok 3 urte bete ditu urriaren 18an. Zorionak eta muxu haundi bat Artazkozko familiaren eta Lesakako amatxiren partetik.



Berako **Adur** eta **Oinatz Arozenak** urriaren 22an 10 urte beteak dituzte! Ongi-ongi pasatu! Muxu potoloak familia guztiaren partez!



Auniz urtez **Ibai!** Segi beti bezain alai eta jator. Auniz maite zaitugu!

Aprobetxatu Kit Digital bonuarekin

KULTURKARIn eskaintzen ditugun konponbideak
Enpresa txiki eta ertainentzako dirulaguntzak



Webgunea egin eta Interneteko presentzia

Gehieneko dirulaguntza 2.000 €
Onuradunak BEZa baino ez du ordainduko

Nola eskatu bonu digitala

01

Erregistratu www.acelerapyme.es webbidean eta osatu autodiagnostiko-testa.

02

Horrela, zure enpresak zer digitalizazio-maila duen jakinen dugu, zuri hobeki laguntzeko eta zure beharretara egokitutako zerbitzuak gomendatzeko.

03

Eskatu laguntza Kit Digitala Red.es-en egoitza elektronikoaan (sede.red.gob.es). Bete formularioko urrats guztiak.



Agente digitalizatzaileak gara

www.kulturkari.com/kit-digitala

Tel. 948 635 458



OROIGARRIA



**Jose Luis
KARRIKABURU
KARRIKABURU**

Arraiozen, 2023ko urriaren 2an hil zen,
76 urte zituela

*Esker mile
erakutsi eta eman
diguzun guztiagatik.
Betiko gure bihotzetan.*

ZURE FAMILIA GUZIA

OROIGARRIA



**M^a Carmen
MARITORENA DANBORIENA**

Lesakan, 2023ko urriaren 1ean,
86 urte zituela

*Ubiria-Maritorea familiak
eskerrak eman nahi dizkizue denei
eman diguzuen maitasunagatik eta konpainiagatik.*

HILBERRIAK

- **Josu Cabodevila Lusarreta**, Elizondokoa, irailaren 29an, 65 urte zituela.
- **M^a Carmen Maritorea Danboriena**, Lesakakoa, urriaren 1ean, 86 urte zituela.
- **Jose Luis Karrikaburu Karrikaburu**, Arraiozkoa, urriaren 2an, 76 urte zituela.
- **Elena Irurieta Petirena**, Sunbillakoa, urriaren 8an, 88 urte zituela.
- **Kevin Wladimir Paredes Jimenez**, Berakoa, urriaren 8an, 25 urte zituela.



BAZTAN BIDASOA
Onartza Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



 **KULTURKARI**
Divisio grafiko | Publikatza
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58



IZARRA
HERRI, ZURE ONDOAN
ANIMA ETXERAN




Gure harra,
gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

 24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak


Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

HITZ GEZIDUNAK

	Olibondoen fruitua	Ugaitza	Egiotzi	Bordaldea lantzen duen pertsona	Hobenenak
	Umore onekoak	Senidea	Beratzeko landarea	Zangoaren mufarrean	Hitzarmen
				Atxi	
	◆ Deitara				
	Gizon izena				
Haranak, iberrak	Erreka handia		Lapu, sama		
Heguzi ikungaria	Igora dena		Egitasmo		
			Fosforoa	Emakume izena	
			Gizon izena	Urteberrri eguna	
Isatza, garoa		Lehenengo letra	Euri xuri		Potasioa
◆ Izena		Diko herrialdea	Emaitza		Halere
			Edatekoa		
			Baztanen bitzen amaza		Aintzia
Eskaide bakonabarerra					Karbonata bikoltza
Fruta mota					Arantzako mendia
				Guruso arta	
				Bokal rasboa	
Non atzikiak		Indartsuak			
Delduria		Kontso-mantila			
				Sute	Uranioa

◆ Abeslari baztandarra

GOITIBEHERA

1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									
11									

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Nafarroako udalerrria, Arantzaldean.
- [2] Janaria ibai ahoe-tako lohian bilatzen duten arrainak, korrokoiak.
- [3] Hartauzak.
- [4] Arinak, lasterrak.
- [5] Ultzamako kontzejua.
- [6] Baratzeko landarea.
- [7] Zaude.
- [8] Urteko hamaikagarren hilabete.
- [9] Iturengoa, ezagunena.
- [10] Oreinaren familiako hausnarkaria.
- [11] Masailekoa.

ERANTZUNAK

U	-	S	-	V	I	V	V	K	I
K	V	Z	I	I	R	O	B	N	V
V	L	I	V	R	V	D	V	S	V
L	V	I	N	O	N	A	V	V	V
-	V	I	V	O	E	V	V	V	O
K	R	O	T	Z	V	V	V	V	I
V	N	A	V	V	V	V	S	V	V
N	O	I	O	V	I	B	I	B	O
E	R	V	I	Z	I	N	I	V	B
N	I	O	K	A	V	V	V	A	V
O	R	E	T	A	O	O	O	O	O

LAKUNTZA
LAZUNAK
LAUZAK
ZALUA
AUZA
AZA
ZARA
AZARO
AROTZA
ORKATZA
ZARTAKOA

PLAZAN BAZAN

IKUSI MAKUSI

Zer ikusten du piratak bere kataloxatik? Aukeratu irudi ona.



Marrakizjak: Garbiñe Ubeda (Alurri)

ZORIONAK!
ELAIA MURUAGA ELIZEGI

839. aleko irabazlea zara!



Loguntzailea:

ibaizabal

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin urriaren 23a baino lehenago, Ttipi-Ttapako Whatsappera: (0034) 774 48 43 61 zure izen abizenak jarrita. Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!




INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

BAIETZ HAMABI



Horra hemen bi itsaslapur. Bata bestearen ispilu direla ematen du baina ez dira erabat berdinak. Aurkitu bien arteko aldeak. 12 dira guztira.

BIKOTEA

Loro hauen artean bat bi aldiz ageri da. Zein da?



Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipe-txartela

839 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Sagrario Barcina Prados | DONEZTEBE
Buatxabal - Kamiseta bat
Kristina Indaburu Guilzu | ZUGARRAMURDI
Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Pakita Zabaleta Zabaleta | IRUÑEA
Irrisarri Land - Sarrera bat
Jose Antonio Sarratea Rekarte | LEGASA
Giltxaurdi - Kiroldegirako bi sarrera
Begoña Viela Urtasun | IRURITA
Salting Iruñea - Bi sarrera
Maite Zelaieta Oteiza | LEITZA
Fantxike - Kamiseta bat
Juankar Unanua Navarro | IGANTZI
Izar Park - Sarrera bat
Amaia Urkitza Azueta | BERA
Erein - Hiru liburu
Rosario Etxandi Juanikotena | ELIZONDO

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumos.com



Bi sarrera

ONDOO TA PUNTO
www.ondootapunto.com



Kamiseta bat

EZKEXA
www.ezkexa.com



Kamiseta bat

BKZ ABENTURA
www.navantaventura.com



Sarrera bat

LESAKA
www.lesakakoudelkiroldegia.com



Bi sarrera

KUKUKA HAUR ARROPA DENDA
Zaspigunzte, 1 | Doneztebe | Tel.: 948 45 02 52



Haurrendako lote bat

MAITE MODA
Amedia zeharkamika, 5 | DONEZTEBE



Jertse bat

ARKUPE
www.arkupegozategia.com



Lote bat

Sartu

ttipi.eus/ttipe-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipe Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttipe Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.

LIBURUAK

Bi liburu



Deskontuak eta zozketa: Ttipe-Ttapa aldizkari
guztietan Ttipe Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

ikaslar
www.ikaslar.eus